

KORONABIRUSA DEBAGOIENEAN

Aretxabaletarra da koronabirusa diagnostikatu zioten lehen gipuzkoarra;
Osakidetzak hainbat gomendio eman ditu gaitza prebenitzeko^{1,2}

Emakumezko bat Debagoieneko Ospitalera sartzen, Arrasaten, atzo, eguna.



IMANOL SORIANO

"Feminismoa" aldarrikatuko dute Martxoaren 8an, "kapitalismoari aurre egiteko"

Emakumeen Nazioarteko Eguna da domekan, eta ekintza ugari antolatu dituzte Debagoienez / 10



Arrasateko talde feminista, Martxoaren 8rako antolatu dituen ekintzak aurkezten. OMAR GRANA



Julen Irizar eta Mikel Aristi ziklista bergararrak, ilusio handiz Euskaltel-en / 38s

SINADURAK

	RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA / 6		LUKENE IGARTUA / 34
	IBON ARRUPE / 12		AINZANE OIARBIDE / 48

Mendeetan barrena tente diraute baserriek

Mercedes Hernaiz notarioari elkarrizketa

2mó
graduatu erreflexuen
aurkako lenteekin
(bat eguzkitakoa izan daiteke)

99€

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira

Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com



Herritar bat, Debagoieneko Ospitalearen ate aurrean. IMANOL SORIANO

Debagoienenera ere ailegatu da

Aretxabaletarra da Gipuzkoan koronabirusa konfirmatu zioten lehen pertsona, eta, berak baieztatu duenez, "oso ondo" dago; epidemia hau sektore ezberdinetan ari da eragiten, eta horietako protagonista batzuen eta adituen ahotsak jaso ditu GOIENAK

Eneko Azurmendi ARRASATE

Gertatu da. 2019ko abenduan Txinako Wuhan hirian agertutako koronabirusa edo Covid-19 gaixotasuna iritsi da Euskal Herrira, eta baita Debagoienenera ere. Asteon baieztatu dute koronabirusa daukan eta konfirmatuta dagoen Gipuzkoako lehen pertsona aretxabaletarra dela.

Neska gazte bat da. Milanera bidaiatu zuen otsailaren 18a eta 22a bitartean, eta itzuli ostean, otsailaren 25ean, sentitu zen ondoezik, arnas sintomak nabaritzen. Osasun Kontseilura deitu eta, ondoren, jarduteko protokoloa aktibatu zioten. Orain arteko proba guztietan positibo eman du eta gaur egingo diote beste bat, bere mutil-lagunak baieztatu duenez. "Ea behingoz albiste on bat jasotzen dugun eta normaltasunera itzultzen garen", gaineratu du. Mutil-laguna arrasatearra da, eta hura

ere etxean dago, berrogeialdian. "Berak positibo eman zuenean, osasun zerbitzuekin harremanetan jarri nintzen, eta jarraitu beharreko pautak batzuk eman zizkidaten. Berarekin kontaktu zuzena daukadanez eta Milanen batera egon ginenez, hamabost egun etxean isolatuta egin behar ditut". Lehen egunetan, egunean birritan deitzen zioten eta orain, egunean behin. "Beldur puntu bat eduki nuen hasieran, baina egunak aurrera doazen heinean, neska-laguna ondo dagoela ikusita, lasaitasunez bizi dut. Nik, gainera, ez daukat inongo sintomarik, momentuz, nahiz eta tenperatura hartzen dudana egunean bi aldiz, badaezpada".

Iñaki Peña barneko medikuak *Puntua* aldizkariko gaurko zenbakian kaleratu duenez, dagoeneko pandemia kategorian sartuta dago, Txinatik Hong Kong, Hego Korea, Japonia, Singapur,

Filipinak, Iran eta Italiara zabaldu da, eta 2020ko otsailaren 28rako 83.000 kasutik gora baieztatu dira 50 herrialde baino gehiagotan mundu osoan, horietatik 8.000 larri moduan sailkatuta. Orain arte, 2.800 heriotza zenbatu dituzte.

ERAGINA HEMENGO ENPRESETAN NEURRIAK HARTZEN HASIAK DIRA HEMENGO HAINBAT ENPRESA

Mundu mailako arazo bihurtu da dagoeneko, eta horren eragina izaten ari dira hemengo hainbat enpresa ere. Fagor Automationek, esaterako, produktzioa gutxitu egin behar izan du negozio batean. "Lehengaiak Txinatik ekartzen ditugu, neurri handi batean, %39 inguru. Horrek Eskoriatzako lantegian

doikuntza batzuk egitera behartu gaitu. Momentuz, egubakoitzetako produktzioa eten egin dugu. Ikusi egin beharko da nola garatzen den hau, baina egoera bere horretan mantentzen bada, ez dugu baztertzen beste neurri batzuk hartu behar izatea", adierazi du Aitor Irurek, enpresako gerenteak.

Bidaletan ere eragina izaten ari da. "Herrialde ezberdinetako eta hemengo agintarien gomendioei kasu eginez, hainbat teknikari eta komertzial ez dira ari bidaiatzen, oso beharrezkoak ez diren kasuetan izan ezik".

Mondragon korporazioan neurriak hartzen hasiak dira, eta jarraipen batzordea eratu dute, "prebentziorako eta eboluzioa ikusteko, informazioa kooperatibekin partekatzeko". Era berean, osasungintzako autoritateekin harremanetan dihardute, protokoloak eta gomendioak bete ahal izateko. Bestalde, Txinan badoaz apurka-apurka langileak lanera itzuliz, "normaltasunera bidean", baina oraindik ere prebentzio neurri batzuekin.

Laboral Kutxak ere hainbat neurri hartu ditu dagoeneko eta Osakidetza emandako mezuak zabaltzen dabiltza, nahiz eta, oraingoz, ez duten zailtasunik zerbitzua emateko. Halaber, gelak banatu dituzte, gomendioetako bat baita eskuak sarri garbitzea. Aurrera begira, egoerak txarrerara egingo balu, jakinarazi dute badituztela lan protokoloak landuta.

Neurriak hartu dituen beste erakunde bat Aita Menni da. Izan ere, zentroetan bisitak mugatu dituzte, eta hainbat ekintza bertan behera utzi. Oñatiko San Martin egoitzan, esaterako, egoiliar bakoitzeko bi bisitarira mugatu dute, eta ordutegiari dagokionez, astean zehar 17:30etik 19:30era eta asteburuetan 11:30etik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era.

BEÑAT BARBERENA

"OTSAILAREN 4AN NINTZEN TXINARA ITZULTZEKO, ETA ASTELEHENEAN NOA"

Beñat Barberena arrasatearra izan da beste kaltetuetako bat. Txinako Hangzhou hirian egiten du lan eta otsailaren 4an itzultzekoa zen hara, oporrak hemen igaro ostean. "Egunean bertan, Txinan goizaldea zela, hemengo gauerdian, eskolatik abisatu zidaten Hangzhoueko gobernua nire auzoan berrogeialdi neurriak hartu zituela. Beraz, akaso, Shanghaiatik Hangzhouera joateko eta etxean sartzeko arazoak edukiko nituzkeela eta gomendatu zidaten denbora bat pasa arte ez bidaiatzeko".

Azkenean, martxoaren 9an joango da Txinara, astelehenean. "Irakasleak deituta gaude lanera, eskolatik online klaseak prestatzeko. Dena dela, otsailaren 10etik gabiltza online lanean. Nik, bestalde, 14 eguneko berrogeialdia egin beharko du etxean".

Egoera normalitatez bizi duela dio. "Uste dut autoritateei arretaz entzun behar zaiela eta beraiek emandako babes neurriak hartu". Era berean, iritzi dio orain "lasaia" bizi beharko lirakeela hemengo herritarrek. "Gaixotasuna hemen egonda, eboluzioa aztertzea fidagarriagoa delako. Azken finean, beti egonda gure ahotan ea Txinatik helden diren datuak zuzenak diren eta abar", nabarmendu du.

ADRIAN ZELAIA

"GEHIAGO ZABALTZEN BADA, HANDIAK IZAN DAITEZKE ERAGIN EKONOMIKOAK"

Koronabirusa ia mundu osoan zabaldu izana eragina izaten ari

"Etxean bakarrik geratu behar izatea da okerreña"

KORONABIRUSA DUEN LEHEN DEBAGOIENDARRA

Milanera egindako bidaia baten ostean, sintomekin hasi zen gazte aretxabaletarra, eta positibo eman zuen probetan.

Noiz hasi zinen sintomekin?

Milanen egon nintzen mutil-lagunarekin batera futbol partidu bat zuzenean ikusten. Gero, bueltatu ginen eta Aratusteak normal pasatu genituen. Hala ere, otsailaren 25ean, alergia bat izango banu moduko sintomak hasi nintzen igartzen. Katarro baten antzekoa zen, baina Italiatik zetozen albisteekin erabaki genuen probak egitea. 112ra deitu nuen eta epidemiologiakoekin jarri nintzen harremanetan; lehen unetik esan zidaten etxean geratzeko eta galdetu zidaten zeintzuk izan ziren nirekin kontaktuan izan zirenak; betiere, sintomekin hasi nintzenetik. Sukarrik ez dut izan, hiru eguneko katarro bat izan dut. **Nola zaude orain?**



Orain, oso ondo nago. Dirudienez, birusa daukat, baina katarro baten azken arrastoak dira sintomak, besterik ez. Etxean bakarrik geratu behar izatea da okerreña; kezka banuen hasieran informazioa ez nuelako, baina medikuekin egon ostean askoz lasaia nago. **Medikuekin egunero duzu harremana?** Bai. Egunero deitzen didate. Sintomekin hasi nintzenetik

norekin izan dudana kontaktua, horixe izan zen lehen kezka. Otsailaren 25etik nire gurasoekin, nire osaba-izebekin eta nire mutil-lagunarekin eta bere familiarekin egon nintzen eta haiei bai ari direla egiten jarraipena. Baina bizitza normala egin dezakete, kalean lasai ibili daitezke; sintomaren batekin hasiz gero, etxean geratzeko dira. Nire mutil-laguna da salbuespena, arrisku handia duelako koronabirusa izateko, eta, horregatik, Arrasateko beste etxe baten dago bikotekidea.

Hemendik aurrera ze urrats egingo dituzu?

Proba berri bat egingo didate eta horrek negatibo ematen badu beste proba bat egingo didate geroago; bigarren proban negatibo emanez gero alta emango didate.

Ze mezu helarazi nahiko zenuke?

Oso ondo nagoela eta ingurukoak lasai egon daitezkeela, hainbat zurrumurru faltsu heldu zaizkit eta. Sintomekin hasi nintzenetik kontaktuan egon nintzenei jarraipena egiten ari zaie. Ez da horrenbestera, izan dadila okerreña pasatu dudana katarro hau. Horrekin batera, gertukoei esan nahi diet galdetzeko niri lasai zer gertatzen zaidan, ez dagoela larritu beharrik. **Zurrumurru asko zabaldu dira. Mezu asko heldu zaizkizu?**

Itzela izan da jaso dudana mezu uholdea. Aipatu da, adibidez, Aretxabaletako Haizea tabernan lanean egon nintzela Aratusteetan eta ondorioz sekulako arriskua dagoela. Ez nintzen lanean egon, baina, egon izan banintz, ez dio axola; gogora ekarri behar da sintomak agertu ostean dagoela kutsatzeko arriskua.

da munduko ekonomian, baita hemengoan ere, Adrian Zelaia ekonomialariaren esanetan. "Momentuz, eragin ekonomiko konkretuak izan dira, batez ere, Txinan, noski, produkzio eta zerbitzu esparruetan hainbat jardura gelditu behar izan dituztelako. Hori, bestalde, Txinarekin harremanetan dauden enpresetan ere nabaritu da", dio. Hala ere, uste du eragin horrek ez daukala zertan inportantea izan. "Oraindik, behin-behineko egoera bat da, eta berreskuratu daiteke datozen hilabeteetan, gaixotasunaren egoerak hobera eginez gero. Hemengo enpresa batzuek ekoizpena jaitsi behar izan dute, bai. Baina ondorio konkretu horiek estruktural bihurtzen dira egoera luzatzen bada bakarrik, bestela ez".

Aurrera begira, "ezinezkoa" da aurreikuspen zehatzik egitea. "Denbora izango da gako garrantzitsua, ez baitu zerikusirik honek hilabete iraun, sei hilabete edo urtebete. Gaixotasun hau gehiago zabaltzen bada, gertatu daiteke arazo larriak izatea baloreen merka-

ALMACENES ARRASATE

ASTE ITZELA

Martxoaren 6tik 14ra

12 hilabeteko finantzaketa interes barik

5 urteko garantia-hedapena produktu guztietan 35 eurogatik bakarrik



1200 b/min
6 Kg

GARBIGAILUA
TKX3 1263

417
-%33
279 €



1200 b/min
8 Kg

GARBIGAILUA
3T986BT

550
-%27
399 €



8 Kg

LEHORGAILUA
DHA8512RX

699
-%32
475 €



ONTZI-GARBIGAILUA
WFO-3T132X

650
-%35
425 €



LABEA + BITROA
BSE22120X

399 €



INDUKZIO PLAKA
IKB63341FB

Biak erosita
%10eko EXTRA

770
-%48
399 €



LABE PIROLITIKOA
BPS351120M

745
-%40
450 €



HOZKAILUA
RB31HER2CSA

679
-%20
550 €



HOZKAILUA
KGN39VI3A

945
-%32
650 €



KUTXATZARRA
HSA32520

499
-%35
325 €

Eskaintza balagarria akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

tuan eta, oro har, egoera finantzarioan".

Txinatik kanpo gaixotasuna zabaltzeak "arriskuak" sortu ditzakeela dio ekonomialariak. "Ez dakigu ze puntutaraino izango garen gai beste herrialdeok Txinak hartu dituen neurri zorrotzak hartzeko, arazoa kontrolatzeko. Horrek baldintzatuko ditu izan daitezkeen kalte ekonomikoak ere".

Zelaiaren esanetan, Txinakoa "oso egoera ezegonkorrean eta arriskutsuan" dagoen finantza sistema bat da, eta baloreen merkatuan erabakigarria izan daiteke koronabirusa. "Horren atzean dago, oro har, mendealde osoan dagoen gehiegizko zorpetze maila. 40 urtez egon da hazten maila hori krisia agertu arte, eta gero, konpondu beharrean, mantendu baino ez dugu egin. Bestalde, 2012tik aurrera ibili gara moneta politikaren bitartez baliabide berriak merkatuan txertatzen etengabe. Ondorioz, artifizialki mantendu dugu dinamismo ekonomikoa eta etengabe puzten ibili gara balore eta finantza merkatuak. Merkatu horietan izugarrizko burbuila zegoen,

eta ez da harritzekoa izan nabarmen jaistea koronabirusaren gaineko albiste ezkorren aurrean. Baina koronabirusa eragileetako bat besterik ez da izan, ez dezagun pentsa horregatik bakarrik dela jaitsiera". Merkatuaren "zuzenketa" hori aurten edo datorren urtean gertatuko da, "gehienez jota", ekonomialariaren aburuz.

UNIBERTSITATEAN, PREBENTZIOA

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK MONITORIZATUTA DAUKA EGOERA

Debagoieneko hainbat enpresak egin moduan, Mondragon Unibertsitateak ere ikasleen eta langileen artean banatu ditu eta banatzen ari da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak zabaldu dituen prebentzio neurri eta gomendio guztiak: bai higie-neurriak, bidaiazteko gomendioak, eta abar, Bixente Atxa errektoreak adierazi duenez.

Era berean, azpimarratu du unibertsitateak une oro egoera monitorizatuta daukala, "aldaketaren bat balego, behar diren

Osakidetzaren gomendioak

Koronabirusaren sintomaren bat izanez gero, Osakidetzak gomendatu die herritarrei etxean geratzeko eta 900 20 30 50 telefonora deitzeko. Horrez gain, gaixotasuna kutsatzea prebenitzeko, hainbat higie-neurri publikatu ditu erakundeak:

- Garbitu eskuak sarritan.
- Eztul edo doministiku egitean, estali ahoa eta sudurra ukondoarekin edo zapi batekin. Bota zapia berehala eta garbitu eskuak alkoholaz egindako eskuetako desinfektatzaile batekin edo ur eta xaboiarekin.
- Eztula edo doministiku egin eta sukarra duten pertsonetatik metro batera egon, gutxienez.
- Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa.

neurriak garaiz hartzeko". Horretarako, barne protokolo batzuk diseinatu dituztela gaineratu du Atxak berak.

Hala ere, aktibitate akademiko "normaltasunez" burutzen ari direla onartu du; betiere, aurrez aipaturiko prebentzio egoera hori kontuan hartuta. "Aldaketarik balego, behar diren neurriak hartuko ditugu".

Beste prebentzio neurri bat izan da atzerrian ikasten ari diren ikasleei itzultzeko eskatzea. "Duela 10 egun, esan genien arrisku tokietan zeuden ikasle guztiei etor zitezela honantz, atzerriko egoera hobetzen den bitartean, aktibitate akademikoa hemen jarrai dezaten. Bakoitzaren egoera desberdina denez, era pertsonalizatuan erantzun-go diegu ikasle hauei".

GAIXOTASUNARI BURUZ

HERRITARRAK INFORMATZEKO KANPAINA ABIATU DU OSAKIDETZAK

Osakidetzak Covid-19 gaixotasunari buruzko informazioa kaleratu du. Informazio horren

arabera, koronabirusak animalietan zein gizakietan aurkitzen diren birus familia zabal bat dira. Batzuek gizakia infektatu egiten dute, eta hainbat gaixotasun eragin ditzakete; adibidez, hotzeria arrunta. Gaixotasun larriagoak ere badaude, hala nola Ekialde Hurbileko arnas sindromea (MERS) eta arnas sindrome akutu larria (Sras).

Inkubazio-aldiari buruzko informazioa ere kaleratu du erakundeak. "Infekzioaren eta gaixotasunaren sintoma klinikoen agerpenaren arteko denbora-tarteari dagokionez, gaur egungo kalkuluen arabera, inkubazio-aldia bat eta hamalau egun bitartekoa da; batez beste, bospasei egun. Estimazio horiek eguneratzen joango dira, datu gehiago eskuratu ahala. Koronabirusak eragindako beste gaixotasun batzuei buruz eskuradagoen informazioan oinarrituta –MERS eta SARS, besteak beste–, 2019-an CoV aldiko inkubazio-aldia hamalau egunekoa izan daitekeela kalkulatu da. Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen du baieztatutako kasuen kontaktuen jarraipena hamalau egunekoa izatea".

"Inkubazio epean, kutsadura ia ez da gertatzen"

MIREN BASARAS EHU-KO MIKROBIOLOGIA IRAKASLEA

Miren Basaras mikrobiologiako irakasleak koronabirusaren gaineko informazio zehatza eman dio GOIENARI.

Ze birus mota da?

Birus familia bat da, eta familia horretan hainbat birus daude. Mikroskopioan ikusita, koroa baten itxura dauka, eta horregatik du izen hori. Familia horretako birus batzuek, lau-pabostek, gizakiak bakarrik kutsatzen dituzte, eta urtero hotzeriaren eragileak dira gurean. Beste batzuek animaliak kutsatzen dituzte eta animaliaz animalia transmititzen dira. Edozein animalia izan daiteke: saguzarrak, untxiak, ahateak, hegazti ezberdinak, eta abar. Beste batzuk, azkenik, gai izan dira animalietatik gizakietara pasatzeko. Hiru dira. Batetik, SARS delakoa, 2002an agertu zena. MERS delakoa, 2012an agertu zena, eta aurtengo hau, SARS CoV-2. Honek Covid-19 gaixotasuna eragiten du.

Zein animaliatik pasatu da gizakira?

Hipotesi ezberdinak daude. Uste da saguzarretan gordetzen dela birus hau, eta hurrengo galdera da saguzarretik nola pasatu den gizakira. Hori ere aztertzen ari

dira. Foku edo iturburu garrantzitsuena Txinako animalien merkatu batean izan zen; beraz, hango animaliak aztertzen hasi ziren. Suge batzuk aipatu zituzten, pangolino deituriko animalia bat ere bai, baina ez dago argi bitartekari hori ze animalia izan den.

Birus berria da, ezezaguna.

Gizakian detektatzen den lehen aldia, eta horregatik dago kezka nabarmena. Berria den guztiari errespetu bat izan behar zaio. Ez dakigu zein izango den birus honen jarrera, nola garatuko den.

Zeintzuk dira sintoma horiek?

Eztula, sukarra, arnas ezintasuna eta, batzuetan, eztarriko mina ere bai. Horiek dira arinak diren sintomak, eta pertsonak berez sendatzen dira kasu gehienetan. Hala ere, kasu gutxi batzuetan, %14an edo, sintoma horiek konplikatu egiten dira eta pneumonia agertzen da. Pneumonia hori pertsona batzuetan kaltetu egiten da, %14 horietatik %5ean. Kasu horietan, arnas ezintasun hori geroz eta handiago bilakatzen da, beste organo batzuk kaltetzen ditu eta, azkenean, pertsona hori hil ere egin daiteke.



EHU

"KUTSADUREN GEHIENGOA SINTOMAK AGERTU OSTEAN EMATEN DIRA, BAINA EZIN DUGU %100 ZIURTATU"

Tratamendua ze egoeratan dago?

Berria denez, ez dago birus horren aurkako inolako tratamendu espezifikorik. Jadanik ditugunak probatzen ari dira. Kasu batzuetan, ondo edo erdi ondo funtzionatu dute, baina ez dira aproposenak. Beraz, beste batzuk bilatzen ari dira. Hala ere, luze joko du. Lehenengo, laborategian aztertu behar da; gero, animalietara eraman; animalietatik gizakira; eta gero konfirmatu behar da benetan seguruak eta eraginkorrak direla.

Noiz dago kutsatzeko aukera?

Kutsadura gehienak sintomak agertu ostean gertatzen dira. Inkubazio epean kutsadura maila oso baxua da, ia ez da gertatzen, baina inoiz ezin da %100 ziurtatu. Gripearen kasuan, inkubazio epean kutsagarria da.

Ze fasetan dago koronabirusa hemen?

Esperotakoa zen honaino iristea ere. Kasuak goraka doaz eta uste dut gailurrera ez garela iritsi, kasu gehiago ikusiko ditugula. Ziurrenik, beste aste batzuetan gora egingo du kopuruak, baina ez dakigu noiz arte. Txinan kasuen jaitsiera nabarmenean daude orain.

Hemengo kopurua esanguratsua da?

Ez daude hainbeste kasu. Hala ere, kasuak kontrolatzeko, garrantzitsuena izango da ematen ditugun euste neurri horiek eta berrogeialdi horiek. Hau da, pertsona bat kutsatzen denean, jarraipena egitea eta ikustea nola kutsatu den, eta abar.

Heriotza-tasa zenbatekoa du?

Mundu mailan, kutsatzen direnen %2-3 hiltzen dira. Hemen, kasu gutxi dauden arren, espero da tasa hori antzekoa izatea. Heriotzari dagokionez, halere, inportantea da nabarmentzea nortzuk hiltzen diren. Nagusiki hiltzen dira alde aurretik sistema immunologikoa ahulduta zuten pertsonak, beste patologia edo infekzio batzuk zituztenak.

Eusko Legebiltzarrerako hautagai debagoiendarrak

Asteon amaitu da apirilaren 5ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako hautagai-zerrendak aurkezteko epea, eta debagoiendar ugari daude alderdiek aurkeztu dituzte hautagaitzetan; hamasei dira, guztira

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Astelehenean, hilak 2, amaitu zen apirilaren 5ean egingo diren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako hautagai-zerrendak aurkezteko epea, eta horien baitan, debagoiendar ugari daude alderdiek aurkeztu dituzte hautagaitzetan. Alderdiei dagokienez, Gipuzkoan hamahiru aurkeztu dira eta Araban, hamalau.

Bailarako alkate jeltzale denak

"Eskubide sozial eta ekonomikoak bermatuko dituen gizarte baten alde" azaldu zen EAJ joan den asteburuan egindako Legebiltzarrerako Gipuzkoako hautagaitzaren aurkezpenean. Hala, Debagoieneko sei hautagai ageri dira jeltzaleen Gipuzkoako zerrendan: zortzigarren postuan dago Aitor Urrutia eskoriatzarra, 2015etik legebiltzarkidea eta egun Antzuolako Udalean zinegotzi dena. Bergarako alkate ohi Elena Lete hamabigarrena da. Egun jeltzaleek Debagoienean dituzten hiru alkateak ere badaude zerrendan: Maria Ubarretxena arrasatearra hamazazpigarrena da; Jose Ramon Zubizarreta eskoriatzarra hogeigarrena; eta Unai Elkoro aretxabaletarra hogeita bigarrena. Iruñe Galarraaga bergararra betetzen du zerrendaren hogeita bigarren postua. Esan behar da EAJk bederatzi legebiltzarkide lortu zituela Gipuzkoan orain dela lau urte.

EH Bilduk, bost debagoiendar

Merezi duzun herria lelopean, EH Bilduk Legebiltzarrerako Gipuzkoako hautagaiak aurkeztu zituen asteburuan, "herri honek jauzi kualitatiboa ematea ahalbidetuko duten politika publikoak" egingo dituela azpimarratuz. Azken legegintzaldian Gipuzkoatik zortzi legebiltzarkide izan ditu EH Bilduk Gasteizen, eta emaitza errepikatuko



Bi herritar hautagai zerrendei begira, 2019ko udal hauteskundeetan. GOIENA

EGON LITEZKEEN ZUZENKETAK EGINDA, MARTXOAREN 10EAN ARGITARATUKO DIRA ZERREDA OFIZIALAK

balu, hiru behintzat Debagoienekoak izango lirakeke: zerrendako hirugarrena da 2012tik legebiltzarkidea izan den Rebeke Ubera elgetarra; bosgarrena Aretxabaletako udalean zinegotzi izandako Lore Martinez; eta seigarrena, Ander Rodriguez arrasatearra, 2019tik legebiltzarkidea dena. Era berean, Marina Madariaga bergararra 15. postuan dago EH Bilduk aurkeztutako zerrendan eta Izaro Elorza, Oñatiko alkatea, 23. postuan.

Arabako zerrendetan ere bai

Elkarrekin Ahal Duguren Gipuzkoako zerrendan ere hainbat debagoiendar daude: aurreko agintaldian Arrasaten zinegotzi izandako Podemos Ahal Duguko Eba Abuin hirugarrena da; eta Ezker Anitzako bi eskoriatzar ere badaude hautagaien artean: Juan Luis Merino hamargarre-

na eta Blanca Merchan hamabosgarrena. Gogoratu behar da koalizioak hiru ordezkari lortu zituela Gipuzkoan aurreko hauteskundeetan. Elkarrekin Podemos Arabako zerrendan ere bada debagoiendarrik: Ezker Anitzako Salva Gonzalez bergararra hogeita batgarrena da.

Equo-Berdeak alderdiak ere hainbat debagoiendar batzen ditu Gipuzkoako zerrendaren baitan; seigarren postuan dago Rafa Bernal aretxabaletarra, azken legegintzaldian Eskoriatzako zinegotzia izan dena. Era berean, Bergarako Aiert Lizarralde hogeita batgarren postuan aurkeztuko da.

PSE-EEren Gipuzkoako zerrendan ez dago debagoiendarrik, baina bai Araban: Alberto Alonso oñatiarra, Bergaran zinegotzia eta orain arte Osalaneko zuzendaria izan dena laugarrena da.

Hautagaien zerrendak martxoaren 4an eman ziren argitaratu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Horietan egon litezkeen irregulartasunak zuzenduta, martxoaren 9an hautagai-zerrendak aldarrikatu eta hurrengo egunean argitaratuko dira hautagai-zerrenda ofizialak.



Gizonezko bat lantegian, pieza batekin lanean. GOIENA

Behera egin du Debagoieneko langabezia-tasak otsailean

Aldaketa handirik egon ez den arren, %7,90etik %7,82ra jaitsi da; urtarrilean baino 24 langabe gutxiago zeuden

J.O. DEBAGOIENA

Debagoienean 2.437 langabe zeuden otsail amaieran; urtarrilean baino 24 gutxiago, hain zuzen. Gauzak horrela, langabezia-tasan ez da aldaketa handirik egon: %7,90etik %7,82ra jaitsi da, hain zuzen ere.

Herriz herriko datuak

Debagoieneko herrietako datuei dagokienez, Antzuolan eta Oñatin egin du gora langabe kopuruak; Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan, berriz, behera egin du; eta Elgeta eta Aramaion,

urtarril amaierako kopurua mantendu egin da.

Hego Euskal Herrian

Hego Euskal Herrian, 151.214 langabe zeuden otsail amaieran; 307 langabe gutxiago. Lurraldeei dagokienez, Arabak izan du beherakadarik handiena, non urtarrilean baino 104 langabe gutxiago zeuden. Bizkaian ere behera egin du langabe kopuruak eta urtarrilean baino 244 gutxiago zeuden. Azkenik, Gipuzkoan, urtarrileko datua ia mantendu egin da, 62 langabe gutxiago zenbatu ziren eta.

PSE-EEK omenaldia egingo dio Isaias Carrascori bihar

Orain dela hamabi urte, 2008ko martxoaren 7an, erail zuen ETAk zinegotzi sozialista izandakoa Arrasaten

J.O. DEBAGOIENA

Urtero egin ohi duen moduan, aurten ere PSE-EEK omenaldia egingo dio Isaias Carrascori; bihar, hilak 7. Arrasateko Navas de Tolosa kalean 2008ko martxoaren 7an erail zuen ETAk Isaias Carrasco, etxetik irten eta lanera abiatzekoa zela. Carrasco PSE-EEren zinegotzi izan zen Arrasaten 2003-2007 agintaldian, eta 2007ko maiatzeko udal hauteskundeetan seigarren postua bete zuen sozialistek Arrasaten aurkeztutako hautagai-zerrendan.

Hain zuzen ere, bertan, Navas de Tolosa kalean egingo diote lore eskaintza eta omenaldia, zapatuan, 12:00etan, eta hamabigarren aldia izango da aurtengoa.

Zapatuko ekitaldian, familia-koez gain herritar ugari eta ordezkaritza politika zabala izango dela aurreikusten dute. Bertan izango den ordezkaritza sozialistaren artean, besteak beste, Eneko Andueza PSE-EEKo legebiltzarkide eta Gipuzkoako sozialisten idazkari nagusia izango dela jakinarazi dute.



ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA

UEU, ilusioa gorpuztuz

Ikasturtean zehar egindako lana azaldu du UEUk (Udako Euskal Unibertsitatea) Eibarren egin berri duen Batzar Nagusian. Datorren 2020-21 ikasturtean hasita, UPV/EHUri atxikitako ikastegi moduan Bigarren Hezkuntzako irakasle Masterra online emango du, gainditzen dutenei UPV/EHuren titulu ofiziala igorri.

Erroka honi heltzeko egitura profesionala sendotu du. 1973an Euskal Unibertsitatea sortzeko helburuarekin sortu zen UEU, laster 50 urte beteko ditu, eta gaur egun 1.200 bazkidez osatutako oinarri soziala eta iazko eskaintza akademikoaren diseinuan parte hartu duten 15 sail eragile ditu.

Master berriaz gain, urte osoan zehar unibertsitate mailako ikastaro eta jardunaldien bidez etengabeko prestakuntza ematen du UEUk.

Aldi berean, unibertsitate mailako ezagutzen euskarazko sorkuntza eta zabalkundea bultzatu eta euskal komunitate unibertsitarioaren bilgunea egituratzen ari da.

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA EZ DIRA LEHENTASUNA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEENTZAT

Hainbat unibertsitate daude Euskal Herrian: Baionakoa, Deustukoa, Mondragon, Nafarroakoa, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, UNED eta UPV/EHU. Kokapenagatik *Euskal Herriko Unibertsitateak* diren arren, euskara eta euskal kultura ez dira lehentasuna eurentzat, ukapenetik hurbiltze baterako tartean mugituz. Berariazko *Euskal Unibertsitate*rik ez dago, euskal kulturaren eta hizkuntzaren *alma mater* izango litzatekeen euskarazko unibertsitatea, Karlos Santamariak zioen moduan.

Hauxe du helburu UEUk. Nola lortu, ordea?

Euskal Herrian burututako hainbat ekimen –Ikastolak, Euskal Herriko Laborantza Ganbara, kooperatibak...– helburua garbi zuen talde sendo batek lortuak izan dira. Premia bera sentitzen zuen jendea auzolanean antolatu eta euren denbora, ezagutza, lana eta baliabide ekonomikoak proiektua aurrera ateratzeko bideratuz.

Egingo al dugu *Euskal Unibertsitatea*?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Jaioberri gaiztoak

JUNE FERNANDEZ

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Haurdun nengoenean, "zer izango da?" galderak gogaitzen ninduen; alegia, nire sabelean hazten ari zen izakiak hankartean zuena jakitearen obsesioa. Baina banekien gure gizartean genero binarismoa oso errotua dagoela. Aitzitik, aho bete hortz utzi nau Odei jaio denetik etengabe erantzun behar dudana galdera, "neska ala mutila al da?" baino sarriago: "Ondo portatzen al da?". Kezkagarriagoa iruditzen zait berarekin tarte bat pasa eta gero bota ohi duten epaia: "Hara, oso ona da!".

Kontu honek asaldatu egin nau. Jaioberri onak baldin badaude, jaioberri gaiztoak egongo dira, ezta? Ez al du izugarritzko zama judeokristaua haur txikiei etiketa horiek jartzea? "Oso lasaia da", erantzun ohi dut, epai moral hori berretsi ordez bere izaera deskribatzeko asmoarekin. Batzuetan, galdetzen diet: "Zer da ondo portatzea?". Eta axolagabe erantzun ohi dute: "Tira, badakizu, ea negar gutxi egiten duen, ea lo egiten uzten dizuen...". Agerian uzten dute jendartearen helduzentrismoa. Zer da ona izatea? Antza, helduak ez molestatzeko, gure erritmora moldatzea, emozioak neurritsu

adieraztea, beti atsegina izatea...

Ordea, jaioberriak bere beharrak jakinarazten baditu –eta negarra da horretarako duen baliabide bakarra–, maltzurra izatea leporatuko diote. Nire aitaordeak, Odei paseatzera eraman ondoren, esan dit: "Azkar ikasi du manipulatzeko". Ume-kotxean negarrez hasi eta besoetan lasaitu zelako.

Manipulatzaila! Aukeran nahiago dut nire alabari "printzesa" deitzen diotenean!

Baina asaldatzen nau ere kezka hau niretzat berria izateak.

Agian, nik ere galdera eta epai ergel horiek egiten nituen seinale?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza,
Maite Igartua.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Bai Euskarari eta Bikain ziurtagiriak osagarriak dira"

ROBER GUTIERREZ BAI EUSKARARI ELKARTEKO ZUZENDARIA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE
Rober Gutierrez Bai Euskarari Elkarteko zuzendariak Bai Euskarari ziurtagiria, Enpresarean, Lansarean eta Euskaragileak ditu berbagai, besteak beste. Hau da: euskara eta lan mundua.
Bai Euskarari Elkartea 2007an sortu zen. Egindakoaren ze balorazio egiten duzue?
Ziurtagiriarekin hasi ginen eta horretan aritu gara eta gabilta, baina askoz ere gauza gehiago egin ditugu. Azkeneko proiektuetako bat da Lansarean; horrekin oso gustura gaude. Lan ataria da. **Bai Euskarari ziurtagiria lortzeko ze baldintza bete behar ditu erakunde batek?**
Hiru maila ditu ziurtagiriak. Eta baldintza batzuk bete behar dira maila batekoa edo bestekoa lortzeko. Bestetik, enpresak aztertzen ditugu irizpide batzuen arabera, eta eragite klabeen egiten dugu lan. Une bateko argazkiaz gain, hurrengo urteetarako



Rober Gutierrez, Goiena telebistan, martitzenean. ENEKO AZKARATE LASPIUR

konpromiso batzuk hartzeko eskatzen diegu entitateei.
Ze zailtasun izaten dute enpresek ziurtagiria lortzeko?
Langileen hizkuntza gaitasuna. Eta lantokien hornitzaile enpresekin

lotutakoak. Sektorearen arabera, ez dira asko euskaraz lan egiteko gaitasuna duten hornitzaileak. Bideratu ditugu ekimenak horretan eragiteko. **Zenbat entitatek osatzen dute Bai Euskarari ziurtagiria?**

1.350 entitate inguru dira. Gehienek %40- oinarrizko maila dute. Geroago eta gehiago dira bigarren mailara pasa direnak, eta maila gorenean %20 izango dira. Lurraldeei begiratuta, Gipuzkoakoak dira gehienak, %34; gero, Bizkaikoak, %18; Arabakoak eta Nafarroakoak beste horrenbeste, eta gutxiago Iparraldekoak. **Iaz, 69 berri batu zitzaizkizuen. Datu ona da?**
Askoz kopuru handiagoa nahiko genuke. **Enpresek ikusten dute ziurtagiriak balio erantsia ematen diela?**
Bai. Esaterako, hainbat kontratazio prozesutan hasi dira Bai Euskarari ziurtagiria baloratzen. Kontratu zehatz batzuk lortzeko puntuagarria izaten da. **Enpresarean enpresa eta profesionalen sarea ere bultzatzen du Bai Euskarari Elkartea. Ze egiten du?**
Esperimentatzeko aukera ematen digun proiektua da. 2010ean sortu zen eta bi urtetik behin antolatzen ditugu azokak. Baita jardunaldiak, foroak... Ziurtagiria zuten enpresen beharrak asetzeari begira sortu genuen. Enpresei eta profesionaleri zabalik dauden foroak dira, haien intereseko

gaiak jorratzeko. Euskaraz. 150 bat profesional batzen dira, enpresa ezberdinekoak. Haien intereseko gaiak jorratzen dira. **Euskaragileak figura ere baduzue.**
Kudeaketari dagokionez, euskararen ikuspuntutik aurreratuen dauden enpresak dira *Euskaragileak*. Hornitzaileekin harremanak euskaraz izateko ahaleginetan hainbat ekimen bultzatzen dabilta, esaterako; baita harrera planak, hitzarmen ereduak eta halakoak ere. Aitzindari dira, beste batzuekiko ereduagarri. **Zeintzuk dira zailtasun edo oztopo nagusiak enpresa bat euskalduntzeko?**
Borondatezko prozesua da. Enpresek hizkuntzak kudeatu behar dituzte nahi eta nahi ez. **Erakunde publikoekin elkarlanean ari zarete?**
Bai; formularik egokiena elkarlanarena da. Aktore ezberdinak daude: enpresak, sindikatuak, kontsumitzaileak, administrazioak... Denok aritu behar dugu norabide berean. **Osagarriak dira Bikain eta Bai Euskarari?**
Bai. Erabat. Guztiok dugu egiteko bat alor jakin batzuetan.

ITURRI ONETIK

Arrasateko irudi zaharrekin osatutako filma
Pedro Sologaitoa Laso-k 60ko eta 70eko hamarkadetan egindako zinema-grabaketetako irudiekin ordubeteko ikus-entzunezkoa osatu du Iban Del Campok, Arrasate Zientzia Elkartearen enkarguz. Hainbat irudi ageri dira: jaietakoak, Arrasaten lehen aldiz udaletxean ikurrina jarri zutenekoak, Seber Altube plaza inauguratu zutenekoak... Ekainean aurkeztuko dute, baina martxoaren 14an, Sologaitzoaren heriotzaren mendeurrenean, aurrerapen bat zabalduko dute sareetan.

ALBISTE IZAN ZEN

2013-03-03

Euskal Herriko Koben Egunean, musika eta hitzak

Euskal Herriko Koben Eguna ospatuko dute martxoaren 15ean euskal haitzuloetan; tartean, Oñatiko Arrikutzen. Baionan aurkeztu zuten atzo. Oraingo zapaturako ere iragarri dute ekitaldi bat: tximeleten gaineko hitzaldia, hain justu ere. 2013an ere ospatu zuten. Orduan, 250 lagun batu ziren Arrikutzen –Euskal Herri osoan 2.000 inguru–. Besteak beste, ipuin musikatua eskaini zuten Patxi Zubizarretak eta Peio Ramirezek, 53. galerian.



GOIENA

ITURRI ONETIK

Kopako finalean izango da Realak
Mirandes gainditu ostean, txuri-urdinak finalean izango dira, 32 urteren ostean: *@AdriBeloki*: "Cartujan gertatzen dena gertatuta ere, Imanol Alguacil Realaren historia da. 30 urteren ostean kluba hainbeste maite duen pertsona batekin finalera heltzeak poz bikoitza ematen du" (itzulita). *@rafamungi*: "Bueno, ba itzuli garela!! Aitor Zabaleta, zuretzat!!". *@LurZabala*: "Aranburu, Xabi Prieto, Markel Bergara, Mikel Gonzalez, Imanol Agirretxe... Hau ere zuena da! Denok garelako Realak!".

Gora Martxoaren 8a!

ITZIAR USANDIZAGA

DUINTASUNA ELKARTEAREN IZENEAN BERGARA

Emakumeok borrokan jarraitzen dugu. Aurten, Martxoaren 8an greba feministarik ez dugu egingo, baina egunerokotasunean gure aletxoa jartzen jarraituko dugu gizarte kapitalista patriarkala aldatzeko.

Aurten, U30eko greba orokorrean, garbi utzi dugu lan, pentsio eta bizitza duinaren beharra. Emakume pentsiodunak ere hor egon ginen, hainbat eragilerekin batera, gure aldarrikapenekin. Gure belaunaldiak bizitzaren zati bat okerren ordaindutako lanbide eta kategorietan enplegatuak izan gara. Mendekotasun eta zaintza lanekin arduratu gara eta aitorpenik gabeko lanpostuak izan ditugu sarritan.

Emakumeok historian zehar aberastasuna sortu dugun arren, gutxietsiak eta gehienetan ezikusiak izan gara. Horren ondorioetako bat da jubilatzen garenean pentsio gabe edo oso baxuekin aurkitzen garela. Horientzako pentsioa 1.080 eurora konplementatzea eskatzen dugu. Badakigu pentsioak kudeatzea estatuaren eskumena dela. Baina baita ere badakigu euskal gobernuak pentsioak osatzeko eskumena daukala; horrela, pentsio iraingarrien injustizia zuzendu daiteke, pertsonak prekarietatean ez bizitzeko.

Otsailaren 22an, Emakumeen eta Gizonen Arteko Soldata Berdintasunaren Europako Eguna izan da. Emakumeok gizonezkoek baino %40 pentsio txikiagoa daukagu. Lan garaian soldatak berdindu egin beharko lirateke, pentsioetan dagoen genero arrakala ekiditeko. Ez dugu amaitu nahi esan gabe izugarri estimatzen dugula Amodiozko Gutunen Lehiaketan zahartzaroan

bakardadea ardatz hartuta idatzitako gutuna. Eskerrik asko Karmele Uribesalgori eta Jarduneko epaimahaikidekoei.

Agur eta ohore, Pilar

JUAN RAMON GARAI

LKI-KO MILITANTE OHIEN IZENEAN ARRASATE

Pilar Ansoategi 1974an ETaren Seigarren Asanbladan hasi zen militatzen.

Puig Antich-en Barguardiako mobilizazioetatik gentozen. Urte hartan, herrian gure belaunaldiak lortu zuen langileen lehen mobilizazioak aurrera ateratzea.

Union Cerrajeran sanjuanetan, kooperatiben balorazioen aurka, eta, batez ere, abenduaren 11ko greba orokorra.

Hurrengo lau urteetan, Arrasaten sekulako borrokak egon ziren. Batzuk aipatzearren: Gameyko despidoen aurkako elkartasuna, amnistiaren aldekoak, martxoaren 3koak, German Rodriguez –LKIko militantea–, Emiliren, Robertoren eta Zaparen hilketen aurka, metalgintzako hitzarmenak...

Bazeuden, bai, baldintzak erregimen frankista apurtzeko, eta, horregatik, Konstituzioari ezetza bozkatu genion. Frankismoan bezala, *La Cruz* –Elizako hierarkia–, *La Espada* –militarrak– eta *El Saco* –kapitala-lapurrak– interesak jartzen ziren herri zapalduen eta langileen interesen gainetik.

Ordurako, LKI Liga Komunista Iraultzailea ginen. Pilar alderdi barruan emakumeen taldearen bultzatzailea zen, eta baita ere Komite Internazionalistako partaidea.

Elkarrekin bidea egin genuen Zutik alderdia sortu arte, EMK –maoistak– eta LKI –troskoak– batuta.

Pilar eta biok auzo berean bizi ginen, Makatzenan, eta

urte haietan auzoan martxan jarritako iniziatibak asko izan ziren: umezaintza, ekonomatua, igerilekua, frontoia, marrazki tailerra, zinea emateko aretoa –zinerik ez zen eman–... baina urteetan bilera klandestinoak egiteko erabili genuen. Horregatik, polizia uniforme gabeek auzoan bonba bat jarri ziguten.

Pilarrek tinta gorritz, lilaz eta umore onaz idatzitako historia gurekin gelditzen da.

Agur, bihotzeko laguna eta kamarada.

30 urte asko da. Aski da! Etxean nahi ditugu

URKI LARREA IBABE

ARRASATEKO SARE ARRASATE

Unai Paroti eta Josu Arkauzi aplikatu zaie legea? Erantzuna sinplea da, lege arrunta ez diete aplikatu eta, gainera, etengabe trikimailu desberdinak erabiliz zigorra luzatzen saiatu dira, eta lortu ere bai.

Unairen kasuan, erredentzioa gehienezko 30 urte horietatik aplikatzen hasi beharrean, zigor osotik kentzen hastea saiatu ziren. Estrasburgok atzera bota zuen eta beste trikimailu bat asmatu zuten. Oraingoan, bigarren aldiz epaitu zuten ETako kidea izateagatik. Ezin da zigortu bi aldiz ETako kide izateagatik; beraiek argudiatzen dute hainbat urtetan ez zela ETako kidea izan, eta gero berriz sartu zela erakunde horretan. Baina argudio hori ez dago nondik hartu. Espetxean sartu zutenetik, hiru hilean behin zein sailkapenetan dagoen notifikatu zaio Unairi idatziz. Beti lehen graduan –sailkapen gogorrena–, ez zituelako loturak apurtzen ETarekin. Beraz, tarte horretan ETako kidea bazen, ez da egon etenik eta ezin dute epaitu bi aldiz gauza berarengatik. Beraz, 30 urteko zigorra bete ondoren beste 11 bete beharko ditu.

Josuren kasuan, bereizi egin dute Frantzian espetxean egindako denbora tartea eta Espainian egindakoa, batean zein bestean ziegak desberdinak izango balira bezala. Ze lortzen dute honekin? Modu sinplean esanda, Josuk Frantzian egindako denbora ez kontatzea eta Espainian 30 urte bete behar izatea. Espainian atxilotu izan balute, aspaldi legoke kalean.

Bi errefuxiaturen egoera ere salatu nahi dugu lerro hauen bidez.

Jose Manuel Pagoaga *Peixoto*-k 50 urte baino gehiago darama errefuxiatuta; larriki zauritu zuen Batallon Vasco Español-ek 1979an, eta, Hego Euskal Herrira etorriz gero, aske gelditzeko bermerik ez du.

Eugenio Barrutia *Arbe*-k, berriz, 1978an egin zuen alde Arrasatetik. 1981ean atxilotu zuten, Baionan, eta 1984an deportatu zuten Venezuelara. Geroztik, 35 urte daramatza Venezuelan deportatuta, linbo juridiko batean.

Demokraziaren, konponbidearen eta bakearen izenean, guzti-guztiak behar ditugulako kalean!

Etxean nahi ditugu!

Koronabirusa bizirik espetxeetan azken berrogei urteetan

ENRIKE LETONA

ARRASATE

Aretxabaletan koronabirusa pasatzen ari den neska baten deklarazioak dira honako hauek: "Txarrena entzuten diren gezurrak eta etxean horrenbeste denboran bakarrik egotea da –eta ulertzen dut gogorra izatea, e!–. Arrasateko Sarek martitzenerako antolatutako prentsaurrekoan, arlo desberdineko arrasatear asko elkartu ginen Josu Arkauzen eta Unai Paroten askatasuna

eskatzeko, ezarritako zigorra beteta dutelako. Neska honen deklarazioak entzun ondoren, Josuren eta Unairen egoera etorri zait burura. Neska honentzat txarrena astebete etxean bakarrik egotea da, eta burura etorri zait zenbat urte egon diren bakartuak Unai eta Josu. Bakartuak eta etxetik mila kilometrora. Badirudi euskal presoak betidanik egon direla koronabirusak kutsatuak, gutxienez, hartutako neurriei dagokienez. Bakartuak eta urruti... Neska honentzat etxeak eskaintzen duen erosotasun guztiekin eta telefonoz edo sarez nahi beste harreman izateko aukerarekin gogorra baldin bada, irudika dezakezue zer izan daitekeen 30 urte ziega txiki, zikin eta ilun batean egotea? Bizarra egiteko makinatxoa ere kartzelariari eskatu behar diozuenean. Zaintzaileek ziegara sartu eta egun batean bai eta hurrengoan ere hankaz gora jartzen dizutenean bertan dituzun apurrak. Gauean ere, argiak piztu eta esnatzen zaituztenean hor zauden ikusteko. Bi ordu zure ziega baino pixka bat handiagoa den patio batera ateratzen zarenean, bakarrik askotan; hots, gelatik etxeko egongelara pasatuko bazina bezala. Ondorioz, koronabirusa ez duzuenok eta pentsatzen duzuenok 30 urte espetxean egotea asko dela, atera kalera. Parte hartu Sarek hilabete honetan zehar antolatu dituen ekintzetan eta apirilaren 2an egongo den manifestazioan. Euria eginda ere, atera gaitzeke 30 minutu kalera? Kendu diezaiokegu ordu erditxo bat pintxo-poteari manifara joateko? Egin behar genuen erosketa egin dezakegu lehenago edo geroago? 30 urte ziega batean: pentsatu, hausnartu, irudikatu... –eta Aretxabaletako neska hau ere lehenbailehen kalean egoteko aukera izatea nahiko nuke–. Eta gezurrei buruz beste egun batean hitz egingo dugu...

Bi polizien lankidetza hitzarmena, onartuta

Arrasateko Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko koordinazioa "formalizatzea eta hobetzea" du helburu, eta onarpena jaso zuen martxoko osoko bilkuran. Esparru orokor bat da, eta orain, Arrasateko ezaugarrietara moldatzeko doikuntzak egitea falta zaio

Xabi Gorostidi ARRASATE

Bi erakundeetako ordezkariak azaldutakoaren arabera, "polizia baliabideak optimizatzea eta herritarrek segurtasun publikoaren arloan dituzten premiei erantzun hobe" ematea du helburu hitzarmenak. Elkarlana aurrera ateratzeko arauak, zerbitzuen eta betebeharren banaketa, polizia-jardueren titulartasunak zehaztea, batera jarduteko protokoloak edo planak prestatzea, udalerrian poliziaren presentzia jarraitu eta nabarmena bermatzea eta informazioaren trukaketa bermatzea ahalbidetuko dituela azaldu zuten Arrasateko udaltzainburu Zigor Andinok eta Deba-Urolako Ertzaintzako hurbiltzaile David Mekolalde.

Autonomia Erkidego mailako esparru-hitzarmena da -17 puntu eta 27 orri ditu-, eta aurre-erantzean Arrasateko ezaugarrietara egokitze doikuntza batzuk egiteko aukera emango du. Zehaztu beharreko doiketak Deba Urolako Ertzaintzaren polizia-etxearekin adostu nahi dituztela azaldu zuen Maria Ubarretxena alkateak, eta "positibotzat" jo zuen hitzarmena: "Uste dugu hitzarmena herriarentzako ona dela. Oinarrian, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko koordinazioa hobetzea, areagotzea eta baliabideak eraginkorrago erabiltzea du helburu. Onuragarria izango da herriko segurtasunerako, eta oso positiboki baloratzen dugu".

Osoko bilkuran onarpena jaso zuen hitzarmenak, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. Oposizioak, ordea, aurka botatu zuen. EH Bilduko Maider Morrasedik azaldu zuen bi arrazoi argudiatuta erabaki zutela aurka botatzea: "Lehenik eta behin, hitzarmen hau Hirigintza batzordean landu da; ez dugu ulertzen zergatik, eta guretzako ez du zentzurik. Gure ustez, hitzarmen hau Pertsonal Sailean landu beharko litzateke, bertako erabakiek zuzenki era-



Ertzaintzaren auto bat eta udaltzainen beste bat, Ferreríasen, esku-hartze baten. X.G.

GALDE-ESKEETAN, HIRUGARRENEZ JARRAIAN, ENPRESA BATZORDEKOEK HITZA HARTU ZUTEN

gingo dutelako Udaltzaingoaren gan. Eta bestetik, hitzarmenak ez du ezer konkretatzen, ez da zehaztasunetan sartzen. Hitzarmenak zehazki herritarrengan nola eragingo duen jakin gabe, ezin dugu horren alde botatu". Elkarrekin Arrasateko Igor Urizarrek esan zuen "beste urrats" bat dela "udaltzain eredu polizialagoa" edukitzeko, eta Kataluniarekin lotutako mobilizazioetan Bilbon eta Gasteizen izandako atxilotetak jarri zituen eredu horren adibide gisa.

Dirulaguntza plan estrategikoa 2023. urtera arte indarrean egongo den planak Gobernuaren aldeko botoekin onartu zen, eta oposizioak aurka botatu zuen. Maria Ubarretxena alkateak adierazi zuen tramite legal hutsa zela, eta ez zegoela "ezer negoziatzeko". EH Bilduko Maider

Morrasedik bi arrazoi eman zituen aurka botatzeko: oposizioarekin negoziatu gabe aurreko plana kopiatzea eta Udalaren egoera ekonomikoa hobetu arren dirulaguntzak berdin mantentzea. Elkarrekin Arrasateko Igor Urizarrek argudio bertsuak erabili zituen, eta "gutxiegia, kontinuita eta klientelista" adjektiboak jarri zizkion planari.

Galde-eskeak

Tarte horretan, hirugarrenez jarraian, enpresa batzordeko kideek hitza hartu zuten, euren lan baldintzak Udalarekin zuzenean negoziatzeko duten esku-bidea aldarrikatzeko. "Jazarpen sindikala" jasaten dutela adierazi zuen Maite Barreña bozeramaileak, eta Udal Gobernuaren jarrera aldatzen ez bada eurekin argazkiak ateratzeari uko egingo diotela iragarri zuen.

Besteak beste, "1976ko martxoaren 3an Gasteizen eraildako langileak" eta Pilar Ansoategi ekarri zituen gogora Maider Morrasedik, eta Ubarretxena alkateak zapatuko Isaias Carrascoren omenaldian "herriko alderdi guztiak ikustea" espero duela esanaz amaitu zuen osoko bilkura.



Oscar Garcia, arrosak banatzen, merkatu egun batean. GOIENA

Oscar Garciak, sozialisten udal bozeramaileak, kargua utzi du

Arrazoi pertsonalegatik eman du dimisioa; EAJk dio PSE-EErekin duen Gobernu akordioa ez dela aldatzen

X.G. ARRASATE

GOIENAK martitzenean jakin zuenez, zinegotzi sozialistak bolutarioki eta arrazoi pertsonalak argudiatuz aurkeztu zuen dimisioa astelehenean, idazkaritzan. Harekin kontaktuan jarri ostean, Garciak adierazi zuen ez zuela "ezer esateko", eta ez zuen argitu egun hartan egitekoa zen osoko bilkuran egongo zen. Agintaldi honetan eta aurrekoan Udal Gobernu kide izan dira sozialistak, EAJrekin batera, eta Obra, Zerbitzu, Auzo eta Mantentze Saileko batzordeburu kargua izan du Garciak. Kargu uztearen

albistearen plazaratu eta ordu gutxira, gobernuakide jeltzaleek esan zuten bi alderdien arteko Gobernu akordioa "bere horretan" mantenduko dela. Garciaren ordezkia izendatu bitartean, EAJko Ibon Arrupe zinegotziak hartuko du behin-behinean Obra, Zerbitzu, Auzo eta Mantentze Sailaren ardura. Hurrengo osoko bilkuran -apirilekoan- onartuko dute Garciaren kargu-uztea; ostean, hauteskunde batzordeak haren ordezkaren kredentzialak bidaliko ditu, eta osoko bilkuran onartuko beharko dute haren ordezkaren kargu hartzea.

Kurtzetxikiko larreak herriko ganaduzaleek zainduko dituzte

Herriko zazpi ganaduzale dituen Larragain elkartek eta Udalak beste urtebete luzatu dute ustiaketa kontratua

X.G. ARRASATE

2018an hasitako bideari jarraipena emanez, beste urtebeteko hitzarmena egin dute bi aldeek. Kurtzetxiki eremuaren titulartasuna Udalarena da, eta Gobernuak azaldu du hitzarmen honen helburua hirukoitzat dela: "Mendiaren kontserbazioa eta ingurumen berreskurapena; lehen sektorearen sustapena; eta mendiak dituen baliabideak -ingurugirokoak, kulturalak eta paisajistakoak-, aisialdi aktiboa eta biodibertsitatea sustatzea. Larragain elkartean

zazpi ganaduzale arrasatear daude une honetan: Bedoñako hiru, Udalako beste hiru eta Santa Agedako bat. Hauek dira kideak: Sabino Llodio, Juan Jose Iturbe, Aitor Murgoitio, Aitor Arana, Jesus garai, Jesus Mari Plazaola eta Maria Pilar Ibabe. Abereek bertako belarra jateaz gain, bestelako lan batzuk ere egiten dituzte. "Ganaduak belar-zaintzaile lanak egiten ditu eta guk, ordea, ongarriak bota, zuhaitzen inguruko narrak kendu...", azaldu du elkarteko kide Aitor Murgoitio.

Kapitalismoaren aurka egiteko, feminismoa

Aurreko astean egitaraua aurkeztu ostean, Martxoaren 8ko aldarrikapenak argi uzteko agerraldia egin du Arrasateko Mugimendu Feministak. "Martxoaren 8an, suntsitzen gaituen kapitalismo basatiari aurre egingo dion feminismoa aldarrikatuko dugu"

Xabi Gorostidi ARRASATE

Greba feministei buruzko hausnarketekin hasi zuten agerraldia: "Azken bi urteetan, antolatze eta mobilizatzeko gaitasuna erakutsi dugu greba feministetan. Sare indartsua sortu dugu Arrasaten, eta egun oso arrakastatsuak izan dira. 2018ko eta 2019ko grebek milaka emakumeren inplikazioa bultzatu dute feminismo antolatuan, eta greba kontzeptua bera zabaltzeko eta birdefinitzeko balio izan digu. Aurten ez dugunez greba egunik deitu, gure aldetik ezintasun bat edo su eten moduko bat dagoela ikusarazi nahi izan dute batzuek; baina ez bata, ez bestea", azaldu du Mugimendu Feministak.



Arrasateko Mugimendu Feministako kideak, martitzeneko agerraldian. OMAR GRANA

Eredu kapitalista, jomugan

"Jendarte eredu hau bizigaitza da pertsona gehienontzat; batez ere, emakumeentzat eta genero disidenteentzat. Ez dugu berdintasun formalik nahi, ezta mugarik gabe kontsumitzeko, eta pertsonak eta lurraldeak esplotatzeko berdintasunik nahi. Ez dugu nahi munduko beste leku batzuetan, eta gure inguruan, emakume askoren esplotazioan sakontzen duen errezeta neoliberalik. Tokian toki jarduten dugu, planeta osoko gure ahizpa feministekin konektatuta egoteak

ematen digun ikuspegi global eta aberatsarekin. Beraz, Martxoaren 8 honetan, suntsitzen gaituen kapitalismo basatiari aurre egingo dion feminismoa aldarrikatuko dugu". Gorputz eta sexu askatasunaren beharra ere nabarmendu zuten: "Gure feminismoak errealitatetik urrun itotzen gaituen gorputzen merkantilizazioa eta binarismoa borrokatzen ditu. Norberaren gorputzarekiko eskubidea, sexu eta ugalketa eskubidea, aniztasun eta sexu askatasuna defendatzen ditugu. Azkenaldian indarra hartu duten

"eskuin muturreko" alderdi politikoei mezu hau zuzendu zieten: "Gaur eta beti, eskuin mutur erreakzionario eta misogino eta homofoboari aurre egingo dion feminismo antifaxista defendatuko dugu".

Domekarako ekintzak

12:30ean, manifestazio egingo dute, Seber Altubetik hasita; 13:30ean, ekitaldia; ostean, argazki feminista Sare plataformarekin bat egiteko; 14:30ean, bazkaria; eta 16:30ean, mikro irekia eta DJ festa, Seber Altube plazan.



Asteazkeneko aurkezpeneko bi irudi. OMAR GRANA



Harrera beroa 'Sagra'-ren olerkiei

Duela urtebete zendu zen Sagrario Lopez *Sagra*, eta lagun talde batek haren olerkiak liburu batean batu ditu: *Sagrario Lopez Losada in memoriam*. Asteazkenean aurkeztu zuten bilduma, Kulturaten, eta areto nagusiko eserleku guztiak bete ziren.



Pilar Ansoategiren argazkia eta agur ekitaldiko irudia. KEPA ORMAETXEA



Pilar Ansoategiri agur "hunkigarria"

Arrasateko feminismoaren beste erreferente bat zendu da Martxoaren 8aren atarian; iaz Sagrario Lopez izan zen, eta aurten Pilar Ansoategi. Langileen eta emakumeen eskubideen alde egin zuen lana goraipatu dute gertutik ezagutu dutenek.

Ludoteka Ibiltaria: "Agur, Musakola; ongi etorri, San Andres"

Goiena komunitatea
Txatxilipurdi / ARRASATE

Musakolan lau astez euskarazko aisialdia eskaini dugu, eta 20-30 gaztetxok hartu dute aste-bururo. Asteburu honetan San Andresera joango da Ludoteka Ibiltaria. Eguraldi ona bada, Arimazubi plazan elkartuko gara; txarra bada, ordea, Bedoñabe Herri Eskolako patioan.

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelehenean elkarretaratzea egingo dute, 12:30ean, Herriko Plazan.

1970eko kintada

1970ean jaiotako arrasatearren kintada antolatzeke jende bila dabilta. "Animatu dadila jendea kintada antolatzeke taldera eta jar dadila harremanetan Enkarnirekin: 656 70 14 59", adierazi dute.

ZUZENKETA

849. zenbakian, amiantoaren eraginei buruzko hitzaldi baten kronika zegoen. Hitzaldian moderatzaile lanak egin zituen Ainhoa Larrañaga amiantoaren eraginez hildako baten senide bezala aurkezten zen. Baina haren familiak ez zuen lortu senide hura amiantoaren eraginez hil zenik frogatzea lortu. Ahalegindu ziren hori frogatzen, baina "laguntza eta interes" faltak hori guztiz argitzea eragotzi ziela azaldu du Larrañagak.



24/7 24 orduko zerbitzua

Pieza guztiak barne

Euskarazko zerbitzu profesionala

ORDUTARIKO ZERBITZUA 100€/hileko

+1.200 bezera baino gehiago

ARRASATE Garaia Berrikuntza Gunea 943 903 450 www.bertako.eus

30 urteko espetxealdiak bistaratzeko, lau ekintza

Sarek lau asteko egitaraua lotu du, Josu Arkauz eta Unai Parot preso "salbuespen egoera" azaleratzeko. Preso dauden bi arrasatearrak "aske geratu aurretik Euskal Herrira hurbiltzea" eskatu dute, senideek urtean 102.000 kilometro egin ez ditzaten

Xabi Gorostidi ARRASATE

70 lagunetik gora batu ziren martitzenean Kulturategi agerraldian. Helburu bikoitza izan zuen: Arrasateko bi preso "salbuespen egoera" zein den azaltzea eta hori bistaratzeko antolatu dituzten ekintzen berri ematea.

Josu Arkauz eta Unai Parot

Gaur egun, bi horiek dira preso jarraitzen duten arrasatearrak. Josu Arkauzek 63 urte ditu eta 29 daramatza preso. Une honetan Murciako kartzelan dago, isolatuta. Unai Parotek 62 urte ditu eta 30 daramatza preso. Une honetan Puertoko kartzelan dago, isolatuta. Agerraldian, preso



Kulturategi egindako agerraldia. KEPA ORMAETXEA

horien "salbuespen egoeren" zergatiak azaldu zituzten. Paroten kasuan, hiru adibide eman zituzten: erredentzio urteak 30 urteko gehieneko kondenatik kendu beharrean, kondena totaletik kendu dizkiotela, 30 urte horietan lehen graduan mantendu dutela eta bi kondena ezarri dizkiotela ETako kide izateagatik. Antza denez, argudiatzen dute ETako kide izateari utzi ziola eta ETako kide izatera itzuli zela. "Horrez ez dauka ez hanka, ez buru", azaldu zuten Sareko kideek. Arkauzen kasuan, Frantzia egindako espetxe urteak kontuan izanez gero 2015etik libre egon beharko lukeela salatu zuten. "Anaiak 29 urte daramatza preso eta oraindik ez daki noiz irtengo den. Egoera hau anormala da, ez dago eskubiderik", azaldu du Ramon Arkauzek.

Parot eta Arkauz batez beste Arrasatetik 1.000 kilometrorra daudela adierazi zuten, eta horren eraginak azaldu: "Batez besteko bat egingo dugu eta 1.000 kilometrorra daudela jar dezagun. Astero joan eta etorri, 2.000. Urteak 51 aste dituenek, 102.000 kilometro urtean. Guztira,

3.060.000 kilometro egin dituzte senideek, preso bakoitza ikusteko. Ziega batean egoteko, Cadizen egon edo Langraitzen egon, ze alde dago presoarentzat? Honek zementu bera ikusiko du han eta hemen. Beraz, nork egin ditu 3.060.000 kilometro urte horietan guztietan? Nor zigortzen dute neurri honekin? Senideak, jakina!."

Arkauzez eta Parotek gain, Jose Manuel Pagoaga Peixoto eta Eugenio Barrutia Arbe errefuxiatuak ere izan dituzte gogoan: lehenak 50 urte daramatza Arrasatetik kanpo eta bigarrenak, ordea, 35.

Lau ekintza, lau astetan

Martxoaren 13an, *Biziarteko zigorrik ez hitzaldia* egingo dute Haizea Ziluaga eta Txema Matanzas abokatuek; martxoaren 18an, *Argi izpiak txarrantxen artean* liburua aurkeztuko dute; martxoaren 27an, azken ostiral berezia, non hamarkada bakoitzeko kantu adierazgarri bat abestuko duten herriko abeslariak; eta apirilaren 2an, manifestazioa egingo dute, *30 urte asko da. Aski da! Biziarteko zigorrik ez lelopean*.

RPS: 146/18

Oraindik bracketekin?

BRACKET BAKO ORTODONTZIA daukagu

Ikusten ez diren* alienatzaile berritzaileei esker, bracket bako tratamendua izango duzu.

Zatoz informatzera...

*Mundu mailan liderra den marka.

CLINICA DENTAL BERGARA

- ESTETIKA
- INPLANTOLOGIA
- LOAREN APNEA
- HELDUAK ETA HAURRAK
- FINANTZAKETA



Bidekurutzeta, 36 - BERGARA - Tel.: 943 76 05 77 - www.clinicadentalbergara.es



Joan den domekan Tabirako taldearen aurka Iturripen jokaturako neurketa. GOIENA

Lider jarraitzeko, partidu erabakigarriak MUK

Aurreko jardunaldian irabazita, EBA mailako liderra da Mondragon Unibertsitatea une honetan, nahiz eta hiru talderekin puntuetan berdinduta dagoen. Lidergoa sendotzeko asmoz, asteburuan taldeak jokatu dituen bi partiduen garrantzia azpimarratu dute

Jone Olabarria BERGARA

Tabirako talde durangarra hartu zuen etxean joan den asteburuan Mondragon Unibertsitateak; 84-69 irabazita, eta Pas Pielagos taldearen porrotaren ostean, lider kokatu ziren arrasatearrak EBA ligan. Une honetan, 35 puntu dituzte zuri-moreek, eta, haiek bezala, puntu kopuru berberarekin daude beste hiru talde: Megacalzados Ardoi, Arha Hoteles eta Pas Pielagos.

Domekako partiduari dago-kionez, "nahiko eroso" aritu zen etxeko taldea; lehen zatian minutu onak jokatu zituen Mondragon Unibertsitateak, eta, lehen zatia amaieran aurkariak jokoan sartu ziren arren, bigarren zatia lidergoa ere arrasatearrera izan zen.

Hala, puntu kopuruari dago-kionez berdinduta dauden arren, jokaturako partidu kopuruan ezberdintasunak daudela azaldu du Iñaki Ogara taldeko entrenatzaileak: "Puntuetan berdinduta gauden taldeen artean Pas

Pielagos-ek eta guk partida bat gutxiago jokatu dugu, gure artean jokatzeko falta zaigu. Dena den, larunbat honetan irabazten badugu, partidu bat aurretik izango gara".

Partidu "gogorak"

Hain zuzen ere, asteburu honetan jokatu dituzten partiduak "bereziki garrantzitsuak" direla azaldu du Ogara. Zapatuan Iturripen hartuko dute La Flecha taldea, 20:00etan. Sailkapenean seigarren postuan dago taldea, eta, aurkariak galdetuta, partidu "gogorra" izatea espero dutela adierazi du Ogara: "Jokalaria gazte eta oso indartsuak dituzte. Gabonetan hainbat fitxaketa egin dituzte eta jokalaria talen-

"AZKEN ASTEETAN ETXEAN JOKATUTAKO PARTIDUAK FESTA IZAN DIRA, BAI JOKOA, BAITA ZALEAK ERE"

tudun asko dituzte". Gakoa "ondo defenditu" eta jokalaria horiek "zaintzea" izango dela azaldu du Ogara entrenatzaileak. Era berean, domekan Burgosen jokatu dute partidua, Miraflores taldearen aurka. Sailkapenean zazpigarren, aurkari "zaila" izango dela azaldu dute.

Zaleen babesa

Taldea orokorrean "pozik" dagoela azaldu du Ogara: "Jokalaria eta zaleak ere ilusioz ikusten ditugu. Herrian sortu den ilusioa aberasgarria da guretzat; Iturripen bete egiten da etxean jokatzeko dugunetan eta zaleekin kimika hori sortu izana asko eskertzen dugu. Azken asteetan etxean jokaturako partiduak festa hutsa izan dira, bai jokoan, baita harmailan ere".

Asteazkenean zehar lan "oso ona" egin dutela azaldu du entrenatzaileak; horrez gainera, jokalaria kontzentratuta eta helburua lortzeko konfiantzarekin daudela aitortu du.



NIRE USTEZ

IBON ARRUPE

Kutsatzeagatik ordaintzearen aurka

Bizi garen XXI. mende honetako paradigma ez dut uste inork ukatuko duenik: gizakiok mundua kutsatzeko daukagun gaitasunak jasangarritasunaren marra gorria zeharkatu ostean atzera bueltarik gabeko prozesu suntsitzaile batean murgildu garela, alegia.

Horren erakusgarri, klima aldaketa edo gure bailara honetatik hain gertu dagoen zabortearen kolapsoa. Beraz, inork ez ukatu arren arazoaren larritasuna, honen aurkako neurriak hartzeko ahalegina egiten den bakoitzean, komunikabideak gogotsu agertzen dira kutsatzea dohainik izan behar dela aldarrikatzen dutenen bozgorailu. Bai hondakin industrien gaineko ekotasaren, tasa turistikoaren, hegaldien gaineko tasaren, erabilera bakarreko plastikozko botilen gaineko tasaren edo autobideak erabiltzearen gaineko ordainsariaren aurkako portada eta lerroburu ikusgarriak azaleratzen dituztelarik.

Azken finean, ezin ukatu ere inork ez duela zuzenean amildegira garamatza bizimolderik aldatu nahi.

Herriko 200 gaztek hartuko dute parte Kantari saioan

Goienak ekoizten duen musika programako hamar saio grabatuko dituzte bihar eta etzi Amaia antzokian.

7 eta 11 urte bitarteko Arrasateko eta Aramaioko 200 gaztetik gora igoko dira oholtzara, dantzatze eta abesteko dituzten trebeziak jendaurrean erakustera.

Zapatuan eta domekan bosna saio grabatuko dituzte, 16:00etatik 20:00etara bitartean. Gainera, sorpresaren bat edo beste ere izango da. Horien artean, Disney Channel kateko aurkezle Ane Rot abeslari arrasatearrak abesti bat kantatuko du. Saioak apiriletik aurrera emitituko dira Goiena telebistan.

Aitor Mendizabal pilotaria, 'Galdegazte' saioko gonbidatu

Berriki pilotari profesional izateri utzi dion aurrelari antzularrak Arrasate Institutuko gazteen galderak erantzunango ditu martxoaren 11n emitituko den saioan -21:30 eta 23:00-. DBHko 4. mailako seikote batek hartuko du parte: hiruk kazetari-aurkezle gisa eta beste hiruk arlo teknikoan. Esan behar da aurkezle izango diren lagunetako bi elkarrizketatuaren herri-kideak izango direla. Jokin Bereziartuak dinamizatuko du saioa, eta ikasleak izango dira pilotariari galderak egingo dizkietenak. Elite profesionaleko etaparen amaierari buruz eta etorkizunerako dituen asmoei buruz galdetuko diote.

eya
ALTZARIAK

SUKALDERAKO ETA ETXERAKO ALTZARIAK
DEKORAZIOA ETA OSAGARRIAK

DESKONTU HANDIAK
ERAKUSKETA ALDAKETAGATIKI!

Ignacio Zuloaga 4 - Arrasate
Te.: 943 79 05 07
www.eyaaaltzariak.com

Onartu du udalbatzak ia bi milioiko aurrekontua

EH Bilduren aldeko zazpi botoekin eta EAJren kontrako biek onartu zuten azken osoko bilkuran 2020ko Aramaioko udal aurrekontua. 1.937.376 euro izango dira, iaz baino %10 pasatxo gutxiago; Foru Planean obra handirik ez izateak dakar jaitsiera

Julen Iriondo ARAMAIO

"Gure aurrekontua handiagoa edo txikiagoa izatea eragiten du, neurri handi batean, obra handi bat edukitzeak edo ez edukitzeak; hau da, Foru Planean sartu den obraren bat. Musika etxearekin ari gara orain, baina 2019ko kontuei egozten zaie diru hori, bai sarrerak eta bai irteerak; beraz, horrek eragin du jaitsiera, batez ere", zioen alkateak azalpen gisa.

Obra handirik ez, beraz, aurtengo. Inbertsioak beste maila batekoak izango dira. Auto berria erosi beharko da (35.000 euro), eta webgunea konpondu (4.500), iazko zibererasoaren ondoren. Ur sistema ere hobetuko dute (29.500), eta gehiago: "Udal laguntza, eskolako musika gelarako; basoetan inbertsioak egin-gotitugu, urtero moduan, landatu, desbrozatu...; obra txiki-tan, eskatuta dugu kultura etxeko konponketa batzuk egiteko, teilatuan...; auzolanetan, Barajuengoa dugu eskatuta (8.531,50); ermiten eta elementu txikien dirulaguntzetan, Etxaguengo errotrako (15.000) eta Santa Ana ermitako kanpandorrerako eta zorurako (10.000) dugu eskatuta...", zioen alkateak.

Azkeneko horietan, dirulaguntza ez iritsita ere, gastua aurrekontuan aurreikusitako dutela azaldu zuen alkateak, eta egin egingo direla Etxaguengo eta Santa Anako lanak. Honekin batera, bateko eta besteko jaiei diru gehiago bideratuko diete, eta udal langileen ordainsarrietan ere kopuru handiagoa joango da (%2,79), aurreko asteko osoko bilkuran bertan Eudelek proposatzen duen iguera onartu eta gero. Gorbeialdeko Kuadrillara Udalak egingo duen ekarpena ere bikoiztu egingo da ia, lehendakariaren liberazio erdiari eta kontratatuko den hirugarren gizarte langilearen kostuari aurre egiteko.



Aurreko asteko osoko bilkura. JULEN IRIONDO

EAJ-REN ZUZENKETAK BOZKATU ZITUZTEN AURREKONTUAREN AURRETIK; EH BILDU AURKA AGERTU ZEN

EAJk, zuzenketak

EAJk zortzi zuzenketa egin zituen aurrekontuari, eta haiek bozkatu zituzten aurrekontua baino lehen. EH Bilduk zuzenketen kontra bozkatu zuen. Jeltzaleek azaldu zuten hauteskundeetan Aramaiorako azaldutako zenbait asmo islatu nahi izan dituztela aurrekontuan zuzenketen bidez; diru kopuru txiki-kin izanda ere, zenbait egitasmo hasteko intentzioa erakutsi zezala Udalak. Honela zioen Pedro Elosegik: "Uraren plan orokorra hastea; eguneko zentroa handitzea egitasmoa; aparkaleku kolektorearen konexioa; azken hau Foru Aldundiarekin egin behar da, baina Udalean ere diru kopuru bat egon behar da; 10.000 euro proposatzen genituen, horrekin proiektua ere ezin da egin, ziur aski, baina hasierako

azterketa bat, behintzat; prozesua hastea nahi genuen".

Kasu konkretu honi honela erantzun zion alkateak: "Saneamendua Arrasatera eramateko jarri behar den dirua jarriko dugu, noski, baina Foru Aldundiak esan zigun nola egin aztertzen dabilela, eta horren zain gaude; Foru Aldundiaren esku bizi gara, guk ere egin dezakegu ekarpena, baina ez dugu dirua gastatuko Foru Aldundiarekin adostu gabe". Dena dela, bi alderdiek nabarmendu zuten ildo orokorrean bat datozela Aramaiok dituen beharren inguruan.

Martxoaren 8a: adierazpena

Gai zerrendako puntuen artean, Emakumeen Nazioarteko Egunarekin lotutako adierazpena ere onartu zuen udalbatzak; hau ere, EH Bilduren aldeko botoekin. Izan ere, Mugimendu Feministaren idatzia zen osoko bilkurara eramane zutena, eta EAJko zinegotziek adierazi zuten Eudelen testua onartzearen aldekoak zirela eurak; abstentitu egin ziren, ondorioz. Bestalde, Oletak hauteskunde mahaia izan dezan eskatzea proposatu zion EAJk Gobernuari.

Final batetik bestera dabilta asteotan pilotari aramaiioarrak

Trinketean Arabako txapela jantzi zuen asteburuan Markel Arriolabengoak; Olaizolaren txanda da orain

J.I. ARAMAIO

Markel Arriolabengoak eta Oier Picon laudiarak 30-16 menderatu zituzten Torres eta Estibaliz, Gasteizko Txukun Lakua klubekoak, gazte mailako Arabako trinket finalean.

Arriolabengoak min handia egin zien kontrarioei sakearekin, eta horixe izan zen finalaren gakoetako bat. Piconek ondo lagundu zion atzean, seguru, huts gutxi eginaz, eta huts gehiago egin zituzten kontrarioek. "Uste baino errazago" joan zen partidua Arriolabengoarentzat eta Piconentzat; hasieratik hartu zuten aldea, 6-7 tantokoa, eta gero handitu egin zuten.

Euskal Herriko klubaren artekoa

Domekan -17:00etan, Orozkon-jokatuko du Julen Olaizolak Euskal Herriko Klubaren Arteko Txapelketako finala. Duela ia



Arriolabengoak eta Picon. PELOTA ELKARTEA

hilabete lortu zuen sailkapena, eta aurreko astean jakin zuen zein izango duen finalean kontrario. Hain justu, sailkatzeko ligaxkako azken neurketan aurkari izan zuen Zeanuriko Danel Beitia izango da; 9-22 irabazi zion orduan Olaizolak Beitiari.

Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren finalaurrekoa, bihar

Lautadako Ahuntzak -Zalduondo- izango dituzte kontrario Aramaioko Izenbakuek bihar, zapatua, Sastiñan jokatuko den Arabako Bertso Kuadrilla Artekoaren finalaurrekoan. 19:00etan, *pikoteoa* egingo dute, eta 19:30ean hasiko da saioa. Aurreko asteburuan Sumendiolan Bete Potok -Gasteiz- lortu zuen finalerako txartela.



Peru Abarrategi. ABE

'Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere' dokumentala, gaur

Orizol elkarteak urtero antolatzen du hitzaldi eta dokumental emanaldi bat, eta aurten, Euskal Herriko hainbat gaztek euskara eta mendizaletasuna uztartuz Himalaiara egindako bidaia izango dute ardatz. 19:00etan hasiko da, kultura etxean, eta ekimen haren bultzatzaile izan zen Felipe Uriarte egongo da azalpenak ematen.



Espedizioa. OXIGENOA EUSKARARI

Gizarte berdinago baten aldeko borroka aldarri

Martxoaren 8aren bueltako ekintza sorta antolatu dute Udalak eta Atxabaltako Mugimendu Feministak bat eginik; lorpenak ospatzeaz gain aldarrikapenak egin eta konpromisoak hartzeko garaia dela diote, "Aretxabaleta berdinzaleagoa izateko"

Mirari Altube ARETXABALETA

Udalak eta Atxabaltako Mugimendu Feministak bat egin dute Emakumeen Nazioarteko Egurenaren harira eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte. "Orain arteko lorpenak ospatzeko eguna da, baina bereziki aldarrikapenak egiteko, oraindik ere bide luzea dugulako berdintasunaren alde", adierazi dute Berdintasun Batzordeko kideek –Myriam Beltran de Heredia, Jone Ojea, Lourdes Llodio, Karmele Uribarri, Jasone Gorroño eta Garazi Artuñedo–. Aldarrikapenetatik harantzago joan gura dute, gainera: "Konpromisoak hartu eta berresteko eguna ere bada, Aretxabaleta berdinzaleagoa lortzeko". Hori horrela, Martxoaren 8rako, domekarako, bazkaria (15:00, mojen komentua) eta mobilizazioa (19:00, Herriko Plaza) deitu ditu Atxabaltako Mugimendu Feministak, eta Udalak bat egin du horiekin.

Kirol ekitaldiak domekan

Kirolaren bueltako hainbat ekitaldi antolatu dituzte domekara begira. Batetik, Eskoriatzako Aresko saskibaloi eskolak antolatuta –bi herrietako udalekin elkarlanean– laugarrenez egingo dute Emakumeen Aresko Martxa; oraingoan, Eskoriatza-



Berdintasun batzordeko kideak eta Udalaren eta feministen ordezkariak. UDALA

tik Aretxabaletara izango da, eta iritsitakoan (12:45), Garazi Estebez txirrindulari gaztea omenduko dute Herriko Plazan (informazio osatuagoa 16. orrian).

Ez da izango aste bukaerako kirol ekitaldi bakarra. UDAk antolatuta, zarpigarrenez jokatuko da Emakumeen Frontenis Txapelketa, Iturrigorri pilotalekuan. Martxoaren 8ari keinu egiteko antolatutako lehiaketa da, herrian errotuta dagoena, eta hamar bikotek eman dute izena oraingoan. Bihar, zapatua, jokatuko dituzte lehen partidua,

ligaxka eran (08:30-14:30), eta domekan, osterara, (10:00-12:00) finalerdiak eta finala izango dira.

Trebakuntza saioak

Udaleko Berdintasun Sailak, berriz, formakuntza eta hausnarketa saioak antolatu ditu datozen egunetarako; Setem Hego Haizea GKEarekin elkarlanean lotutako egitaraua da eta haiek bideratutako saioak izango dira.

Martitzenean, hilaren 10ean, indarkeria matxistaren eta kontsumoaren gainean jardungo dute: "Kontsumoaren bidez in-

Mugimendu feministaren ekitaldiak

Antolatu, feminismora batu! leloarekin bat egin du Pikarraituz Asanblada Feministak, eta ekitaldi sorta antolatu du. "Pentsatu zenbat arrazoi dituzun kalera irten eta etxera ez bueltatzeko, bazterrak hankaz gora jarri eta ahotsa herriko kaleetan uzteko. Antolatu zaitez eta batu indarrak! Martxoaren 8a oso potente dator, eta urtero, hilabetero, astero, egunero eta, batez ere, momenturo moduan, zure beharra daukagu! Zure indarraren zain egongo gara. Gora borroka feminista!", aldarrikatu dute, eta astebururako gertatu dituzten ekitaldietara gonbidatu dituzte herriko emakumeak. Gaur, egubakoitza, batzar irekia egingo dute Mitarte kalean (19:00). Eta bihar, zapatua, hainbat ekitaldi egingo dituzte: buru-beroki tailerra (12:00, Herriko Plaza); tuper jana (14:30, Herriko Plaza), eta ondoren, Aretxabaletako emakumeekin tertulia; eta xunba tailerra (18:00).

Domekari ekingo diote txokolate-jana eginda (10:00, Mitarte plaza); gero, kontra-poteoa izango dute norberak eroanda aulkia (12:30). Bazkaltzeko elkartuko dira mojen komentuan (15:00); 100 bat lagunendako lekua izango dute eta bertaratzera gonbidatu dituzte emakumeak; arroz-entsalada gertatuko dute eta norberak eroan beharko ditu pikatzekoa, edaria eta mahai-tresnak. Eguna bukatuko dute mobilizazioarekin (19:00, Herriko Plaza).



Pikarraituzeko hainbat kide. M.A.

matxisten arteko harremanaren gaineko hausnarketa.

Martxoaren 28an, zapatua, *Aitatasun arduratsura bidean* lantegia izango da, Gizon Eki-menako kide Iñaki Kasaresek bideratuta; Kuku Miku elkartean egingo dute.

KONTSUMOAREN ETA INDARKERIA MATXISTAREN GAIEN GOGOETA EGINGO DUTE

Martxoaren 17an, osterara, *Fabricando mujeres* (Al Borde Films, 2018) dokumentala emango dute Arkupen (19:00), eta gero, solasaldia bideratu. Pikara Magazineko eta Dunak Taldeko kideek eta beste hainbatek egiten dute kontsumoaren eta indarkeria



NIRE USTEZ

OIHANA GARCIA INSAUSTI

Erdigunearen zaintzaz

Sei bat urte daramatza zaintza-lanak nire bizitzaren erdigunean. Bere gogorrean, aro ederra, bete eta emankorra. Uste dut guztiok izan beharko genukeela eskubidea, behar dugunean, gehien maite eta behar ditugun pertsonak begirunez zaindu gaitzaten; eta guztiok izan beharko genukeela ardura, behar dutenean, gehien maite eta behar

gaituzten pertsonak maitasunez zaintzekoa.

Ez dakit martxoaren 8ko aldarrikapenak zer duten benetan hondoan, baina niretzat hori da zaintza –eta bizitza– erdigunean jartzea. Bizialdi honetako aro hauskorrenak merkatutik, erakunde publikoetatik edo komunitatetik sortutako egituren menpe uztea –hala nola, haur-

eskolak, zahar-egoitzak, zaintzaile partikularrak...– sistema produktibokapitalista balioestea baita. Gizartearen egitekoa bizitzaren zaintzaileak babestea beharko luke, ekonomikoki nahiz sozialki. Baina honek guztiak barruan *krak* egiten digu, garapenaren eta betetasunaren fokua –izan soziala, izan pertsonala– beste nonbait kokatu dugulako.

Batzar orokorra egingo du Basotxok martxoaren 16an

Urtero legez, ohiko batzar orokorra egingo du Basotxo erretratuaren elkartek martxoaren 16an; hilaren 16an izango da, elkartean bertan (17:00). Iazko memoria eta diru kontuak onartuko dituzte, eta 2020ko kudeaketa plana aurkeztu. Era berean, zuzendaritza batzordea berritu egingo dute eta bazkideen galderak erantzungo dituzte.

"Emakumeen erretratuak marraztea dut gustuko"

KARMEN URIBESALGO MARGOLARIA ETA ARGAZKILARIA

Gasteizen bizi den aretxabaletarrak 'Erretratuak, begiradaren atzean' margo erakusketa jarriko du martitzenean Arkupen; teknika ezberdinekin egindako lanak dira

Mirari Altube ARETXABALETA

Gasteizen bizi da Karmen Uribesalgo azken 40 urteotan eta Arte eta Lanbide Eskolako ikaslea da. Martxoaren 10etik hila-betea bukatu artean haren artelanak izango dira Arkupen. Emakumeen Egunari keinu txiki bat egin gura dio *Erretratuak* erakusketarekin.

Emakumeen erretratuak izango dira gehienak; kasualitatea da?

Ez dakit, ba... Eskolan teknika ezberdinak ikasten joan naiz: arkatza, pastela, akrilikoa... eta teknika horiekin egindako lanak dakartzat. Erretratu eskolak jasotzen ditut, eta horiek margotu gero; eta bai, emakumeak marraztea dut gustuko, nahiz eta gizonen bat edo beste ere egin.

Erakusketa horretan atal berezi bat dago, ezta?

Etiopiara bidaiatu nuen orain dela hamar urte inguru. Herrialde zoragarria da, eta argazkiak atera nituen han; bertako egoera jaso nuen argazkiotan, baina bereziki emakumeak atera nituen. Hortik abiatuta hasi nintzen margotzen, eta sei edo zazpi lan ditut. Jende zoragarria da, duintasun handia duena, eta emakume haiek oso presente ditut. Hortik dator Martxoaren 8aren bueltan keinu bat egin



Karmen Uribesalgo. KARMEN URIBESALGO

gura izatea emakume haiei erakusketarekin.

Berandu hasi zara margotzen, ala?

Gaztetatik dut gustuko; gogoan dut batxilergoan emaitzarik onena marrazketa artistikoan ateratzen nuela. Gero, bizitzak beste ibilbide batetik eraman ninduen: familia, lana, mugimendu sozialak, mendia... Azken urteotan heldu diot betiko zale-tasun horri eta oso gustura nabil, benetan gustura, bai argazkigintza lantzen, bai margotzen. Zorte handia dut Gasteizen hori lantzeko tokia topatu izanarekin,

eta irakasle onekin, gainera. Garrantzi handia ematen diot nik horri, inportantea delako bizitzako ibilbidea norekin egin gura duzun. Ni eskolara joaten naiz ikastera eta gauzak ondo egitera, ez bakarrik lagunak egitera, eta neure lanarekin zorrotza izatea eskertzen dut.

Eta ikasten jarraitzen duzu...

Bai, bai, eta kuriositate handiarekin, gainera. Joan den aste bukaeran Arcon egon nintzen, Madrilen; izugarria da hori. Horrez gain, Madrilen dauden erakusketa txikiak ere ikusi ditut. Nire bizitzaren azken txanpan horrek betetzen nau.

Zure lanarekin badago zerbait adierazi nahia edo estetikoak dira?

Estetikoak dira, baina bai gurako nukeela zerbait adieraztera iritsi; hori, oster, oso zaila da. Beste artista batzuen eboluzioan erreparatuz gero, nabari da bizitza guztia daramatela bilatze horretan. Hori lortzen dute onenek; besteok kopiatu egiten dugu, eta disfrutatu.

Aretxabaletan erakusteak ilusiorik egiten ditu?

Nire asmoa ez da erakusketak jartzeko lan egitea, baina gustura nator. Hemen ez zaizkit geratzen lagun asko, baina gura duena gertura dadila, ondoetorria izango da.

Arbizelaiko gunean jokatu da Gipuzkoako lehenengo proba

Zapatuan 10:00etan hasiko da, eta, maila askotariko txirrindulaz gain, puntakoak ere espero dituzte

I.B. ARETXABALETA

Debagoieneko Oztopo trialsin taldeak antolatuta, 2020ko Gipuzkoako Trialsin Txapelketako lehen proba jokatu da zapatuan Aretxabaletan -Arbizelaiko trialsin gunean-.

10:00etan, maila txikienetako txirrindulariak izango dira lehenak parte hartzen, eta 12:00etan, berriz, kadete, junior eta elite mailaketakoak arituko dira. Aitor Murua Oztopo Trialsin taldeko kideak adierazi duenez, erakustaldi ederra izango da: "Iaz, bi txapelketa egin genituen Arbizelaiko gunean: Open Oztopo eta Gipuzkoakoa. Hala, 40 bat txirrindulari inguru batuko garelakoan gaude. Oztopotik, esaterako, 10-12 parte-hartzaile izango gara: Alvaro Gimenez iazko txapelduna, Gorka Merino, Julen Arenaza...; aurten oso ondo ari dira".



Iaz, Gipuzkoako trialsin txapelketan. GOIENA

Puntako txirrindulariak

Muruak gaineratu duenez, Jon Areitio, Julen Saez eta Irene Caminos txirrindulariak egongo direla zapatuan. Bestetik, gaineratu du ekainaren 13an Euskadiko txapelketa ere Aretxabaletan egingo dela.

OHARRAK

'1917' eta 'Jumanji'

Helduek *1917* filma izango dute gaur (22:00), zapatuan eta domekan (19:30) eta astelehenean (16:00); eta umeek *Jumanji* bihar eta etzi.

Bertso afaria

Martxoaren 13an Hiba Gain elkartearen egingo duten bertso afarirako txartelak salgai daude Loramendin, Urbaltzen eta Taberna Berrin.

Durana
Hartz Klinika

Odontologia estetikoa

Endodontzia

Inplantologia

Ortodontzia

PADI zerbitzua

Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00

Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

www.duranahortzklinika.eus



Iaz, Aresko martxaren amaieran Fernando Eskoriatza plazan ateratako talde argazkia. GOIENA

Tipi-tapa, emakumeak eta kirola indartuz

Domekan izango da laugarren Aresko martxa, dena dago gertu, eta omenduko dituzten emakumeen aukeraketa egin dute dagoeneko. Hain zuzen ere, Igone Armendariz eskoriatzarra eta Garazi Estebez aretxabaletarra izan dira aukeratuak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Aurreko edizioetan moduan, Eskoriatzako emakume bat eta Aretxabaletako beste bat omenduko dituzte Aresko emakume martxan. Eskoriatzako kirol elkarteak, UDAk eta Aresko saskibaloia eskolako gurasoek hartu dute erabakia, eta Eskoriatzan Igone Armendariz izan-

go da omendua. Aretxabaletan, berriz, Garazi Estebez.

Aresko emakume martxa Eskoriatzatik Aretxabaletara egingo da aurten, laugarren edizioa izango dena, eta domekan izango den martxara begira; 400 pertsonak eman dute izena. Honako hau izango da egunerako antolatutako egitaraua:

10:45ean hasita, Fernando Eskoriatza plazan omenaldia egingo diote Igone Armendarizi, eta gero, Aretxabaletarako bidea hartuko dute oinez, plazan batzen direnek, egunerako atera dituzten kamisetak jantzita. Aurten, gainera, ibilbide zati bat aldatu dute, errepide nagusitik joan barik Biblioteka albotik joango



ROMAN EZEIZA

Alainez eta Garzon onenak


Elkarte gastronomikoen arteko mus txapelketan bederatzi bikote hartu zuten parte. Finala Sonia Alainezek eta Jokin Garzonek jokatu zuten Santi Ezkibelen eta J.M. Romaratezabalaren aurka, eta lehenengo bikotea izan zen garaile. Antolatzaileek adierazi dutenez, "aipatzekoa da Sonia emakume bakarra izan dela lehiaketan eta Jokinekin batera irabazlea izan dela".

Indarkeria matxisten eta kontsumoaren arteko harremanaz

Martxoaren 11n, eguaztenean, *Fabricando mujeres* izeneko dokumentala proiektatuko da Zaldibar antzokian, 18:00etan. SE-TEM Hego Haizeak egindako ikus-entzunezkoa gazteleraz izango da, eta amaitzean solasaldia izango da *Indarkeria kontsumitzen dugu?* izenpean. Hala, indarkeria matxistaren eta kontsumoaren arteko harremanari buruz hausnartuko dute.


Fabricando mujeres dokumentaleko protagonista Maite (Itziar Aizpuru) da. Emakumeen Lantegiko hondarrak batzen ditu, eta indarkeria matxistarik gabeko kontsumoa sustatzen duten asmakizun eta proposamen eraldatzaileak sortu.

Omendua izateak zer eragin dizu?



IGONE ARMENDARIZ
ESKORIATZARRA

"Pozik, baina harrituta jaso nuen omendua izango nintzen albiste. Nire kasuan, semeak garun paralisia dauka; gero, hamar urtera senarra... Gehiengoak emakumeak gara gure senitartekoak zaintzen ditugunak, eta emakume horientzat horientzat izango da domekako ekitaldia".



GARAZI ESTEBEZ
ARETXABALETARRA

"Oso pozik nago Aresko martxan jasoko dudana omenaldiagatik, beti baita gustukoa zure lanagatik zoriontzia. Niretzat, oso garrantzitsua da kirola, asko ikasten delako, eta geroz eta gehiago garen arren, emakumezko guztiak animatu nahiko nituzke kirola egitera".

dira-eta Aretxabaletara. Hara iristean, Herriko Plazan, Garazi Estebez txirindulariak jasoko du omenaldia. Hala, Aretxabaletako ekitaldia amaitzean, 13:00 aldera, berriz, buelta egingo dute Eskoriatzara, oinez.

Emakume erreferenteak

Maitane Dieguez Aresko saskibaloia eskolako eta antolakuntzako kide denak adierazi duenez, omenduko dituzten bi herrieta-ko emakumeak erreferenteak dira askorentzat: "Herriak aukeratu dituen arren, errekon-

zimendua merezi dutela argi dago. Bizitzako zenbait aspektutan egindako esfortzu handiagatik edo kirol lorpenengatik edo bestelako arrazoi batengatik izan bada ere. Hala, Armendariz eta Estebez izango dira aurten hautatutakoak".

**400 PERTSONAK
IZENA EMAN DUTEN
ARREN, JENDE
GEHIAGO BATZEA
AURREIKUSTEN DUTE**



ESKORIATZAKO GAZTELEKUA

Nerabeak, sukaldari lanetan

Urtea hasi zenetik zenbait alditan aritu dira sukaldari lanetan Eskoriatzako gaztelekuko nerabeak. Mantalak jarri eta zenbait plater egiten ikasteko tarte hartzen dute asteburuetan. Otsailean, esaterako, San Blas opil erraldoia egiteko batu ziren, eta joan den asteburuan, berriz, paella. Horrekin batera, zenbait bider ere aritu dira postre goxoak egiten.

"Odola ezin da ekoiztu, ematea ezinbestekoa da"

AIALA ELORZA ARABAKO ODOL-EMAILEN ELKARTEKO KOORDINATZAILEA

Martxoaren 12an, eguenean, odola emateko unitate mugikorra izango da Fernando Eskoriatza plazan, 16:30etik 20:15era bitartean

Imanol Beloki ESKORIATZA

Atzo, eguena, odola emateko autobusa izan zen Fernando Eskoriatza plazan, eta martxoaren 12an, datorren eguenean, ere izango da *Hauxe da bizitza!* izenburupean unitate mugikorra, 16:30etik 20:15era bitartean. Odola ematearen garrantzia azpimarratuz, herritarrei bertaratzeko dei egin gura izan diete Arabako odol-emaielen elkarte-ko kideek.

Zergatik da hain garrantzitsua odola ematea?

Garrantzitsua baino gehiago, ezinbestekoa da odola ematea. Ezin dugu ekoiztu, eta odola lortzeko dugun aukera bakarra pertsona osasuntsu batek bere odola ematea da. Gainera, beharrezkoa da, eta egunero-egunero erabiltzen da gure ospitaletan. Euskal Autonomia Erkidegoan 400-500 odol emaille bitartean behar ditugu, gero ospitale guztietako beharrak asetzeko.

Odolak, gainera, iraungitze-data du, ezta?

Hala da; jende askok ez daki hori, baina bai, odolak iraungitze-data du. Egun gutxi batzuk ditugu odola erabiltzeko. Odol poltsa bakoitzetik hiru osagai aterako ditugu: globulu gorriak, plasma eta plaketak. Plaketak, esaterako, bost egun soilik irau-



Aiala Elorza, Laubide plaza alboan. I.B.

ten dute. Normalean, plaketak behar dituen pertsona bat minbizia duena da. Gaur egun, sendagarria den gaixotasuna dela esaten dugu, betiere, garaiz hartuz gero, eta dagokion sendagaiak jartzen badizkiogu; hau da, kimioterapia. Baina kimioterapiarekin bat, hor egon behar dira plaketak, eta, beraz, ezinbestekoak dira minbizia duten pertsonak sendatzeko, eta esan bezala, bost egun baino ez dute irauten. Beraz, eguneroko fluxua behar dugu, odol emailleak egunero-egunero behar dira.

Odola emateko osasuntsu egoteaz batera, zenbait baldintza bete behar ditu odola eman nahi duenak, ezta?

18 urtetik gora eta 65 urte baino gutxiago izan behar ditu, eta 50 kilo baino gehiago pisatu behar du, horrekin nahiko izango genuke. Hala ere, odola eman aurretik, inkesta bat bete beharko da, gure osasunaren eta jokabideen gainekoa. Hori medikua- rekin aztertu, eta dena ondo badago, utziko digu ematen. Odol-ematea, berez, 5-10 minutu baino ez dira izango, beti etzanda egongo gara, eta 450 milimetroko poltsa betetzen da, beti kantitate bera.

Odola eman osteko gomendiorik?

Zerbait edan eta jan behar da odola eman ostean, eta egun horretan esfortzu handirik ez egitea komeni da. Baita ere oso inportantea da baraurik ez etortzea. Beti ondo gosalduta joan behar da, edo bazkaldu ostean, pare bat ordu itxaron ostean joan gaitezke odola ematera.

Eguenera begira, eskoriatzarrak odola ematera animatu daitezela, ezta?

Hori da. Eskoriatzara urtean hiru aldiz joaten gara: garai honetan, uda aurretik eta udazken aldera. Beraz, anima daitezela herritarrek odola ematera, ezinbestekoa baita.

LEINTZ GATZAGA | 17



Martxoaren 8aren bueltan egindako bazkari batean batutakoak. GOIENA

Bazkaltzeko batuko dira zenbait belaunalditako 22 'sorgin'

Domekarako zenbait ekintza antolatu dituzte: Herria apaindu, triki-poteoa eta bazkaria Gure Ametsan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Sorginak emakume elkarteko kideek Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dute domekan, eta horretarako, urteroko bazkaria egingo dute; aurtan, Gure Ametsa jatetxean izango da. Belaunaldi ezberdinetako emakumeak batuko dira mahaiaren bueltan, eta bapo jateaz batera, kontu kontari jardungo dute. Edozelan ere, zenbait ekintza antolatu dituzte aurretik.

13:00etan, herriko plazan batuko dira Sorginak taldeko kideak, eta herria apaintzeko aprobetxatuko dute. Lazo moreak eta esaldi ezberdinekin egindako pankartak jarriko dituzte herriko zenbait txokotan. Herria kolore morez jantzi ostean, triki-poteoa egingo dute, eta 14:30ean, Gure Ametsa jatetxera joango dira bazkaltzera. Bazkalostean, berriz, urtero moduan

musika izango dute, eta animatzen direnak dantzara aterako dira.

"Egunari hasiera emateko, herria apainduko dugu, eta ekintza hori gauzatzeko, emakumeek gain, haurrak eta gizonezkoak ere animatu nahi ditugu. Izan ere, lazo moreez gain, bakoitzak nahi duen esaldia idazteko aukera izango du, eta marrazkiak egin nahi dituenarentzat ere egongo da aukera", adierazi du Ainhoa Barandiaran Sorginak emakume elkarteko kideak.

Isuskiak ez, sorpresak bai

Sorginak elkarteko emakumeek ohitura izan dute zenbait urtez elkarteko hainbat kideri isuskiak banatzeko, Martxoaren 8aren bueltan egin ohi duten bazkarian. Azken urteetan ez dituzte banatu, eta aurtan ere ez, baina sorpresaren bat edo beste egongo dela adierazi dute.

Nhil eta Sharon Stoner musika taldeak asteburuan

Nhil musika taldeko kideak duela bi urte hasi ziren martxan proiektu berriarekin, baina gaur bertan izango dute estreinaldia Zaldibar antzokian. 22:00etan izango da aurkezpen kontzertua, eta sarrera doakoa izango da.

Aztarnak izeneko diskoa otsailan argitaratu zuten, eta zazpi kantuz osatutako erreperatorioa

lehenengo aldiz entzuteko aukera izango dute bertaratzen diren ikus-entzuleek. Taldea bailarako musikariek osatzen dute, eta tartean da Beñat Arrieta gitarra-jole eskoriatzarra.

Zapatuan, bestalde, Inkernun izango da kontzertua, 22:30ean. Zazpi urteko etenaldiaren ostean, *Erraia* izeneko disko berria aurkeztu zuen Sharon Stoner talde oñatiarrak urrian, eta disko horretako kantuez gain, aurreko lanetako abestiak ere eskainiko dituzte.

Areto futboleko neskek liderraren aurka jokatu dute

Emakumezko seniorrek liderra izango dute aurkari –Ordizia–, eta etxetik kanpora jokatu dute, domekan, 10:00etan. Maila Nazionaleko Eskoriatza areto futbol taldeak, berriz, atsedenaldia izango du eta datorren astean etxetik kanpora jokatu du, Gora Bilbao liderraren aurka; partidua zaila aurreikusten dute Molinaren mutilek.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordainketa

Martxoaren 2an, alkatetzaren dekretuz 2020. urteko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errolda onartu zen eta kontu-hartzailetzan erakusgai egongo da 30 eguneko epean. Epe horretan, errolda horren aurka errekursoak eta alegazioak jarri ahal izango dira. Ordaintzeko borondatezko epealdia apirilaren 30ean bukatuko da.

Familientzako tailerra: 'Gatz egile egun batez'

Martxoaren 14an, 5-10 urte bitarteko haurren eta hauen familientzako tailerra antolatu dute. *Gatz egile egun batez* izenburupean, 10:30ean hasiko da tailerra eta Gatz Museoan egurra bildu, egurraren jatorria ezagutu, sua egin, museoa ezagutu, gatz koloretatu... egingo dute. Bertara joan nahi duenak izena eman beharko du 943 79 64 63 telefonora deituz.



Ikasle ohiak erakusketako argazkietan ezagunak identifikatzen. MAIDER ARREGI

"Hezkuntza da inbertsio onena"

'Hezkuntza Antzuolan' liburua kaleratu du Iñigo Ramirez de Okariz historialariak. Hemezortzi urteko ikerketa prozesu sendo baten emaitza da, eta asteburuan, herriko eta auzoetako eskolak protagonista diren erakusketa bisitatze aukera izango da

Maider Arregi ANTZUOLA

Antzuolarren artean interesa eta arreta piztu du Iñigo Ramirez de Okariz historialari eta irakaslearen azken liburuak: *Hezkuntza Antzuolan*. Joan den eguen iluntzean eginiko aurkezpenean, Olaran aretoa bete egin zen. Senitarteko, lagun eta ikasle ohi asko bertaratu ziren, Antzuolako hezkuntza sistemaren historia bertatik bertara jasotzeko eta gordetako bizipenak eta testigantzak berriro ere bizitzeko eta entzuteko asmoz.

Ramirez de Okarizek GOIENARI adierazi dionez, hezkuntzarekiko interesa egon badago herritarren artean. "Oraindik garai hartako esperientzia eta bizipena duten asko gaur egun bizi da, eta etorri diren asko eta asko niretzako informazio iturri apartak ere izan dira lan hau egiterakoan, gainera".

18 urteko ikerketa prozesuaren emaitza izan dela dio: "Egia da azken urteetako informazio eta dokumentazio bilketa handiagoa izan dela; baina erakusketan jasota dauden objektuak eta argazkiak herritarrek emandakoak dira. Udalen artxiboetatik dokumentuak ere atera ditut, baina erakusketako protagonistak herritarrek dira, eurek izan baitute materiala eta argazkiak biltzeko ardura".

Hezkuntza eta hizkuntza

Historian zehar hizkuntza eta hezkuntza lotuta egon dira eta daude. "Euskara hizkuntza txikia izanagatik gaztelerarekin borrokan izan da. Hori argi ikusten da dokumentuetan eta baita sasoi hartan ezartzen ziren zigorretan ere. Izan ere, zigor asko euskaraz berba egiteagatik ezartzen zituzten irakasleek;

belarrondokoak, askok gogoan duten eraztunaren zigorra... zigorren egoera horri 1982 eta 1983. urteen bitartean eman zitzaion buelta: euskarak ofizialtasuna lortu zuenean, hain zuzen ere", nabarmendu du historialari antzuolarrak.

Tokikoa oinarri

Antzuolako zein tokiko hezkuntzarik gabe, ordea, zaila da ulertzea Euskal Herriko hezkuntza sistemaren bilakaera. "Ez dugu jakingo zeintzuk diren euskal hezkuntza sistemaren ezaugarri historikoak, ez baldin baditugu alde aurretik tokiko hezkuntzak ezagutzen. Horregatik, Antzuolakoa lagin bat besterik ez da eta euskal hezkuntzaren historiari aletxo eskaintzen dio. Honen bitartez, gainontzeko udalak ere animatu gurako nituzke horrelako


Ikasle izandakoen oroitzapenak



ANPARO ARREGI
IKASLE OHIA

"Transmisio-lan garrantzitsua da"

"Lehenengo historia berriro azaleratzea asko gustatu zait eta uste dut oso dela garrantzitsua. Belaunaldi berrien transmisiorako ezinbesteko dira horrelako lanak. Erakusketarako argazkiak batzen eta jendea identifikatzen jardun dut nik. Iñigo Ramirez de Okarizek lan oso ona egin du, zalantzarik gabe. Ni neu eskola txikian ibilia naiz eta ondoren *Señorita Marirekin*".



JOSE LUIS ARREGI
IKASLE OHIA

"Euskararen aurkako errepresioa handi zen"

"Oroitzapen asko ekarri dizkit liburuak eta erakusketak. Anekdotak asko ditut. Adibidez, gogoratzen dut euskararekiko maisuek zuten jarrera. On Saturrek, esaterako, erregela eskuetan zuela jotzen gintuen zigor gisa. Handiarekiko presioa oso handia zen. Maristenetan, jolastokian futboleko geundela ere erdaraz berba egin behar genuen, bestela brontzeko pieza jaurtitzen ziguten eta".

ikerketak egitera. Beharrezkoa dela deritzot".

Transmisioa erronka

Hezkuntzaren alorrean Antzuolako Herri Eskolak, aldiz, badu erronka handi bat transmisioari dagokiona. "XXI. mendeko erronka handiena hezkuntza mailan du Antzuolak. "Denok ezagutzen dugu gure herriko hezkuntzak daukan ospea. Tesi asko idatzi dira hemengo pedagogiaz eta metodologiaz. Orain, garai bateko irakasleek erretiroa hartu dute eta irakasle berriak gogotsu eta prest daude lan egiteko. Hala ere, lanpostuaren egonkortasunik eza dela medio, transmisio hori arriskuan dago. Hemendik aprobetxatu gurako nuke Hezkuntza Sailari horrelako egoeren aurrean sentsiblea izan dadin eskatzeko eta Antzuolak irtenbidea behar duela aldarrikatzeko", azpimarratu du Ramirez de Okariz irakasleak.

Carmen Pellicer pedagogoak dio "irakasle on batek haur baten bizitza" alda dezakeela betirako. Eskola batek "komunitate bat eta hezkuntzak herri bat alda dezakeela"; horri erantzunez, Iñigo Ramirez de Okarizek hezkuntzak gizartean duen garrantzia azpimarratzen du. "Ez dakit herri honek zenbateraino ematen dion hezkuntzari garrantzia, baina nik, agian irakasle naizelako edo, uste dut hezkuntza dela gizarte inbertsiorik onena".

Hezkuntza sistemak ikasle baten bizitza alda dezake, antzuolarrek oso argi dute hori eta kontziente ere badira.

100 urte hezkuntzaren sustengu

Liburuaren azalak Herri Eskolaren izaera eta historia darimala azaldu du egileak: "Kasualitatea izan da, baina zein azal eta izenburu jarri erabakitzen ari ginela etorri zitzaigun burura ideia. Izan ere, argi nuen herrian oraindik sasoi hartako hezkuntzarekin lotutako lekukoa izan behar zela. Orduan gogoratu nintzen eskolaren eraikinaren aurrealdean dauden bi zutabeez. Eta horrelaxe jakin nuen aurten 100 urte betetzen dituztela bi zutabe horiek. Antzuolako Hezkuntza sistemaren oinarri eta sustengu izan dira 100 urtez. Sinbologiaz beteriko azala da; sasoi hezkuntzaren inguruan geratzen den lekuko bakarra, alegia", argitu du historialariak.

Auzoetako eskolak

Antzuola oso zabala da, handia. Horregatik, Uzarraga eta herri-guneko eskolaz gain, baziren bestelako eskolak ere auzoetan. "Antzuolan, Oñati eta Azkoitia aldera baditugu baserri dezente. Hango haurrak ez ziren herriko eskoletara etortzen. Normalean, Azkoitia aldeko ikasleak Aizpurrutxo auzo-eskolara joaten ziren; eta Oñati aldean Koroso inguruko baserrietan bizi zirenak, berriz, Sarramendi eskolara".

1968 eta 1969. urte bitartean sortu zen Ikastola Antzuolan. "Ikuspuntu pedagogikotik aldaketa sakona ekarri zuen. Eskola nazionaleko pedagogia itxia eta magistraletik urrun, bestelako pedagogia ekarri zuen. Askotariko txokoak, espazio irekiak, ikasle eta irakasleen arteko hartu-eman zuzena... hori guztia etorri zen Ikastolarekin. Eta orduan, Herri Ikastetxearekin bat eginik, lan bikaina egin zuten eta horri esker gaur egun ezagutzen dugun pedagogia ospetsua etorri zen".

Erakusketa zabalik

Herritarren laguntzarekin erakusketa osatua egiteko aukera izan da. Auzoetako eskoletako ikasle eta irakasleak, sasoiko eskoletako mahaiak, arbela, aulkiak, koadernoak... ere ikusgai daude. Asteburuan, martxoaren 7an eta 8an ere ikusgai izango da Olaran etxean, 18:30etik 20:30era. "Erakusketa zabalik egon den lehen asteburuan 100 lagundik gorak bisitatu du. Oso balorazio positiboa egiten dugu eta jendeak ere aitortu digu gustura ikusi duela erakusketa. Herriarekin zerikusia duen orok arrakasta izaten du beti", kontatu du Kultura teknikari Jone Larrañagak.

**Uzarragako eskolako ikasleak**

Jose Maria Agirre maisua erdian dutela, Uzarraga auzoko eskolara joaten ziren neska-mutikoak agertzen dira argazki horretan. Adin ezberdinetakoak elkarrekin daude eta 1954. urtean ateratakoa da. Olarango erakusketan ikusgai dagoen lagintxo bat da.

**Aurkezpen jendetsua**

Joan den eguen iluntzeko aurkezpenean, herritar mordoak gerturatu zen *Hezkuntza Antzuolan* liburuaren nondik norakoak jasotzeko asmoz. Olarango areto nagusia bete egin zen. Liburua salgai dago udaletxean 10 euroren truke.

'Señorita' Mari, maitatua

Antzuolan ikasle ohi guztiek gogoratzen duten irakaslea da *Señorita* Mari. Oso maitatua izan zen eta egun, hitz onak besterik ez dute herritarrek Antzuolan irakasle gisa jardun zuen emakume donostiarrarendako. "Euskaraz bazekien eta gure gurasoeekin ere euskaraz erlazionatzen zen. Herriarendako eta herritarrendako oso ona izan zen *Señorita* Mari; euskara asko

maite zuen eta guri hori transmititu zigun. Irakasle oso zuzena eta bikaina zen", kontatu diote GOIENARI bere ikasle izandako antzuolarrek.

Gaztekeraz jardutea nagusi zen sasoi hartan: "Euskaratik erdarara salto egin genuen eta asko sufritu genuen. Esaten genuena une oro zuzentzen ziguten; gaztekeraz berba egiteko beti beldurrez geunden".



Señorita Mari. 'HEZKUNTZA ANTZUOLAN'

Feminismoaren historiaz gertutik jardun dute herritarrek

M8aren baitan, ekintza ugari antolatu dituzte Antzuolan. Domekan, 12:00etan egingo dute elkarretaratzea

Maidar Arregi ANTZUOLA

Martitzen arratsaldean, Olaranen feminismoaz eta honen historiaz jardun zuten herritarrek. Emagin elkarteko Ekhiñe Eizagirre zarauztarrak abortuaz, dibortzio eskubideaz, antisorgailuen erabileraz eta egungo konstituzioaz hausnarrarazi zien bertaratutakoei.



Feminismoaz Olaranen. NAIARA FERNANDEZ

Aldarrikapenerako deia

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekintza antolatu dituzte. Hala, domekan, Martxoaren 8an, 10:00etan, haur eta gazteentzako tailerrak egongo dira Zurrategi plazan, Idolaz aisialdi taldeak antolatuta. Horrez gain, Olarango ekintza aretoan yoga eta luzaketak egiteko aukera izango dute herritarrek.

12:00etan, elkarretaratzea egingo da plazan, eta 14:00etan, emakumeen bazkaria, bakoitzak bere jatekoa eramanda. *Erradikalak ginen* ikuskizuna ikusteko aukera ere egongo da, martxoaren 14an, 19:00etan, Torresoroan. Andramanuela Emakume taldeak ekintzetan parte hartzeko dei egin du.

Finalerdia, esku-eskura

Nagore eta Leire Galeano ahizpek Emakume Master Cup-eko finalerdia jokatu dute datorren martxoaren 14an, Elgoibarren.

Pasai Antxon jokatu zuten pasa den asteburuan final-laurdenetako kanporaketa. Partidu oso lehiatua izan zen eta 13-18 irabazi zieten Eneritz Arrietari eta Amaia Jakari. Hala, finalerdian sartzea lortu dute antzuolarrek.



IMANOL SORIANO

OHARRAK**Landaxoperen Kulturaldia**

Martxoaren 12an, ONCEkoen *Algo habrán hecho* antzezlan izango da ikusgai, 18:00etan, Torresoroan. Antzezlan hau Landaxoperen Kulturaldiaren baitan dago antolatuta.

'Paziente bizia'

Osakidetzaren *Paziente bizia* programaren beste saio bat eskainiko da martxoaren 10ean, 16:30ean, Olaranen.

'Memoria tailerra'

Garuna eta memoria lantzeko tailerra astelehenero eskainiko dute, maiatzaren 25era arte, Landaxopen, 10:15etik 11:45era bitartean.

Ahizpatasunerako eta aldarrikapenerako eguna

Elkarretaratzea eta bazkaria antolatu dituzte Elgetan domekarako, Martxoaren 8rako. Elkartzeko, iritziak trukatzeko eta oraindik ere egiteko dagoen bidearen inguruan gogoeta egiteko eguna izango da. Bazkarirako txartelak bihar arte egongo dira salgai

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetako Emakume Taldeak elkarretaratzea deitu du domekarako, 13:00etan. Hamabost minutuko kontzentrazioa izango da, herriko plazan. Iaz moduan, bazkaria ere egingo dute. Eguraldiaren arabera, udaletxeko arkupean edo Espaloia kafe antzokian izango da.

Txartelak salgai daude herriko taberna guztietan zein Elko-ro botikan. Prezioa 7 euro da, eta paella -oilaskoarena edo beganoa-, pastak eta kafea dauden menuan.

Bazkalosteak tertuliarako aukera emango du. Iaz moduan, *koaderno moreak* ibili dira egunotan eskutik eskura, eta bertan jasotako gogoetak kafearen tartean irakurriko dituzte. Tertulia laguntzeko, argazkiak, irudiak eta ipuinak izango dira bazkalostean, eta bertaratutakoek horiek guztiak betaurreko moreekin irakurtzeko gonbidapena jasoko dute. Helburua izango da emakumeek mundu honetan duten -edo eman zaien- tokiaren inguruan hausnarketa egitea. "Gaia amorragarria da, batez ere emakumeentzat, eta ez da berria". Hori zioen Simone de Beauvoir-ek 1942an argitaratutako *Bigarren sexua* liburuan.



Bazkaria, Elgetan, iaz Martxoaren 8an. E.M.T.

Martxoaren 8ko egitaraua

Barikuan, martxoak 6

- **15:15** Eskolan, defentsa pertsonalerako saioa.

Domekan, martxoak 8

- **13:00** Elkarretaratzea, herriko plazan.
- **14:30** Bazkaria, herriko plazan.

Herri Eskolan ere lanketa

Elgetako neska-mutikoez ere hainbat ekintza izan dituzte egunotan Martxoaren 8aren inguruko gogoeta egiteko. Eskolako sarreran ikusgai egon da *Emakumeen begiradak eta eskulturak* izeneko erakusketa. Alicia Gartziazen lanak dira.

Emakume taldearen *koaderno moreak* ere etxerik etxe ibili dira, eta nork bere gogoeta idatzita uzteko aukera izan du. Koadernoetako bat LH5 eta LH6 geletako neska-mutikoez erabili dute. Bigarrena eskolako familiendako izan da, eta etxetik etxe ibili da, gurasoez ere ekarpenak egin ditzaten. Bi koadernoak plazan izango dira domekan, eta ekarpenak egiteko aukerak zabalik jarraituko du.

Bestalde, eta Herri Eskolako ekintzekin jarraituta, gaur, martxoak 6, hainbat tailer eta saio egingo dituzte adin guztietako ikasleek.

Haur Hezkuntzako neska-mutikoez berdintasuna adierazten duten argazkiekin horma-irudia egingo dute. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleek Garazi Arrula idazlearen eta

Helena Azkarragaurizar ilustratzailearen bisita izango dute. *Bidean* izeneko liburua aurkeztuko dute eskolan.

Hirugarren eta laugarren mailetako neska-mutikoez buztin tailerra egingo dute, eta beraien ekarpena egingo diote eskolako atarian dagoen erakusketari.

Azkenik, bosgarren eta seigarren mailetako ikasleek defentsa pertsonalerako saio berezia egingo dute, 15:15ean. Lehenengo aldiz egingo dute eta bertan parte hartzeko gonbidapena jaso dute gurasoez; amek, bereziki.

Seigarren mailako ikasleak

Eta domekarako erronka berezia proposatzen dute seigarren mailako neska-mutikoez. Ikas-bidaia ordaintzeko ekintzak egiten ari dira ikasturtean zehar, eta domekan, aldarrikapen feministaren ikurretako bat den esku morea margotuko dute lurrean. Esku hori euro bateko txanponekin betetzea da erronka. Parte hartzen dutenen artean hainbat museotarako sarrerak zozketatutako dituztela jakinarazi dute. Ikasle taldea 11:00etatik aurrera izango da herriko plazan.

Feminismoa herri mugimenduetan

Iraitz Agirrek eguaztenez egitekoa zuen formakuntza saioa hilaren 17ra atzeratu da. Antropologo eta aholkulari arrasatearrak *feminismoaren genealogia* izeneko tailerra egin zuen otsailaren 26an. Bigarren tailerraren izenburua da *Feminismoa herri mugimenduetan. Gure genealogia kokatzen*. Aurreratu du bestelakoa izango dela

abiapuntua; izan ere, asmoa da lehenengo saioan ikusitako genealogia orokor eta luze horretan kokatzea Elgetako errealtate. "Zergatik eta zertarako antolatzen garen ulertzen saiatuko gara", aurreratu du. "Hausnarketa saio bat izango da gehiago. Ez hainbeste helburuak finkatzeko asmoarekin, baizik eta Euskal Herriko eta Elgetako

errealitatean lur hartzeko asmoarekin. Gure asmoak eta nahiak antolatzen eta definitzen saiatuko gara".

Hala, saioaren abiapuntu izango diren hiru galdera planteatu ditu: "Noiz konturatu ginen emakume garena? Zergatik hasi ginen antolatzen? Zeintzuk dira gure baitan dauden emakumeen indarguneak eta minak?".

Tailerra 18:30ean izango da, udaletxeko areto nagusian.

Euskaraldia batzordea, martitzenean

Badator 2020ko Euskaraldia eta Elgeta ere izena emanda dago euskararen erabilera sustatzeko ariketa egiteko. Iaz, 300 bat elgetarrek eman zuten izena *ahobizi* edo *belarriprest* izateko. Aurten, ariguneak ere izango dira. Euskaraldia batzordeak martitzenean egingo du hurrengo lan bilera. 19:00etan izango da batzarra, Ozkarbi elkartearen.

Kopa menstrualari buruzko informazio hitzaldia gaur

Elgetako botikari Elena Elkorok gidatuko du saioa, liburutegiko 'Bibliobero' egitarauaren barruan, 18:30ean

L.Z.L. ELGETA

Hilekorako hainbat aukera daude gaur egun merkatuan, eta horietako bat da kopa menstrualak. Elena Elkorok botikariak kopa zer den, nola erabiltzen den eta nork erabil dezakeen azalduko

du. Hitzaldia 18:30ean hasiko da, liburutegian. "Marka desberdinak daude eta tamaina diferenteak ere bai. Zer noiz erabili azaltzen saiatuko naiz, eta galderak badaude horiek erantzuten ere bai".

Elkorok uste du interesgarria litzatekeela kopa erabiltzen duten emakumeak ere hitzaldira gerturatzea. "Zalantzak argitzeko ona izan daiteke eta esperientziak partekatzeko aukera ere emango luke. Kopa erabiltzen hasteko daudenendako beti da interesgarria horrelakoak entzutea".

Hitzaldia, beraz, hilekoarekin hasiberriak diren emakumeendako zein besteendako da. Marka desberdinetako kopak ere erakutsiko ditu Elkorok saioan.



Elena Elkorok botikaria. L.Z.L.

MARTXOAREN 8A

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



DEBAGOIENENKO AGENDA MOREA

EGUBAKOITZA 6

Arrasate Kartel erakusketa
Emakume txokoan. Astelehenetik
egunera: 10:30-13:30 eta
15:00-18:00. Egubakoitzetan:
10:00-14:00, martxoaren 18a arte.

Aretxabaleta Asanblada
Asanblada irekia Pikarraituz
Asanblada Feministak deituta.
Mitarte kalean 19:00etan.

Bergara Erakusketa
Amalurra erakusketa irekiko dute
Bergarako Emakume Artistek.
Aroztegi aretoan, 18:00etan.

ZAPATUA 7

Aramaio Bazkaria
Emakumeen bazkaria (25 euro),
16 urtetik gorakoendako.
Añai tabernan, 14:00etan.

Aretxabaleta Tailerra
Buru-beroki tailerra.
Herriko plazan, 12:00etan.

Aretxabaleta Tertulia bazkaria
Tertulia eta tuper jana.
Herriko plazan, 14:30etan.

Aretxabaleta Tailerra
Xunba tailerra.

Herriko plazan, 18:00etan.

Arrasate Ikuskizuna
Erradikalak ginen ikuskizuna.
Ane Labaka Mayoz eta Beatriz
Egizabal.
Kulturaten, 19:00etan.

Bergara Kontzertua
AMAK eta Ain_1 musika taldeen
kontzertua.
Seminarixoa, 19:00etan.

Bergara Ikastaroa
Emakumeentzako autobabes
ikastaroa, Shotokan Kirol
Elkartearen eskutik.
Agorrosinen, 10:00etan.

Oñati Azoka
Emakume artisauen azoka.
Herriko plazan, 10:00etan.

Oñati Bazkaria
Emakumeen bazkaria.
Gaztetxean, 14:00etan.

DOMEKA 8 EMAKUMEEN EGUNA

Antzuola Eguneko egitaraua
Haur eta gazteentzat tailerrak.
Zurrategin, 10:00etan.
Yoga eta luzaketak.
Olaranen, 10:00etan.
Kafea, Bingoa eta tertulia.
Eskolan, 16:00etan.
Elkarretaratzea.
Plazan, 12:00etan.
Emakumeen bazkaria.
Plazan, 14:00etan.

Aramaio Eguneko egitaraua
Elkarretaratzea.
Plazan, 12:00etan.
Bazkaria.
Eskolan, 14:30etan.
Kafea, Bingoa eta tertulia.
Eskolan, 16:00etan.
Manifestazioa.
Kultur etxean, 16:00etan.

Aretxabaleta Eguneko egitaraua
Txokolate-jana.

Mitarte plazan, 10:00etan.
Kontra-poteoa; nork bere
aulkiak eroanda.
12:30ean.
IV. Aresko Emakumeen
Martxaren omenaldia.
Herriko plazan, 12:45ean.
Emakumeen arteko bazkaria
Mojen komentuan, 15:00etan.
Mobilizazioa.
Plazan, 19:00etan.

Arrasate Eguneko egitaraua
Manifestazioa.
Seber Altubetik, 12:30ean.
Ekitaldia.
Seber Altuben, 13:30ean.
Bazkari Feminista.
Seber Altuben edo azokan
(eguraldiaren arabera),
14:30ean.
Mikro-irekia eta disko
jartzailea.
Seber Altuben edo azokan,
16:30ean.

Bergara Eguneko egitaraua
Manifestazioa. Tarteetan,
antzerki herrikoia egongo dira.
San Martin plazatik abiatuta,
12:00etan.

Elgeta Eguneko egitaraua
Elkarretaratzea.
Plazan, 13:00etan.
Bazkaria plazako arkupeetan,
14:30ean.



Guri ere badagokigulako,
elkarrekin berdintasunerantz.

FAGOR 
FAGOR TALDEA

Eskoriatza Eguneko egitaraua
Gosaria.*Plazan, 10:00etan.*

Omenaldia Igone Armendarizi.

Plazan, 10:45ean.

Aresko emakume martxa.

Plazan, 11:00etan.

Eskoriatzari buelta.

Plazan, 13:00etan.

Bazkaria.

Plazan, 14:30ean.

Mahai-ingurua.

Plazan, 16:30ean.

Manifestazioa.

*Herrian zehar, 18:30ean.***Leintz Gatzaga Eguneko egitaraua**

Herriaren apainketa.

Plazan, 13:00etan.

Bazkaria

*Gure Ametsan, 14:30ean.***Oñati Eguneko egitaraua**

Bortxatzailea zu zara performancea. Manifestazio tarteetan, antzerki herrikoia egongo dira.

*Herriko plazan, 13:00etan.***ASTELEHENA 9****Aramaio Erakusketa**Hilerokoaren gaineko erakusketa.
Sastiñan, martxoaren 15a arte.

GOIENA

ARRASATE Martxoaren 8ko kartelen erakusketa

Kartelen erakusketa ikusgai izango da martxoaren 18a arte.

*Emakume txokoan izango da. Astelehenetik eguenera 10:30etik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara eta egubakoitzetan 10:00etatik 14:00etara.***Arrasaten Erakusketa**

M8ko kartelak ikusgai.

*Emakume txokoan, 10:30ean.***Bergara Elkarretaratzea**

Duintasun taldearen eskutik.

*San Martin plazan, 12:00etan.***MARTITZENA 10****Aretxabaleta Formakuntza***Indarkeria matxista eta kontsumoa formakuntza.**Arkupen, 18:00etan.***Bergara Murala**

Murala itsatsiko da.

*Oxirondo azokan.***EGUAZTENA 11****Bergara Filmen emanaldia**

Film laburren emanaldia

Zinegoak-en eskutik.

*Seminarixoa, 20:00etan.***Eskoriatza Dokumentala***Fabricando mujeres* dokumentala eta solasaldia.*Zaldibar antzokian, 18:30ean.***EGUBAKOITZA 13****Aramaio Hitzaldia***Feminismo negro* hitzaldia.*Kultur etxean, 18:30ean.***ZAPATUA 14****Antzuola Ikuskizuna***Erradikalak ginen**ikuskizuna, gaztelaniaz.**Torresoroan, 19:00etan.***Bergara Antzezlan***Yo nunca* izeneko

antzezlan.

*Seminarixoa, 19:00etan.***MARTITZENA 17****Arrasate Liburu aurkezpena***Nik sinisten dizut* aurkezpena.*Kulturaten, 18:30ean.***Aretxabaleta Dokumentala***Fabricando mujeres*

dokumentala eta solasaldia.

*Arkupen, 19:00etan.***ASTELEHENA 23****Bergara Mahai-ingurua***Lanbideetako genero moldeak**apurtzen* diagnostikoaren

aurkezpena eta mahai-ingurua.

*Irizar jauregian, 18:00etan.***EGUENA 26****Arrasate Film emanaldia***Zinegoak hedapena* emanaldia.*Kulturaten, 19:00etan.***ZAPATUA 28****Aretxabaleta Lantegia***Aitatasun arduratsura bidean*

lantegia, Iñaki Kasaresen

eskutik.

**MARTXOAK 8***Jabetzen Eraikitzen Sortzen
Ekiten Iraultzen***OÑATI**
dabilen herria**Gizartearekin
bat aurrera**

Auzo Lagun, emakume aitzindarien adierazgarri

17 emakumek 1969an emakumeendako sortutako lehenengo kooperatiba izan zen Auzo Lagun. Orduko gizarte arauen kontra egin zuten, eta ezkondu ondoren ere etxetik kanpo lan egiteko eskubidea aldarrikatu. Aitzindaritzak emaitzak eman zituen

Miren Arregi ARRASATE

Euskal Herriko lehenengo emakume ekintzaileak izan ziren. Orduko gizarteko arau eta jarraibideei aurre egin eta etxetik kanpo lanean hasiko zirela erabaki baitzuten. 17 emakumek emakumeendako sortutako lehen kooperatiba ere izan zen Auzo Lagun. Ibilbide oparoa izan du enpresak, iaz urrezko ezteiak oso osasun onean ospatzera iristeraino eta hori, emakume ausart batzuen lanari esker izan da. Emakume haien balentria ulertzeko, garrantzitsua da 1960ko hamarkadara salto egitea. Garai hartan, emakumeak ezkontzeaz bat uzten zion lan egiteari. Orduz geroztik, haren egitekoa etxearen eta seme-alaben zaintzara mugatuko zen. Baina, horrekin ados ez, eta etxetik kanpo lan egin gura zuten 17 emakume batu egin ziren Auzo Lagun sortzeko. Sukaldaritza eta garbiketa zerbitzuak eskainiko zituzten. "Lau orduko jardunak egiten zituzten kontziliazioarekin bateragarri izateko. Egokitzen zen emakumearen beharretara", gogoratu du Arantxa Lizasok, hainbat urtez kooperatiban lanean arituak. "Emakume ausartak izan ziren oso. Errekonozimendu barik aritu ziren sarri. Soldata oso txikiekin,



Arantxa Lizaso. ARANTXA LIZASO



Arantxa Lizaso, Auzo Lagunen, 2005ean, erretiroa hartu aurretik. ARANTXA LIZASO

azken finean, senarraren soldatari ekarpen bat egiteko balio izaten zuen hasiera baten".

Umezaintzaren sorrera

Auzo Lagunen sorrerak ekarri zuen Gipuzkoan ireki zen lehen haurtzaingegiaren sorrera: Arrasateko Umezaintza. Auzo Lagunen lanean ziharduten emakumeen seme-alabei zaintza eta arreta eskaintzeko sortu zuten hura. Urte haiek barru-barrutik bizi izan zituen Lizasok, 1973an ekin baitzion Arrasateko Umezaintzan lan egiteari, 27 urterekin, zerbitzua sortzeaz batera. "Umezaintza Auzo Lagunek sortu zuen, kooperatiban lanean zeuden emakumeen seme-alabei zerbitzu emateko. Gipuzkoako lehenengo haur eskola izan zen". Auzo Lagun aitzindari izan zen, eta berebiziko garrantzia izan zuen. "Auzo Lagun eta Umezaintza izan ziren aurrerakuntza handia emakumeen lan munduratzeari", dio Lizasok eta nabarmendu nahi izan du haien borroka. "Sarri, familiaren eta inguruko pentsaeraren kontra egin zuten, eta gizarteak ezarritako zituen kanonen kontra". Auzo

Lagun sortu zuten emakumeekiko esker hitzak besterik ez du. "Auzo Lagunek bidea zabaldu zuen, askatasuna, norbere buruaren jabe egitea ekarri zuen, eta hori oso garrantzitsua izan zen. Niri etorri zitzaidan gehiena eginda. Baina hasieran sartu ziren emakumeak gutxietsi egin ziren. Gero, jendeak ikusi zuenean hori aurrera zihoala etorri zen onarpen bat".

Betidanik ekintzaile

Arantxa Lizasok berak ere argi zuen ezkondu ondoren lan egiten jarraituko zuela. Aurrez, erizain lan egindakoa zen. "Seguru asko, izango nituen arazoak nire inguruan, bai", dio, garai hartan bizitakoaz galdetuta. "Gauzak, baina, poliki-poliki aldatzen joan ziren. Emakumearen lana errekonozitzen hasi ziren eta bidea egin zen", erantsi du. Lizasok zazpi bat urte eman zituen Umezaintzan lanean eta Auzo Lagunen kalitate sistemak ezartzen hasi zirenean deitu zioten handik. Erretiroa hartu arte egon zen bertan, kalitateko arduradun lanetan. Garai hartako oso oroitzen politak ditu.



Arantxa Lizaso (ezkerrean) Arrasateko Umezaintzan. ARANTXA LIZASO

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Gure historia 1969an hasi zen, Arrasateko hamazazpi emakumezkoekin, eta gaur, lantaldearen %95 zarete. Ausolanen, esparru parekideak sortzeko lanean segituko dugu, errespetuzkoak, eta lana eta familia bateragarri egitera bideratuta; horrek bermatuko du gure emakumezkoak langile izatea, baina baita pertsona, ama, alaba, lankide eta lagun ere...

Gaurko eguna, zuentzat guztientzat!



Ana Maria Castro, asteon Bergaran eskainitako hitzaldian. M.S.

Urritasuna: oztopo baino gehiago, ezaugarri soil

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, urritasun intelektuala edota gaixotasun mentalen bat duten emakumeen eskubideak izan dituzte berbagai asteon Bergaran, Ana Maria Castro desgaitasun eta mendekotasunean adituak eskainitako hitzaldian

Maialen Santos BERGARA

Martxoaren 8aren bueltan antolatutako egitarauaren baitan egin dute hitzaldia asteon, Goienetxe Fundazioak antolatuta. Ana Maria Castro desgaitasun eta mendekotasunen arloan espezializatutako abokatu galiziarak eskaini du, eta urritasunen bat duten emakumeak edota gaixotasun mentalen bat dutenak

izan ditu ardatz *De ser mujer con discapacidad a ejercer de mujer* izeneko hitzaldian.

Castrok berak GOIENari azaldu dionez, "desgaitasun bat duten emakumeen ahalduntzean" jarri nahi du arreta, pertsona horiek "benetan direnaren arabera jardun dezaten". Izan ere, bere aburuz, ez da berdina soilik emakume izatea edo emaku-

me izan eta emakume gisara jardun ahal izatea. Hala, gogora ekarri nahi izan du emakume desgaituek sarri instituzioen eta gizarte osoaren laguntza behar izaten dutela pertsonalki garatu ahal izateko; eta laguntza hori beren eskura jartzea gizarte osoari dagokiola. "Zenbait emakume ezin dira aurrera irten inguruko babesik izan gabe.

Beren eskubideen alde borroka egin nahi dugu, merezi dutelako".

Urritasunen bat duten emakumeen eskubideak zeintzuk diren errepasatu gura izan du Castrok. Haatik, besteak beste, parekidetasunaren alorrean jarri nahi izan du azpimarra: "Pertsona desgaitua ez litzateke diskriminatuta sentitu beharko ezaugarri hori izateagatik". Gaineratu duenez, pertsona guztiek aukera berak izan beharko litzukete, norberaren ezaugarriak "kontuan" hartu gabe.

Feminismoa ere berbagai

Ana Maria Castrok hitzaldian azaldu duenez, gizonezkoekin alderatuta sarritan emakumeek pairatzen dute diskriminazioa, bizitzako alor ezberdinetan. Hala, borroka feminista zaila bada, "are zailagoa da desgaitasuna duten emakumeen borroka", adierazi du. Horren harira, emakumeen eta gizonezkoen arteko soldata arrakalaren inguruan jardun du, eta, bere aburuz, "aurrerapausoak ematen ari diren arren, oraindik izugarriko lana dago egiteke". Era berean, amatasunari edota bikote harremanei ere egin die tartea. "Desgaitasun bat izateak ez luke traba izan beharko. Ama izan nahi duenaren nahia errespetatu egin beharko litzateke, eta hori ez da beti gertatzen", dio, irmo. Hala ere, "beste kontu bat da" ama izan nahi duen hori haur bat zaintzearen ardurara bere gain hartzeko prest ote dagoen "ez bakarrik ekomomikoki, baita bestelako gaitasunei dagokienean ere".

Behin amatasunaren gaia landuta, sexualitatearen gaia ere jorratu gura izan du, orokorrean. Abokatuak dio gizarteko "pertsona orok" dituela behar sexua-

lak: "Zerbait biologikoa den heinean, ez dago salbuespenik". Horren harira, dio gizon eta emakume guztiek dutela -hala nahi izanez gero- bikote harremanak izateko aukera, baita bikotekidea aukeratzeko ere. "Urritasuna dutenei ere ez lioke inork esan beharko norekin egon behar edo egon behar ez duten; beraiek badute aukeratzeko gaitasuna eta eskubidea", azaldu du.

Hitzaldi parte-hartzailea

Hitzaldira gerturatu direnen artean, herritar soilez gain, elkarrekin ezberdinetatik etorritako erabiltzaileak izan dira nagusi. Hitzaldian aktiboki parte hartzen jardun dute horiek -urritasunen bat duten pertsonak gehienak-, eta bat edo beste ere animatu da anekdota pertsonalak ingurukoekin elkarbanatu eta abokatuaren aholkuak entzutera. Galderetarako tartea ere izan da, gainera.

Hizlariak berak adierazi du "gustura" egon dela bergararren hizketan, eta sarri egiten dituela horrelako hitzaldiak; batzuk urritasuna dutenekin lan egiten duten profesionalen zuzendutakoak; eta beste batzuk, aldiz, desgaitasuna dutenei eta herritarrei zuzendutakoak. Bestelakoan, urritasunen bat duten emakumeen aurka egiten diren delitu sexualen arloan jardun du lanean, abokatu. *Xuristas de Galicia por la inclusión* elkartearen sortzailea ere bada.

DESGAITASUNEN BAT DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZEAN JARRI DUTE ARRETA HITZALDIAN



"Oso emakume gutxi dago zuzendaritzetan"

NEREA IBAÑEZ ASPEGI ELKARTEKO PRESIDENTEA

Enpresetako zuzendaritza taldeetan eta administrazio kontseiluetan emakumeen presentzia handitzeko lanean dihardu duela 20 urtetik Gipuzkoako Aspegi elkarteak

Miren Arregi OÑATI

Aholkularia eta kudeaketan aditua da Gipuzkoako Emakume Enpresari, Profesional eta Zuzendarien Elkarteko (Aspegi) presidente Nerea Ibañez. Hain zuzen, Martxoaren 8aren bueltan, Oñatin izan da.

Zer da Aspegi?

Duela 20 urte sortutako elkarte bat da, arlo ekonomikoan eta profesionalen aukera eta eskubide berdintasunaren alde lan egiten duena. Aldaketa soziale-rako tresna bat gara, denbora behar duen aldaketa baterako tresna. Urte hauetan guztietan ikusgarritasuna irabazi dugu, bazkide kopurua handitu, iniziatibak bultzatu, baina horrek ez du esan gura helburua lortu denik. Une honetan 650 bazkidetik gora gara, eta gure lana babesten duten erakunde eta enpresen kopurua gehituz doa.

Izan ere, zein da zuen egitekoa?

Gure lana da emakumea alor profesional eta enpresarialera sartzeko iniziatibak bultzatzea. **Zenbat emakume daude zuzendaritzan postuetan Gipuzkoan?**

Tamalez, datuek diote asko dugu hobetzeko arlo horretan. GINI txosteneko desberdintasun indikatzaileak neurtzen dituen txostena azken datuek Gipuzkoa Finlandiaren maila berean ipini



Nerea Ibañez, martitzenean, Oñatin. TXOMIN MADINA

dute berdintasunari dagokionez, Espainiaren oso gainetik; hala ere, eremu profesionalean asko dugu hobetzeko. Zuzendaritza postuetan dauden emakumeen kopuruak oso kezagarriak dira. EAE arlo horretan Ceutaren eta Melillaren atzetik dago.

Zer dela eta?

Batetik, oraindik ere, zaintzaren ardurak emakumeek hartzen dituztelako. Emakumeok enpresarekin, ikerketarekin eta beste arlo profesional batzuekin lotutako goi mailako ikasketak egiten ditugu gaur egun, baina espazio

publikoaren konkista egiteko dago. Horrek badu zerikusia publikoaren eta pribatuaren arteko banaketarekin. Publikoa denak –politika, boterea, kultura...– gizonezkoarekin lotuta egoten jarraitzen du eta pribatuak –zaintza, etxeko lanak...– emakumezkoarekin. Gainera, neurri politikoak ere falta dira, gardentasun falta handia dago goi postuetara bideratutako promozioetan eta emakumeak ez dira hain proaktibo azaltzen. Ez hori bakarrik, maskulinitatea baita nagusi gizartearen.



Emakume ekintzaileak ikusarazi

Emakume ekintzaileen lana izan dute berbegai astean, Oñatiko osoko bilkuren aretoan egindako mahai inguruan. Pili Kaltzada kazetariak zuzenduta, Aspegiko, Gipuzkoako Emakume Profesional eta Enpresari Elkarteko, presidente Nerea Ibañezek eta Gipuzkoako Foru Aldundiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako zuzendari Miren Elgarresak hartu zuten parte mahai inguruan, Oñatiko belaunaldi ezberdinetako hiru emakume ekintzaileekin batera. Eta esperientziak partekatuz, ekintzaile izatearen erronkak eta zailtasunak eta kontziliazioa izan ziren landutako gaiak. Esaterako, gizartearen aurrerapauso ugari egin diren arren, estereotipo batzuek oraindik ere bere horretan jarraitzen dutela eta emakume ekintzaileek egiten duten lana ikusarazi beharra nabarmendu zituzten.

Egoera horretan, zein garrantzi dute kuotek?

London School of Economics-en ikerketa batek dio kuotek nabarmen hobetzen dutela zuzendaritza taldeen konpetentzia maila. **Aldiz, sarri jartzen dira horiek zailantzan.**

Askok dago egiteko eta erronka bat dugu esku artean; bidea denok elkarrekin egitea. Berdintasuna pertsona guztien betebeharra da eta modu bakarra gizarte bezala garatzeko. Eztabaiden gainetik, pertsona guztion lanaren beharra azpimarratzen dugu elkartetik.

Zeintzuk dira orain erronkak?

Lanean jarraitzea emakumeek zuzendaritza eta administrazio kontseiluetan duten presentzia areagotu dadin. Horretarako programa oso bat diseinatu dugu, laster martxan jarriko dena.

**BERDINTASUNA
PERTSONA GUZTIEN
EGITEKOA DA, GIZARTE
GISA GARATZEKO
MODU BAKARRA**

Berdintasunaren alde!





Erreterian egindako liburuaren aurkezpena. OIHANA ETXEBARRIETA

Espetxea gogoeta gai, ikuspegi feministatik

'Argi-izpiak txarrantxen artean. 14 begirada kartzela feminismotik birpentsatzeko' liburua aurkeztuko du Oihana Etxebarrietak –egileetako bat– hilaren 18an Arrasateko Kulturaten, 19:00etan; Mugimendu Feministarekin batera, Sare ere bada antolatzaile

Julen Iriando ARRASATE

"Emakume espetxeratuek bizitzen dutena" azaleratu nahi duten "ikerlanen bildumatxo bat" –aktibismotik zein akademiatik egindako lanak– da liburua, "espetxe sistemak haiengan dituen eraginen ingurukoa", argitaratu duen Udako Euskal Unibertsitatearen aurkezpenak bere lehen lerroetan dioenez.

Aurreko urte amaieran ikusi zuen argia Oihana Etxebarrietaren, Maria Ruizen eta Laura Vararen lanak, eta gaiaren gaineko hausnarketa eragitea du helburu. "Izan ere, eztabaida sustatu, gogoeta kolektiboa bultzatu eta gizartean gaia azaleratzen segitu nahi dugu; betiere, analisi feminista bidelagun izanik", diote.

Askotariko iritzi eta ikusmoldeak jasotzen ditu liburuak: espetxe sistemaren izaera diskriminatzaileari buruzkoak; itxialdiari aurre egiteko emakume espetxeratuek dituzten erresistentzia mekanismoen gainekoak; euskal gatazkarekin lotutakoak. Guztioi buruz jardungo dute hilaren 18an Arrasaten egingo duten aurkezpenean.

"Erlazio lesbikoak oso ohiko bilakatzen dira espetxean"

OIHANA ETXEBARRIETA LIBURUAREN EGILEETAKO BAT

Oihana Etxebarrietarekin (Hondarribia, 1987) batera, *Argi-izpiak txarrantxen artean. 14 begirada kartzela feminismotik birpentsatzeko* liburuaren aurkezpenean euren testigantza emango duten beste lagun batzuk ere egotea da asmoa. Gaiaren gaineko solasa eragitea nahi dute, liburua aurkezteaz gain.

Ze gai jorratzen dira 14 begirada horien artean?

Idea desberdinak dira, eta batzuetan elkarren artean eztabaidan sartzen direnak, gainera. Hori nahi genuen, eztabaida sustatzea. Zenbait bloke nagusitan bana daiteke liburua. Lehenengoak egiten

du espetxe sistemaren azterketa ikuspuntu feminista batetik; sistemak nola zigortzen dituen hiru aldiz emakumeak: sistema penalak genero osagai argiak ditu; badago, baita ere, jendartearen partetik zigor sozial bat, emakume bezala delitu bat egin dutelako; eta zigor pertsonal bat, *emakume txar*



OIHANA ETXEBARRIETA

izate horrek nolako estigma sortzen duen. Bigarrenak aztertzen du euskal emakume preso politikoen gaia. Eta baita espetxea kanpotik bizitzea tokatzen zaien emakumeena, zaintzaren rol horrekin lotutakoekin; itxarongeletan ikusten dugu, adibidez, gizonezko presoengana bisitan doazenak emakumeak direla, baina emakume presoengana doazenak ere bai asko eta askotan –ez hainbeste preso politikoen kasuan–; nola ulertzen dugun emakumeak direla zaintza horretaz inkondizionalki arduratzen direnak, emakumeak errazago dira abandonatuak. Bestetik, emakume presoekin lanean ari diren elkarten hitzak ditugu.

Baina argi-izpiak ere aipatzen dituzue liburuaren izenburuan. Erresistentzia mekanismoez ere badiharduzue; maitasunaz, esaterako.

Espetxean biziraun ahal izateko hainbat mekanismo jartzen dituzte martxan presoek beraiek. Emakumeen kasuan, askotan, kanpoko afektibitate horren faltan, edo dituzten behar afektiboak bestela osatzen jarraitzeko bilaketa horretan, erlazio lesbikoak oso ohiko bilakatzen dira espetxean, espetxearen gogortasunari aurre egiteko samurtasuna oso garrantzitsua delako.

Zer moduzko harrera izaten ari zarete?

Egin ditugun aurkezpenak oso politak eta bereziak izan dira, harrera oso ona izan dugu. Jendeak badauka gogoeta honetaz eztabaidatzeko, badauka gogoeta emakumeak eztabaida honen erdigunean kokatzeko. Beste hainbat herritatik ere deitu digute.

goiena
seguru bizi
goiena
enpresak

Parekidetasunaren alde

Martxoaren 20an 'Ttap' berritua!

Edizio bateratua
Diseinu berritua
Erreportajeak
Kolaboratzaile berriak
'Gorabeherak' websaila...

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu
astero zure mugikor
edo tabletan



Zaldibarkoa aztertze-ko eskaera bateratua

Zabortegian gertatutakoa sakon aztertu behar dela uste dute Udalean ordezkari- tza duten bi talde politikoetako ordezkari- ek. Elgetako Udala Durangoko epaite- gian irekitako aurretiazko diligen- tzien instrukzio fasean pertsonatu- ko dela jakinarazi dute

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Bederatzi puntu jasotzen ditu batera aurkeztu eta aho batez onartutako adierazpenak. Idatzi horretan, beharrezkoak diren baliabideak eskatzen dira bai desagertuta dauden bi behar- ginak aurkitzeko zein lan horietan dihardutenen segurtasuna bermatzeko. Egindako bestelako eskaeren artean daude, baita ere, hondakinen kudeaketaren arloan beharrezkoa den kontrola, lan baldintzetatik eratorri- tako istripuak saihesteko neu- rriak eta ingurumenean sortu- tako kalteen inguruko jarraipen zorrotza.

Hala, hainbat eskari egin ditu Elgetako udalbatzak. "Gertatu- takoak datozen asteetan izan dezakeen eraginarekin kezka- tuta eskatzen dugu Elgetan har- tu diren airearen laginen ana- lisiaren emaitza zehatzak izatea, baita laginok non eta noiz har- tu diren azaltzea ere (...) Eskatzen dugu, halaber, Verter Recycling zabortegiko hondakinen karak- terizazio zehatza egitea eta hon- dakin horiek nonbaitera erama- tekotan nora eramango diren argitzea (...) Azkenik, adierazi nahi dugu horrelako larrialdi bat gertatutakoan beharrezko dela instituzioen arteko kolabo- razioa eta larrialdi eremu bate- tik hurbil dauden udalerriak -Elgetaren kasua lekuko- hasieratik kontuan hartu eta in- formatu behar direla".

Durangoko lehenengo instruk- zio epaitegian irekitako aurre- tiazko diligenzien instrukzio fasean pertsonatuko da Elgeta- ko Udala. Horrekin batera, mar- titzeneko osoko bilkuran onar- tutako adierazpen instituziona- la bidaliko da Zaldibarko, Er- muko, Mallabiko eta Eibarko udaletara, eta baita ere Lehen- dakaritzara, Ingurumen eta Osasun sailetara, Bizkaiko Foru Aldundira eta Verter Recycling 2002 SL enpresara.



Elgetako udalbatza, martitzenean egindako osoko bilkuran. L.Z.L.

ELGETAN HARTUTAKO AIREAREN LAGINEN ANALISIAREN EMAITZA ZEHATZAK IZATEA ESKATU DUTE

Udal dirulaguntzen plangintza

Osoko bilkuran hartutako bes- telako erabakiei dagokienez, hasierako onarpena jaso du Udaletik emandako dirulagun- tzak arautuko dituen plan es- tratetikoa. "Badaude hainbat dirulaguntza ohituraz eman izan direnak, eta plan honen helbu- rua da ordenatu eta publiko egitea zer eta nola emango duen Udalak. Ze ehunekotan lagun- duko den, erabakia zein batzor- detan hartuko den... besteak beste, aukera berdintasuna bermatzeko", azaldu zuen Iraitz Lazkano alkateak.

Oposizioak faltan igarri du plan horretan negozio berri bat martxan jartzeko dirulaguntza programa. Proposamena jaso eta aztertu egingo dela erantzun zuen alkateak. Etorkizunean moldaketa egiteko aukera ba- dagoela esan zuen.

Kolunbarioa hilerrian

Hilerrian egitekoa den kolun- barioaren erabilera arautzeko ordenantzak ere hasierako onar- pen jaso du. 40 nitxo izango ditu, eta hamar urteko erabile- ra izango dute, beste hamar urteko luzapena eskatzeko au- kerarekin.

Informazio batzordeen eredua

Bestelakoetan, batzordeen eredua berrikusteko eskaera egin zuen oposizioak. Aintzane Oiarbidek esan zuen hainbeste batzorde egotearen arrazoia herritarren parte hartzea erraztea bada, ez dela lortzen. "Hilabeteotan iku- si dugu herritarrek apenas har- tzen dutela parte", esan zuen. Lazkanok erantzun zion nahiko lukeela parte hartzea handiagoa izatea, eta horrela ez bada ere eta kontuan hartuta batzordeak erabaki gune direla garrantzitsua dela aukera ematea. "Guretzako lan gehiago dakarrela? Bai, egia da", esan zuen. Oiarbideren us- tez garbi ikusten da elgetarrek ez dutela batzorde eredu- an interesik. "Asmoa bada jendeak parte hartzea, beste eredu- ren bat proposatu beharko duzue", amaitu zuen.



Ez dira pasako bideokliparen grabaketan, Elgetan. BRIGADE LOCO

Elgeta protagonista Brigade Locoren bideoklip berrian

'Ez dira pasako' bideoklip berriaren aurkezpena egingo du taldeak gaur, Espaloia Kafe Antzokian, 19:30ean

Amaia Aranegi ELGETA

Memoria historikoa jorratzeko asmoz, 36ko gerran Elgetako Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen gatazka ekarri nahi izan du gogora tal- deak, eta, hain zuzen, Elgetako lubakiak izan dira bideoklip berriaren kokaleku.

Abuztuan murgildu zen taldea proiektu honetan, eta, grabake- ta egunak bi izan baziren ere, hilabete batzuk jardun zuten prestaketa lanetan. Guztira, 60 pertsona inguruk hartu zuten parte grabaketan; 40 aktore lan- etan eta besteak laguntzaile.

"Euskal Herriko herri desber- dinetako lagunak eta ezagunak etorri ziren", dio taldeko Oierrek.

Elgetako Udalarekin eta In- txorta 1937 kultur elkartearekin aritu da taldea elkarlanean. "Udalak erraztasun eta laguntza asko eman zigun; aktoreentzako jantziak utzi zizkigun, besteak beste".

Aurkezpen ekitaldia

Bideoklipa aurkezteko ekitaldia egingo dute gaur, 19:30ean, Es- paloia Kafe Antzokian. Bertan, bideokliparen xehetasun guztiak azalduko ditu taldeak.

100 lagunetik gora bilduko ditu Ibiltarien Jaiak, domekan

Euskal Herriko Mendi Federa- zioak antolatuta, Ibiltarien Jaia egingo dute Elgetan domekan. Euskal Herriko iraupen luzeko ibilaldien 18. zirkuitua izango da, eta, goizeko zortzietan kirol- degitik abiatuta, Elgetako men- di tontor guztietatik igaroko dira; Intxorta, Erdella, Egoar- bitza eta Azkonabitza.

Mendi ibilaldiaren amaieran, 14:00etan, 2019ko finalistei di- ploma banatuko zaie eta gero bazkaria egingo dute. Euskal Herriko herri desberdinetatik etorritako 100 mendizale baino gehiago elkartuko dira domekan Elgetan, eta guztiek hogeita bost kilometroko mendi irteera egin- go dute.

OHARRAK

Erretiratuen batzarra

Xalbadorpe elkarteak urteko batzarra egingo du hilaren 12an, eguena, 17:00etan, Ozkarbin. Gaien artean dira zuzendaritza aldaketa eta estatutuen 30. artikulua aldatzea.

Erraldoia sortzen

Gaur, 18:00etatik 20:00etara, hirugarren lan saio irekia ludotekan. Erraldoiaren estruktura egitea da asmoa.

Zuzenketa

Itzulia apirilaren 6an pasako da Elgetatik, eta ez gaur, martxoak 6. Aurreko asteko akatsa zuzentzeko oharra da honako hau. Barkatu eragozpenak.



Bergara Oinez-en bigarren denboraldiaren aurkezpenean parte hartu zuten eragileetako ordezkariak, Agorrosinen. MIREN ARREGI

Jarduera fisikoa sustatu eta bakardadeari aurre egitera datorren ekimena

Bergara Oinez ekimenaren bigarren edizioa martxoaren 12an abiatu eta azaroaren 26an bukatuko da, ordubete inguru iraungo duten herri barruko hamabost irteerarekin; Osasun Sareak ahalik eta herritar gehien erakarri nahi ditu eguen goizetako txangoetara

Jokin Bereziartua BERGARA

Bizimodu osasungarria sustatzea eta sozializaziorako aukera berriak eskaintzea. Hori da, bi hitzetan, Bergara Oinez ekimenaren funtsa. Osasun Sareak iaz antolatu zuen lehenengoz eta lehen edizio horrek izan zuen arrakasta ikusita, aurten errepikatu bakarrik ez, ekimena indartzea erabaki dute.

Baina zer da Bergara Oinez? Bada, eguenetan Agorrosin Kirol Gunetik 10:15ean abiatzen diren eta ordubeteko edo ordu eta laurdeneko iraupena duten paseoak. Irteera bakoitza herriko elkarte edo eragile batek antolatzen du eta amaieran hamarretakoa egiten dute Agorrosingo tabernan.

Osasun Sarea, pozik iazkoarekin Udaleko Kirol teknikariburu Iñaki Ugartebururen arabera,

Osasun Sareko kideak "pozik" geratu ziren iazkoaren balorzio egiteko orduan: "Ekimenak sortutako giroarekin eta hamar irteera antolatu izanarekin pozik geratu ginen, eta ondorioetako bat izan zen gero eta jende gehiagora heltzea komeni dela. Hala, bigarren ediziorako hamabost irteeratan jarri genuen helburua, eta, horretarako, elkarte gehiago behar genituen irteera berri horien antolaketaz arduratu daitezen; lortu dugu lau elkarte gehiago erakartzea". Lau eragile berri horiek dira Jardun elkarte, Bergarako

IRTEERAK EGUNETAN DIRA, AGORROSINEN HASI ETA BUKATUTA; AMAIERAN, LUNTXA DAGO GUZTIENTZAT

farmaziak, Aspace eta Donostiako Goyeneche Fundazioa.

Sozializaziorako aukera berriak Jarduera fisikoa gain sozializaziorako aukera berriak eskaintzen ditu Bergara Oinez ekimenak. Hain zuzen, ideia hori nabarmendu zuen Duintasuna elkarte Itziar Usandizagak eguaztenean egindako aurkezpenean: "Badaude taldetxo edo kuadrillatxo batzuk, emakumezkoen osatutakoak gehienak, ohitura dutenak maiz paseoa joateko. Baina badira bakarrik dauden pertsona asko -emakumeak gehienak-, eta Bergara Oinez ekimena oso aukera ona da bakardade horri aurre egiteko; ibilaldi hauek onura handiak dituzte". Erretiratu eta pentsionistek astelehen eguerdiro elkarretaratzea egiten dute San Martin plazan "pentsio

Jardunek debuta, San Joxepe berriro



MAITANE ARIZABALETA
JARDUN EUSKARA ELKARTEA

"Aurten animatu egin gara, Jardun halako ekintzetan ere egon behar delako. Bi irteera antolatu ditugu: bazkide helduei zuzendutakoa bata; eta bestea, uztaillean udalekuak kudeatzen ditugula aprobetxatuta, herriko umeak edadetuekin batera jarriko ditugu. Ariketa interesgarria izango da, ziur".



ROBERTO KAREAGA SAN
JOXEPE ERRETIRATU ELKARTEA

"San Joxepetik iaz parte hartu genuen eta oso pozik gaude ekimenak eman zuenarekin. Horregatik, ezagutzen ez dutenei parte hartzea animatu nahi ditugu. Izan ere, ibilaldi osasungarriak izateaz gain, sozializatzeko eta harreman berriak egiteko aukera ematen dute irteera hauek".

Iaz, hamar irteera; aurten, hamabost

Jardun, farmaziak, Aspace eta Goyeneche Fundazioa batu dira aurten ekimenara. Iaz, hamar irteera antolatu ziren, eta aurten, hamabost antolatzea erabaki dute. Irteera guztiak, irailaren 20koa izan ezik, eguenetan izango dira, Agorrosindik irtenda (10:15).

- **Martxoak 12:** San Joxepe erretiratu elkarteak antolatuta.
- **Martxoak 26** Bularreko eta ginekologiako minbiziaren aurka diharduen Kattalin elkarteak antolatuta.
- **Apirilak 16** Osasun publikoak antolatuta (anbulatorioa).
- **Apirilak 30** Jardun euskara elkarteak antolatuta.
- **Maiatzak 14** Aranzadi ikastolak antolatuta.
- **Maiatzak 28** Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatuta.
- **Ekainak 11** Duintasuna pentsiodunen elkarteak antolatuta.
- **Ekainak 25** BPX kirol zerbitzuak antolatuta.
- **Uztailak 9** Jardun euskara elkarteak antolatuta.
- **Irailak 10** Donostiako Goyeneche Fundazioak antolatuta.
- **Irailak 20 (domeka)** Aspacek antolatuta.
- **Urriak 8** Bergarako farmazien elkargoak antolatuta.
- **Urriak 22** Mariaren Lagundia ikastetxeak antolatuta.
- **Azaroak 12** Osasun publikoak antolatuta (anbulatorioa).
- **Azaroak 26** Mariaren Lagundia ikastetxeak antolatuta.

duinak" eskatzeko eta Usandizagak dio ibilaldion berri ematen dutela kontzentrazio horietan ekimenak dituen "abantaila handien" berri emateko.

Eguen goizetan izanda, paritaideen gehiengoak erretiratuek osatzen dute, baina antolatzaileek

zehaztu dute "erabat irekiak" direla deialdiak. "Ibilaldi errazak eta gorabehera gabekoak dira, eta erritmo ezberdinetan egingarriak. Batzuk arinago badoaz ibiltzeko ohitura dutelako eta beste batzuk geldoago, ez dago inongo arazorik; begiraleak beti egongo dira laguntzeko gertu. Aukerak emango ditugu nahi duenak parte har dezan", azaldu du Ugarteburuk. Ibilaldiaren amaieran ez da hamarretakorik faltako; horregatik, aldeztu aurretik izena ematea komeni da, Agorrosinen eta San Joxepen.

LAU ERAGILE BERRI BATU DIRA: JARDUN, FARMAZIAK, ASPACE ETA GOYENECH FUNDAZIOA

"Segurtasunagatik" kimatu dituzte 45 ezki

Matxiategi pasealekuak ezohiko itxura dauka egun, azken asteotan bertako ezketan kimatze-lan garrantzitsuak egin direlako; Udalak dio "segurtasun arrazoiengatik" kimatu dituztela, zuhaitzen altuera txikitzeko eta etorkizuneko erorketak ekiditeko

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako Udaleko langileek Matxiategi kaleko pasealekuko 45 zuhaitzetan kimaketa lanak bukatu dituzte. "Segurtasun arrazoiengatik" kimatu dituzte, horietako batzuek ustelduta zeuden sintomak zituztelako.

Udal Gobernuak azaldu duenez, 2019ko neguan Matxiategiko zuhaitz bat erori ondoren eta aurretiaz ere beste bat erori zenez, Udalak teknikari espezializatu bati eskatu zion bertako ezkien egoerari buruzko ebaluazioa egiteko, halako kasuetan erabili ohi den prozedura jarraituta. Erresistografoarekin neurtu ondoren, egurrean akatsak eta ustelduren sintomak aurkitu zituzten, hausteko edo erortzeko arriskua izatearen adierazle izan daitezkeenak.

Altuera gutxitzeko erabakia

Teknikari espezializatu horren ebaluazioak ondorioztatu zuen zuhaitzen bizitasun-mailan ez dagoela arazo berezirik, baina arriskuak ekiditeko neurri zuzentzaile bezala txostenaren ondorioetan proposatzen zen ezkien adaburuak edo gainaldeak beharrezkoak, zuhaitzen altuera gutxitzeko eta, modu horretan, hausturak eta erorketak ekiditeko. Txosten horretako emai-



Matxiategiko pasealekuko hainbat zuhaitz kimatu dituzte. B.U.


tzetan oinarrituta, 45 ezkitan egin da interbentzio hori. Gogoratu behar da duela urtebete pasa etxebizitzaren fatxadetatik gertuen dauden ezkien erdiak kendu egin zirela, ahul zeudelako edota bizilagunek hala eskatu zutelako.

EAJ kexu, ez zuelako gaiaren berri Matxiategiko ezkiak kimatzeko erabakiaren berri eman ez izana salatu zuen EAJk otsailaren 24ko osoko bilkuran. Jeltzaleek "gardentasunik eza" leporatu zioten Udal Gobernuari, "aspal-

dian" egin den "kimatze-lan handienetako baten berri" ez emateagatik. "Alkateak, kargua hartzerakoan, oposizioa taldeekin kontatuko zuela esan zuen, besteak beste. Esan dezakegu hori ez da horrela, eta hainbat gaitan nabarmen geratu da hori".

Kritika horren aurrean Gorka Artola alkateak adierazi zuen Matxiategiko kimatze lanetarako "ohiko prozedura tekniko" jarraitu dela: "Uste dugu batzordeetan gaiak lantzeko aukera eskaintzen dugula, eta bide horretan jarraituko dugu".

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Pozik, anbulatorioan liburuak jartzeagatik



Herriar batek esker ona adierazi du anbulatorioko itxaron gelan liburuak eskura daudelako. "Askotariko" liburuez gain, liburutegien neguko gida bertan egotea bereziki eskertu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Laburbirak hilaren 25ean egingo du geldialdia Bergaran

Goiena komunitatea

Jardun euskara elkarte / BERGARA

Badator Laburbira 2020! Euskarazko film laburren zirkuituak 17. edizioa beteko du aurten. Martxoaren 9tik apirilaren 8ra bitartean hainbat herri bisitatu ditu. Bergara martxoaren 25ean helduko da, Seminarixora (20:00), eta sarrera hiru euro ordaindu beharko da. Euskarazko bederatzi film labur ikusteko aukera paregabea dugu; zinemazalea bazara, ezin duzu galdu!

Bestalde, gogoratu Errigorako saskia eskatzeko kanpainaren azken eguna martxoaren 12a dela; Jardunen bulegoan edo www.errigora.eus webgunean eskatu daitezke.

Taula periodikoaren erakusketa, apirilaren 24ra arte zabalik

2019ko azaroaren 8tik Laboratoriumen dagoen *Taula periodikoa*: *unibertsoa osatzen duten elementuak* erakusketa apirilaren 24ra arte luzatu dute. Taula periodikoa herritarrei hurbiltzea du helburu erakusketak: "Ezagutarazi nahi dugu zenbaterainoko garrantzia izan duen taula periodikoaren asmakuntzak, eta, aldi berean, Elhuyar anaiei omenaldi bat ere bada; 1783an, Elhuyar anaiek wolframa isolatzea lortu zuten, Bergaran". Hiru atal ditu erakusketak: taula periodikoaren bilakaera; wolframaren aurkikuntza eta Elhuyar anaiek; eta oparotasunaren taula. Ikasleendako unitate didaktikoak ere aterako dituzte.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurritan
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

Erakusketako altzarietan eskaintza bereziak!



2018an *Guk emakumeok* izeneko erakusketan parte hartu zuten artisten talde argazkia, irekiera egunean. MARTXANTERAK

Arteak eta feminismoak bat egingo dute Aroztegin

Azken urteetako ohiturari eutsiz, Martxanterek herriko emakumeak protagonista dituen erakusketa antolatu dute; 'Amalurra' du izena aurtengoak, eta, gaurko inaugurazioaren ostean, hilaren 29ra arte herriko 21 artistaren lanak ikusteko aukera egongo da

Jokin Bereziartua BERGARA

Martxoaren 8aren bueltan hainbat ekintza antolatu dira Bergaran ere (ikus 22. eta 23. orrialdeetako egitaraua). Gaur, esaterako, herriko ikastetxe guztietako ikasleak izango dira protagonista, *Nire gorputza* da koreografia dantzatuta. Era berean, gaur irekiko da, Aroztegin (18:00), dagoeneko ohitura bihurtu den Bergarako emakume artisten erakusketa; hilaren 19ra arte egongo da zabalik. *Amalurra* du izena aurtengoak, eta lau azpigai jorratu dituzte: lur-eremua, migrazioa, emankortasuna eta materia. Irekieran, Kokoxa taldeak performance bat egingo du eta luntxa ere egongo da.

Herriko 21 artistaren artelanak

Bergarako 21 artistak hartu dute parte *Amalurra* erakusketan: Ana Abajo, Jone Albeniz, Itziar Albusua, Mari Paz Alustiza, Maite Arana, Leire Aranburu, Arantzazu Arregi, Maite Azkargorta, Justina Elempuru, Maite

Eraña, Idoia Etxarri, Alicia Garcia, Kontxi Idigoras, Mari Carmen

Ikerketa berezi bat gazteekin

Parekidetasunean bizitzeko eta indarkeria matxista gizartetik desagertu dadin belaunaldi berriengan heziketa "ezinbestekoa" dela sinistuta dago Berdintasun Kontseilua. Horregatik, ikerketa berezi bat abiatu dute ikastetxeekin elkarlanean: *Lanbideetako genero moldeak apurten* izena jarri diote diagnostikoari eta emaitzen aurkezpena eta mahai-ingurua egingo dute martxoaren 23an Irizar jauregian (18:00). Martxoaren 8aren bueltako azken ekintza izango da.

Laskurain, Selena Lizaraburu, Maialen Lopez, Ainhoa Martin, Usoa Mendikute, Maria San Vicente, Amaia Santamaria eta Mariluz Unzurrunzaga.

Grebarik ez, kaleak betetzera bai

Aurten greba feminista deitu ez arren kaleak betetzeko dei egin dute: "Ozen eta argi esango dugu: jendarte eredu hau ez da bizigarria pertsona gehienontzat, batez ere emakume eta genero disidenteontzat, eta jasanezina planetarentzat". Martxanterek "argi" dute borroka feminista "beharrezkoa" dela oraindik: "Horregatik joan ginen Hego Euskal Herrian urtarilaren 30ean greba orokorrera. Greba feminista emakume langileak antolatzeko bitarteko bat gehiago da, ez da helburu bat, beste eredu sozial eta produktibo bat salatzeko eta aldarrikatzeko tresna bat, eta ahalegin eraldatzaile horretan jarraitzen dugu". Etzi manifestazioa deitu dute San Martin plazatik, 12:00etan.

"Euskadin urtero 30 lagun hiltzea ezin da onartu, denon porrota da"

ALBERTO ALONSO OSALANGO ZUZENDARI OHIA

Legebiltzarkide izateko hautagai delako utzi du kargua

J.B. BERGARA

2016ko azaroaren 29tik 2020ko otsailaren 28ra arte izan da Osalango zuzendari Bergaran PSE-EEko zinegotzi den Alberto Alonso (Oñati, 1976). "Lan handiko" urteak izan direla dio, baina lanean hildakoen "arantzarekin" utzi du kargua: "Gizarte osoaren porrota da".

Zergatik utzi duzu Osalango kargua?

Arabatik [Gasteizen bizi da egun] legebiltzarkide izateko hautagaitzarekin bateraezina delako. **Nola baloratzen duzu egindakoa?** Lan handiko urteak izan dira. Harro nago 170 lankidez osatutako talde profesional eta konprometitu bat zuzendu izanaz; egoera oso latzei aurre egitea tokatzen zaie askotan, eta maiz ondorioztatzen dute neurriak bete izan balira istripua ekidin zatekeela. Hori oso gogorra da. **EAEn, oraingoz, 15 langile hil dira 2020an. Zerk egiten du huts?**

Laneko heriotza bat gizarte osoaren porrota da. Argi dago enpresariarena dela ardura zuzena, baina gizarte osoak du zeresana. Denoi dagokigu segurtasunik eza salatzea gure enpresetan, adibidez. Ez dut onartu nahi XXI. mendeko Europako herrialde



Alberto Alonso, San Martin plazan. GOIENA

garatu baten urtero 30 langile baino gehiago hiltzea lanean. Asko hobetu dugu, duela 25 urte 100 lagundik gora hiltzen zirelako urtero, baina ezin dugu heriotza bat bera ere onartu.

Zaldibarko zabortegearen aferan ohi moduan jokatu zuen Osalanek?

Bai. Han geunden langile kalte-tuak egon ahalko zirela enteratu ginenetik. Kasua hain konplikatu izanda, istripua ikertzeaz gain, arriskua prebenitzeko neurriak ere eskatu genituen han zeuden langileentzat -amiantoak, airearen kalitatea...-

OHARRAK

Udaleko langileek moztutako egurraren zozketa

2020an eta 2021an Udaleko mendi eta lorezaintza arloko langileek euren lanetan moztutako egurra emateko baldintzen berri eman du Udalak. Eskatera orria BAZen dago, udaletxeko sarreran.

Erramu Zapatua: bazkarirako txartelak salgai

Martxoaren 18an jarriko dira salgai, 12 eurotan, Iralan (19:00). Alergia edo behar berezirik izanez gero txartela erosteko orduan jakinarazteko esan dute. Bazkaria apirilaren 4an izango da, udal pilotalekuan (12:30). Antolatzailea: Txapa Irratia.

Erramu Zapatua: txorimalo erakusketa

Urtero moduan, txorimalo erakusketa antolatu du Jardun euskara elkarteak apirilaren 4rako. Ibargarai kalean jarriko dute erakusketa, 10:00etatik 12:30era. Izena emateko aukera egongo da martxoaren 23ra arte; Jardunen bulegoan, 943 76 36 61 eta 605 71 24 69 telefono zenbakietan edota *gaztejardun@topagunea.com* helbide elektronikoan eman daiteke izena.

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga

Maiatzaren 15era arte dago ordainketa egiteko. Argibide gehiagorako BAZera jotzeko eskatu dute, udaletxeko sarreran.

Rap eta reggae-dub doinua nagusi gaur

'Egubakoitzak berreskuratzen' ekimenaren baitan, Aia eta Aneguria eta Zitzada & Rlantz taldeek emanaldia eskainiko dute gaur Bergaran. 22:30ean hasita, rap eta hip-hop doinuz eta reggae-dub musikaz beteko da Kartzela Zaharra

Jone Olabarria BERGARA

Egubakoitzetarako kultura hitzorduak proposatzea helburu duen *Egubakoitzak berreskuratzen* kolektiboak beste bat antolatuko du gaurko Bergaran: Aneguria eta Zitzada & Rlantz ariko dira taula gainean Kartzela Zaharrean, 22:30ean hasita. Sarrerak bost euroren truke eskura daitezke.

Kartzela Zaharraren inguruan biltzen den gazte talde batek sortu zuen *Egubakoitzak berreskuratzen* ekimena iaz maiatzean, eta, aurtengo ikasturteari begira, irailetik ekainera bitarteko zikloa antolatu dute.

'Ene ba!', elkarlanean

Bakarlari bezala musikagintzan pairatzen dituzten egoera eza-seginen aurrean eta sentitzen duten hauskortasun profesionalari ekiteko batu dira Aia eta Aneguria, *Ene ba!* proiektuan, bizipoza eta musika grina partekatuz: "Ez da edonolakoa artistok partekatzen dugun bizipoz kutsakorra, musikaren bitartez transmititu, dantzatu eta egunez zein gauez jotzeko gaitasuna". Familiarekin "marianitotan dabilzanontzat zein gautxorientzat" kontzertuak ematen dituzte.

Aneguriaren kasuan, 17 urte zituela hasi zen rap musikaz

gozatzen; raparen eta raggamuffinaren artean kokatzen dira bere abesti eta inprobisazioak. Ordutik hona, proiektu ugari ibili da; 2013an La Basurekin batera Eskina Femeninaren fundatzaileetako bat izan zen, rap eta hip-hop kulturen emakumeen lana bistaratzeko ekimena, hain zuzen ere. Eskina Femeninaz gain, Lapiko klika eta La Dolce Rima talde eta proiektuen sortzaileetako bat izan da. 2018an ere, Bilbao BBK Liven eta Euskal Herriko jaialdietan parte hartu zuen, 2017an Banden Lehia lehiaketako irabazle izan ostean.

Aiamaren kasuan, piano-jotzaile eta abeslaria da. Bere bakarkako proiektuez gain, Aneguriarekin, Cumbia Radio Revolution euskal proiektuarekin, Zinneia proiektu elektronikorekin eta Larai bikote latinoarekin lanean ibili da.

'Azken argiak' lana

Era berean, Euskal Herriko reggae-dub musika taldea da Zitzada & Rlantz. Bilbon 2017an sortua, Zitzadak abeslari rola hartu eta Rlantz ekoizpenaz arduratzen da. *Azken argiak* azken lanaz gain, *Egun hotzak* (2018), *Teknologiaren menpe* (2018) eta *Bizi hontan gaude* (2019) lanak argitaratu dituzte.



Zitzada & Rlantz bikotearen *Marionetak* bideokliparen une bat. ZITZADA & RLANTZ

LANGILE ETA LANGABEENTZAT IKASTAROAK

%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE

FABRIKAZIO MEKANIKOA

IKASTARoen IZENAK	ORDUAK	DATAK
FMEM0055OH HIDRAULIKA	50	2020/03/09-2020/04/07
FMEM0012OH CAM POWERMILL	40	2020/03/09-2020/04/01
FMEM0032OH 3D INPRIMAKETA BIDEZKO EKOIZPENERAKO DISEINUA	15	2020/03/23-2020/03/30
FMEH0071OH SOLID EDGE II. MULTZOAK	30	2020/03/23-2020/04/07
LIF0879 PIEZAK TXORRIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK EGITEA	80	2020/04/21-2020/06/09
LIF0878 TXORRIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MAKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. KONBENTZIONALA	80	ZEHATZTU GABE
FMEM0040OH NEUMATIKA	40	ZEHATZTU GABE

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

ELEE018PO AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK	60	2020/03/23-2020/04/30
ELEB0004OH S7 ETHERNET ETA PROFINET	30	2020/05/04-2020/05/19
ELEB0005OH S7 PROFIBUS	20	2020/05/20-2020/05/28
ENAE0005OH EGUZKI-ENERGIA: INST.FOTOBOLTAIKOEN DINARRIAK	40	2020/05/04-2020/05/25
ELEG0001OH ARDUINO	45	2020/04/27-2020/05/20

EUSKO JAURLANITZA GOSIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAHIA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzua Servicio Vasco de Empleo

Fp FOMENTO DE EMPLEO

Unión Europea Fondo Social Europeo "El PSE ayuda a la Unión"

Agirrebidea, 2 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)
Tel.: 943 89 92 72 - 943 89 92 73 - ikastaroak@maltuna.eus

Hainbat gazte EIO orkestran

Bergarako Musika eskolako bost ikasle aurkeztu dira EIOko probetara aurrean, eta guztiek gainditu dute. Hala, Maitane Suina-ga biolin-jolea eta Uxue Garitano biolontxelo-jolea EIO orkestrako proiektuan izango dira, beste urte batez. Era berean, Beñat Askargorta, Alazne Suinaga eta Ion Aranburu EIO Txikiko partaideak izango dira.



Igerileku berriko zutabeak jaso dituzte

Eraiste lanak bukatzen dihardute Zubikoan eta, horiekin batera, igerileku berriaren zutabeak altxatzen eta solairu berria egiten. Obretan egon arren, udal kirol zerbitzua ona dela dio Kirol zinegotziak eta bazkide kopurua aurreikusitakoa baino hobea dela

Oihana Elortza OÑATI

Zubikoa kiroldegiko lanak badoaz aurrera. Igerileku berriak egongo diren eraikinaren alde botatzen, apurtzen, ari dira orain eta eraiste lanekin batera, putzu berriak egiteko oinarriak jartzen. Une honetan, ia bukatuta dituzte botatze lanak, eta igerileku berriak jartzeko zutabeak jasotzen ari dira. "Hemendik aurrera hormigoia garraiatzen duten kamioi gehiago ikusiko ditugu eta gutxiago obra-hondakina eramaten dutenak. Posteak altxatzen eta solairu berria eraikitzen hasi dira", dio Xabier Igartua zinegotziak.



Igerilekuko obrei eguaztenean ateratako argazkia. O.E.

Solairu berria egiten

Urtarrilaren hasieran ekin zieten eraikin zaharraren alde hori botatzeko lanei eta bi hilabete hauetan lanak "aurreikusita moduan doaz", Igartuaren esanetan: "Eraisketa fasearekin bukatzen ari dira egun eta espazio berria eraikitzen hasita

daude. Bestalde, argindarraren transformadorea, Oñargirena, kiroldegi barrutik kanpora atera dute eta laster, egun batzuk barru, jarriko dute martxan, barruko beste lan batzuekin jarraitu ahal izateko".

Eltziako balorazioa ona da

Eraisketa lan horiekin batera frontoiko eta kantxa berdeko teilatuak ere konpondu dituzte eta lan horiek dagoeneko amaituta daude. Gune horretako, kantxako, aldagelak berriez

da falta dena. Hori, baina, uda partean egingo dute, kantxen erabilera txikiagoa denean. Dagoeneko ia erabat zehaztuta dute aldagela berriak nolakoak izango diren eta Igartuak baieztatu duen moduan, txandaka berrikutuko dituzte, binaka.

Maite Anton Kirol zinegotziak, bestalde, gaineratu du obrak aurrera jarraitzen dutela eta kiroltako udal zerbitzua handia izaten ari dela. Gimnasioa, esaterako, Eltzian dago urtarilaren 13az geroztik, eta orain arteko sartu-irtena ikusita, balorazio positiboa egiten du Udalak, aurreikusita zuten baino erabiltzaile eta bazkide gehiago baitaude. Antonek esan duen moduan, otsailaren erdialderako datuak ikusita, pentsatutako baino erabiltzaile gehiago daude: "2.530 bazkide zeuden, 1.930 bat Oñatiko txartela dutenak eta beste 600 bat Mugiment txartela atera dutenak".

Antonek onartu du Eltziako erabiltzaileen kexu nagusia bai dela dutxarrik ez egotea, baina aldi berean, eskertu egin du jendeak egin dituen iradokizunak eta proposamenak. "Adibidez, fitbike gela hutsik dagoenean erabiltzaile orori irekitzea herritar baten proposamena izan da. Egun horrela egiten da, hau da, gela horretan saiorik ez dagoenean erabilera librerako zabaltzen da", zehaztu du Antonek. Kirol zinegotziak gaineratu du eskertzekoa dela proposa-

menak jasotzea eta horretara gonbidatu ditu herritarrek.

Arrasatera eta Bergarara

Herrian igerilekurik ez egon arren, Antonek dio herritar asko direla inguruko herrietakoetara joaten direnak, eta gustura dago kiroldegiko proiektua egiten ari diren bitartean ere kirola egiten jarraitzeko Udalak eskaintzen dituen baliabideez: "Jende asko ari da mugitzen Arrasateko eta Bergarako igerilekuetara, adibidez. Urtarrileko datuei kasu eginez gero, esaterako, 420 bat joaten dira Bergarara eta beste horrenbeste Arrasatera. Aretxabaletara ere joaten direla bada-kigu. Beraz, datu hauek guztiak ikusita, esango nuke zerbitzu duin eta ona ari garela eskaintze urte berezi honetan".

Xabier Igartua zinegotziak eskerrak eman gura dizkie herritarrei, obrak egin bitartean izaten ari diren pazientziagatik. Dio horrelako obra handietan sarri gertatzen direla ezustekoak; argi edo ur mozketak, esaterako. Herritarrek ulerkor ikusten ditu Igartuak, eta jarrera hori esker-tu gura die.

FRONTOIKO ETA KANTXA BERDEKO TEILATUAK KONPONTZEKO LANAK BUKATUTA DAUDE

OHARRAK

Zozketa

Apirilaren 5ean egingo den hauteskunde egunean hautesleku mahaietan egongo diren herritarren zozketa gaur egingo dute, 10:00etan, HAZ bulegoan.

Odol ateratzea

Gaur, egubakoitza, egingo dute martxoko odol ateratzea. Ohiko toki eta orduan izango da: 17:00etatik 19:00etara MUko Enpresagintza fakultatean.

Pako Aristi dator

Euskara, itxaropen bat iraganari hitzaldia egingo du egunean Pako Aristi idazleak. Bedita Larrakoetxea udal euskaltegian, 18:00etan.

Bi eskaintza dituzte Arrikruzten, Koben Eguna ospatzeko

Koben Eguna ospatuko da martxoaren 15ean eta horri begira bi ekitaldi antolatu dituzte Arrikruzten. Lehena domekan egingo duten irteera da; neguko tximeletak nolakoak diren eta non egoten diren azalduko dute. Bigarrena hilaren 15rako pres-tatu duten Arrikruzteko 53 galeriako bisita turistikoa erdi prezioan eskaintzea da. Batera-ko zein besterako, izena eman behar da aurrez. Eta horretarako bideak dira: arrikruz@ona-ti.eus edo 943 08 20 00.

Atzo, eguna, egin zuten Koben Egunaren aurkezpena, Baionan, eta hantxe izan ziren Lurpean elkarteko ordezkariak; tartean, Oñatikoak.

Zuhaitz landareen azoka bihar, eta landaketa domekan

Ingurumen astearren barruan, hainbat zuhaitz mintegi etorri-ko dira zapatu goizean Oñatira landareak saltzeko; loreak eta landareak ere egongo dira. Natur eskolak antolatu dituen ingurumen jardunaldien barruan urtero egiten den zuhaitz azoka izango da eta, aurreko urteetan bezala, aurten ere Foruen plazan egingo dute, 09:00etatik 14:00etara. Domekan, bestalde, zuhaitz landaketa egingo dute Aloñan, Aloñako Lagunak taldeak lagunduta. Aurreko urteetako itxitura pare bat ere konponduko dituzte, bertako zuhaitzen enbor apurtuak moztuta. 10:00etan elkartuko dira, Unai-mendin, Durun.



NIRE USTEZ

LUKENE IGARTUA

Ingo xonau?

Ingo xonau? Etxakiñat, ba, gai izango gaittun? Hoixe baietz!

Horrelako zerbait izango zen orain dela 31 urte Donostiako Lilatoia egitea pentsatu zuten emakumeen arteko elkarrizketa (Oñatiko hitanoa erabiltzea neure lizentzia da). Igandean 6.000 emakumek egin zuten korrika. Izugarria! Aurten, gurpildun aukietan dauden neska-mutilek hartu dute parte, beraien amak, arrebak edo lagunak bultzatuta, emakumea delako kirol proba honen protagonista. Ezin uka daiteke Lilatoiak emakumeen kirol espazioa zabaltzen lagundu duela, eta egoera aldatzen doala: hobera doa bai, baina oso poliki. Beti defendituko dut bakoitzak nahi duena egitea, baina oraindik rolak oso finkatuta ditugu. Bi adibide: 2020ko Aloñako igoerako izen ematean 300etik hemezortzi bakarrik ziren emakumeak. Hori ikusita, antolatzaileek itxaron zerrendan zeuden emakume guztiak batu dituzte lasterketara. Pozteko erabakia bada ere, emakumeen partaidetza %8ra ez da heltzen. Bestalde, Oñatiko Inauteriak kalez kale ekitaldian emakumezkoak ziren gehiengo nagusia dantzan.

Baxakonau lana bidiak batzen! Ingo xonau/xuau?



Iazko Oñatiko udalekueetan aritutako hainbat ume, begiraleekin. OIHANA ELORZA

Astelehenean irekiko dute udalekueetako izen-ematea

Ekainaren 29tik uztailaren 24ra bitartean egingo diren udaleku ireki eta arte udalekueetarako izen-ematea martxoaren 9tik 20ra bitartean egin ahal izango da. Aurten, gainera, Udalak online egiteko aukera eskainiko duela da nobedadeetako bat

Maialen Regueiro OÑATI

Aurtengo udaleku irekiak eta arte udalekuak ekainaren 29tik uztailaren 24ra bitartean izango dira eta bietarako izen-ematea martxoaren 9an, astelehenean, zabalduko da eta martxoaren 20a izango da horretarako azken eguna. Ion Lopez Gazteria teknikariak aitortu du aurtun zorrotzak izango direla eta ez dutela epez kanpoko izen-ematerik onartuko.

Udaleku irekiak

Iazko udaleku irekietan 600 ume eta gaztetik gora aritu ziren eta aurtun kopurua areagotu egingo dela aurreikusten du Lopezek. Izan ere, aurtun, beste urte batzuetan bezala, izena ematen duten umeek euskaraz eta gozamenaz udalekuez gozatzeko aukera izango dute eta, besteak beste, uraren eguna, eskulanak, jolasak, ibilaldiak eta kanpaldia egingo dituzte. Udalekueetan 2008tik 2016ra bitartean –biak barne– jaiotako umeek izango

dute parte hartzeko aukera. Aurten, nobedade gisa, izen-ematea online bidez egiteko aukera egongo dela adierazi du Lopezek –Udalaren atarian–, baina ordainketaren ziurtagiria eta izen-emate orria udaletxean –HAZEN– eta Txaloka ludotekan entregatzeko aukera egongo dela ere aipatu du. Lopezek gogorazti du dokumentuen entrega ordainketa egindakoan egin behar dela, eta, horrekin batera, matrikulen prezioak jakinarazi ditu: "Lehen umeak 71,53 euro ordaindu behar du, bigarrenak 61,31 euro eta hirugarrenak 51,09".

Arte udalekuak

Aurtengoa arte udalekuen berderatzigarren edizioa izango da.

**"AURTEN, ZORROTZAK
IZANGO GARA ETA EZ
DUGU EPEZ KANPOKO
IZEN-EMATERIK
ONARTUKO"**

Iaz 69 ume zein gazte aritu ziren artea lantzen eta iazkoak, gainera, inoizko jendetsuenak izan ziren. Gauzak horrela, ekainaren 29tik uztailaren 24ra bitartean, LH3tik DBH4ra bitarteko gazte- txoak Eltzian arituko dira, marrazkigintzan, eskulturaz, margogintzan, eta abarretan trebatzen. Kasu honetan, matrikularen prezioa bera izango da eta izen-ematea online egiteko aukera ere eskainiko da. Dokumentazioaren entrega, berriz, udaletxean –HAZEN– edota gaztelekuan egin beharko da.

Begiraleen kontratazioa

Udalak begiraleak kontratatuko ditu bi udalekueetarako. Iaz, esate baterako, 70 begirale baino gehiago kontratatu zituzten. Kasu honetan, interesatuek izena HAZEN eman beharko dute, martxoaren 9tik 20ra bitartean. Egitea derrigorrezkoak diren hezitzaileen formakuntza saioak, berriz, ekainaren 6an eta 7an izango dira.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Hori al da atoaia aparkatzeko tokia?

San Lorentzo auzoko bizilagunak kexu agertu dira, pilotalekuan atoi bat aparkatuta dagoelako eta hori ez delako atoaia egoteko tokia. Adierazi dute denbora dihoala hor aparkatuta.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



OIHANA ELORZA

Gaixo zeuden zuhaitzak, moztuta

Udalak San Lorentzoko autobus geltokitik Eltzia bidegurutzerara bidean zeuden zazpi zuhaitz moztu ditu, gaixo zeudelako. Horiek eta jadanik moztuta zeuden beste hiru birlandutako ditu Udalak, 4.050 euroko aurrekontuarekin (BEZ gabe). *Lagestroemia indica* zuhaitzak landatuko dituzte: lehengoak baino txikiagoak dira eta kolore askotariko loreak dituzte.

Hotz Oñatik material gehiago bidali dio 'Aita Mari' ontziari

Hotz Oñatik urtarrian egin zuen *Aita Mari* ontziarentzat material berriaren bidalketa, eta bigarrena dagoeneko Italiara bidean dago. Helduentzako 150 kit eta haurrentzako beste 20 bidali ditu Hotz Oñatik, zeintzuek arropa eta higiene beharrak betetzeko materiala jasotzen duten: txandalak, kamisetak, barruko arropa, eskuoihal edo

toallak, edalontziak eta zereal-barratxoak. Bigarren bidalketa honetan, gainera, banakako kit hauetaz gain, Legazpiko Hotz taldeak jasotako 300 manta bidali dira Italiara.

Horrez gain, Hotz Oñatik hainbat ekintza antolatu ditu martxoak. Hilaren 13an, *Varados* dokumentala ikusteko aukera egongo da, eta ondoren hitzaldia. Martxoaren 27an, Lesboson egon ziren boluntario oñatiarrek beraien esperientziaren berri emango dute.



laz Arrasaten egindako futbol campusean, haur bat baloiaren atzetik korrika. GOIENA

Pazko astean futbol campusa, estreinakoz

Haurrei begirako aisialdi eskaintzan dagoen "hutsunea" betetzeko helburuarekin antolatu dute. 2008 eta 2011 artean jaiotako haurrak arituko dira, futbolekin ez ezik, taldeko jolasak egiten. Pazko asteko martitzenetik egubakoitzera bitarte egingo dute

Maialen Santos OÑATI

Aste Santuko bigarren asterako antolatu dute lehenbiziko aldiz futbol campusa. Pazko asteako martitzenetik egubakoitzera bitartean egingo dute; apirilaren 14tik 17ra, alegia. Haritz Azurmendik eta Auritz Larreak antolatu dute –biak futbolzaleak–. Azurmendik adierazi duenez, urteko sasoi honetan dagoen "aisialdi hutsunea" betetzeko helburua dute: "Ikusten dugu Aste Santua iristean haur askok ez dutela zereginik, eta kasu askotan, gurasoek lanera joan behar izaten dute, gainera". Hori gutxi balitz, Oñatiko haur asko inguruko herrietako campusetara joaten dira futbolera". Diote "aspaldi" ari zirela halako "zerbait" herrian egin guran; halere, orain arte "ideia hutsa" zena garatu egin dute, "azkenean".

2008 eta 2011. urte artean jaio-tako haurrei –biak barne– zuzenduta egongo da, eta irekia izango da; ez baita ezinbestekoa izango futboleko izena emanda

egotea. Soilik futboleant eta taldean jokatzeko "gogoa" izango da "beharrezkoa", bere aburuz.

Campusa, goizetan bakarrik

Aipatutako lau egun horietan goizez jardungo dute etxeko gazteenek kirola egiten, 09:00etatik 13:00etara iraungo baitute aisialdiko jolasak. Zehazki, bi atal nagusitan banatuko dituzte goizak: hasteko eta behin, taldeko jolasak egingo dituzte, eta jarraian, futboleko jokatzeko tarteak ere izango dute: "Uste dugu taldeko balioak lantzeko garrantzitsua dela talde sena bultzatzea", dio Azurmendik. Era horretan, "futbolak dituen balio positiboak transmititu gura ditugu". Kokapenari dago-

80 HAUR OÑATIAK EMAN DUTE IZENA ORAIN ARTEAN; GAUR DA HORRETARAKO AZKENEN EGUNA

kionez, hasierako jolasak San Martin edota Santa Lutzia inguruan egingo dituztela aurreratu du antolatzaileak: "Eguraldiak laguntzen badu, behintzat". Futbolerako, ostera, Azkoagain eta Larraña baliatuko dituzte.

Begiraleen laguntza

Orain arte, gutzira, 80 haurrek eman dute izena campusean parte hartzeko; hain justu, gauda horretarako azken eguna, *alonafutboludalekuak@gmail.com* helbidera idatzita edota antolatzailleekin harremanetan jarrita. Aurreratu dutenez, "uste baina haur gehiagok" azaldu dute campusarekiko interesa, eta, "asko" direnez, taldeak egingo dituzte. Talde horiek koordinatzeko zenbait begirale ere izango dira: "guztiak" futbolarekin eta hezkuntzarekin "harremana" duten pertsonak izango dira.

Antolatzaileak eskertuta azaldu dira Aloña Mendiko futbol sailetik eta Oñatiko Udaletik jasotako laguntzari dagokionez.



Elkar Heziko ikasleak eta Andoni Salamero antzezlanak prestatzen. NAGORE GOÑI

Martxoaren 8aren harira, Gloria Fuertesen gaineko antzezlan

Gaur arratsaldean egingo dute. Bihar, bazkaria egingo dute gaztetxean, eta domekan, performancea plazan

M.S. OÑATI

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira egitarau oparoa antolatu dute Oñatin. Gaur irekiko dute ekintzaz betetako asteburua; hain justu, Elkar Heziko ikasleek Gloria Fuertes idazlearen olerki bilduma oinarri hartuta antzerkia eskainiko dute, Setem elkartekoekin elkarlanean. 19:30ean izango da, Santa Anan, eta, adierazi dute-nez, "genero berdintasuna" aldarrikatzeko eta emakumeek pairatu dezaketen edozein "eskubide urraketa" mota salatze-ko igoko dira oholtza gainera, Andoni Salamero poetaren gidarritzeapean. Emakumeek "esparru ezberdinetan" egiten duten lana atera nahi dute argitara.

Artisau azoka eta bazkaria

Bihar goizean, emakume artisaunen azoka egingo dute plazan; 22 postu jarriko dituzte. Horrez

gain, emakumeen bazkaria ere antolatuta dute; Antixeneko gaztetxean izango da, eta txartelak Eltzian, Arranon eta Ongin eros daitezke –langileek 10 euro eta langabeek, 6 euroren truke–.

Domekan, performancea

Domekarako, ekintza gehiago antolatu dituzte. 12:00etan, elkarretaratzea egingo dute Olakuan, eta gero, mokadutxoa jateko aukera egongo da Lagun Leku elkartekoen eskutik. 13:00etan, kontzentrakzio erako performancea egingo dute plazan, *Bortxatzailea zu zara koreografia* dantzatuta. Haatik, zapatuan, bazkariaren ostean, egingo dute azken entsegua –aurretik bi egin dituzte–. Bazkaria ere egingo dute domekan, Olakua tabernan, Lagun Lekukoek antolatuta.

Amantalak leihuetan eskegi
eta besoko morea jartzeko dei
egin dute emakume feministek.

Pilota partiduak gaur arratsaldean jokatuko dituzte Zubikoan

18:30ean, lagunartekoa jokatu-
dute Sagastizabalek eta Marku-
letak, Guridiren eta Biainen
aurka. Jarraian, eskuz binaka
Gipuzkoako Txapelketa jokatu-
ko dute alebin mailako Buketek
eta Elorzak, aretxabaletarren
aurka. Infantiletan, Txintxurre-
tak eta Egurbidek Sendi Ekintza
hartuko dute; eta Guridik eta
Juristik, azkenik, Lapke.

Aralarrera irteera egingo du Aloña Mendik hilaren 15ean

Aralar mendikatea zeharkatuko dute, eta Hirumugarrietako ton-torrera ere joango dira. Jaitsiera luzea izango da; belardietatik Txindoki aldera eta Larraitzera egingo dute. Ez du zailtasun teknikorik izango, baina nahiko luzea izango da. Martxoaren 12a aurretik eman behar da izena, Aloña tabernan edo *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidean.

GOIENA TELEBISTA

UDABERRIKO PROGRAMAZIOA



HEMEN DEBAGOIENA
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
18:00ETAN, 20:00ETAN ETA
22:00ETAN



BARRU: ERRUGBI INKLUSIBOA
MARTXOAREN 24AN
21:30EAN ETA 23:30EAN



KANTARI
MARTXOAK 7 ETA 8
09:30EAN ETA 17:00ETAN
OÑATIKO GAZTELEKUAN
GRABATUTAKO SAIOEN TXANDA



HARMAILATIK
ASTELEHENEAN, MARTXOAK 9
21:30EAN ETA 23:30EAN
ARRASATEREN ETA OÑATIREN ARTEKO
ESKUBALOI DERBIA ITURRIPEN



ELKARRIZKETTAK
EGUAZTENEAN ETA EGUBAKOITZEAN
21:00ETAN (EGUAZTENA) ETA
21:30EAN (EGUBAKOITZA)



HARIRA EZTABAIDA
ASTEARTEAN
21:00ETAN ETA 23:00ETAN



OSOKO BILKURAK, ARRASATE
ZAPATUAN ETA DOMEKAN
ZAPATUAN: 15:00ETAN
DOMEKAN: 13:00ETAN ETA 21:30EAN



ALBISTEAK
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
14:30EAN, 16:15EAN, 17:00ETAN ETA
15:45EAN



GALDEGAZTE
EGUAZTENEAN, MARTXOAK 11
21:30EAN ETA 23:30EAN
AITOR MENDIZABAL PILOTARI
ANTZUOLARRARI ELKARRIZKETA

goiena
Zu hemen zaude.

Xabier Urzelai BERGARA

UCI Pro Team mailara igota, eta Euskaltel babeslearen itzuleraz, bueltan da marea laranja. Eta oraingoan, bi bergarar izango dira errepideko protagonisten artean. Mikel Aristi (1993) eta Julen Irizar (1995) hasi dira dortsalak janzten. Aristiren kasuan, neguan izandako belauneko lesioak eten egin dio denboraldiurreko lana, eta oraindik ez dago topera. Irizar, berriz, gozatzen dabil hasiera honetan. **Gauza bat da neguan zelan ikusi duzuen zeuen burua, edo potentziometroak zer adierazi dizuen. Baina lasterketetan hasi zareten honetan, zer moduz?**

Mikel Aristi: Ni oraindik ez nago %100ean. Neguan oso pozik nengibilen, lan oso ona egiten nengibilelako, baina bi astez geldirik egon behar izan dut, eta igarri egiten da. Asteburuan berotu onak hartu ditut Frantzian. Baina pozik nago, lesioa atzean utzi dudalako.

Julen, Frantzian ihesaldietan sartuta ikusi zaitugu...

Julen Irizar: Bai, gustura nabil, eta pozgarria da iazko urte txarrraren ostean sentazio onak berreskuratzea. Taldeak ihesaldietan egoteko eskatu zigun, hasieratik muturra erakutsi, eta horrekin batera, ihesaldian bazaude, lasterketan erabat sartuta zaude.

Julen, zuretzat berria da Euskadi fundazioa, baina Mikel, profesionalismora bertatik egin zenuen salto. Zer-nolako taldea aurkitu duzu?

M.A.: Erabat berria, ez du ni egon nintzeneko sasoiarekin zerikusirik. Aurpegi berri asko daude, ilusio galanta duen talde gaztearekin egin dut topo, eta *staff*-eko jendea ere sekulako ilusioarekin dago, baita presidentea bera ere, Mikel Landa. Eta gu ere halaxe sentitzen gara, haurrak gineneko talde erreferentera iritsi garela ikusten dugu. Eta Euskaltel babeslearen itzulerak ere lagundu egiten du horretan.

Garrantzitsua da proiektuarendako.

M.A.: Zalantza barik, taldeari egonkortasun handiagoa eman go diolako. Eta horrekin batera, duela urte batzuetako Euskaltel Euskaditik gertuago gaudelako. **Euskadi Muriaseko hainbat ziklista batu zarete proiektura; prozesu naturala izan da?**

J.I.: Bai, oso erraza izan da dena. Egia esan, lehenago ere ezagunak

"Haurrak gineneko talde erreferentera iritsi gara"

MIKEL ARISTI ETA JULEN IRIZAR EUSKALTEL EUSKADIKO ZIKLISTAK

TXIRRINDULARITZA Talde laranjako bi bergararrek Euskaltel Euskadiren eta gaur egungo ziklismoaren gainean egin dute berba GOIENArekin



Mikel Aristi eta Julen Irizar, taldekideak eta lagunak, aste barruan Gorlan. X.U.

edo lagunak ginen gutako asko, amateur mailan taldekide izandakoak, elkarrekin lasterketetan ibilitakoak... Oso erraz batu gara taldera.

Hilabete falta da Euskal Herriko Itzulirako; aukeratuen artean egoteko itxaropenik bai?

J.I.: Aukerak hor daude, baina ni bezala beste hainbat txirrindulari daude Itzulian egoteko aukerekin. Lasterketa oso garrantzitsua da taldearendako, maila izugarria egongo da, eta benetan ondo daudenek egon behar dute hor.

M.A.: Nik, esaterako, ez dut nire burua Itzulian ikusten. Batetik, prestakuntza atzeratuta daradamalako eta, Julenek dioen moduan, ondo daudenek egon behar dutelako hor. Baina, bestalde, ez da nire ezaugarrietara moldatzen den ibilbidea.

Mikel, non egon gura duzu ondo?

M.A.: Belauneko lesioarenurretik ere, Alentejoko Itzulia begiz jota nuen [Portugalen, martxoaren 18tik 22ra arte], eta ideia berberarekin jarraitzen dut. Bi aste ditut ondo entrenatzen jarraitzeko.

"GAUZAK ONDO EGITEKO ILUSIO GALANTA DUEN TALDEAREKIN EGINDUGU TOPO"

Deigarria da otsailean zenbait liderrek sasoi betearekin daudela erakutsi izana. Nairo Quintana Ventoux-en, Adam Yates UAE-n, Remco Evenepoel Algarven...

M.A.: Joera hori ez da berria, azken urteotan jendea hasieratik gustatzen zaio indartsu dagoela erakustea. Lehen, liderren ardura zen Frantziako Tourrean ondo egotea, baina gaur egun...

J.I.: Neguko taldeko kontzentrazioan ere jendeak sasoi onean dagoela erakutsi gura izaten du. **Garai batean, ziklistei kosta egiten zitzaien egiten zituzten kilometroen berri ematea, sekretupean gordetzen zen hori. Gaur egun, datu guztiak publikoki zintzilikatzen dituzue Strava-n eta halako aplikazioetan.**

M.A.: Ni boladaka ibiltzen naiz; orain, *Strava* modu pribatuan daukat. Ez da ezer ezkutatzeko daukadalako, baina segundoero ze pultsu daukagun edo zenbat watt mugitzen gabiltzan erakutsi behar izate hori ere...

J.I.: Dena asmatuta dago, entrenatzaile bakoitzak lan egiteko modu konkretua du, baina inori begira egon barik jendeak badauki zelan entrenatu behar duen. **Ziklista batzuk oso-oso argal daude, anorexia arazoak izan dituela onartu duenik ere egon da. Ez dakit watt/pisu formula ziklistaren zoriontasuna ere kontuan hartu daitekeen...**

M.A.: Nik uste dut gure aurreko belaunaldikoak zorrotzagoak zirela, gehiago estutzen zituzten edo astakeria handiagoak egiten zituzten. Gogoan dut Euskadi fundazioan inork ez ninduela batere presionatu pisuaren kontuarekin, ez dut elikadurarekin traumarik izan. Garbi dago pisua garrantzitsua dela, baina indarra behar du ziklistak, eta pisu asko galduz gero...

J.I.: Pisua baino garrantzitsuagoa izan daiteke ziklista psikologikoki ondo egotea, eta osasuntsu. Elikadura zaintzeko, egun, formula egokiak ditugu, eta etxean heziketa egokia izan baduzu...

Sare sozialak zaintzea ere bada egungo profesionalen ardura.

M.A.: Kosta egiten zait arlo hori, baina banabil poliki-poliki. Euskadi Murias taldean animatu gintuzten sare sozialak erabiltzera, eta dagoeneko ohitu naiz tarteka argazkiren bat igotzera. **J.I.:** Zaleei txirrindularitza barrutik erakusteko modua ere bada, ziklismoa sustatzen duen zale horrengandik gertuago egoteko aukera ematen dute.



Ibai Garai eta Xabi Odriozola oñatiarrak. X.O.



Eneko Ruiz, Arrasateit joandako zale gehiagorekin. E.R



Rakel Somalo, Oñatitik joandako beste realzale batzuekin. R.S



Ametzueta taldeko kide aretxabaletarrak. S.R

Mirandatik itzuli berri, Sevilla da azken geltokia

FUTBOLA Athleticek Granadatik ekarri duen emaitza zein den jakin barik, Realak jada eman du Kopan euskal taldeen arteko finala izateko lehen pausoa. Mirandan talde txuri-urdinak zaleen babesa izan zuen, eta tartean egon ziren Debagoieneko asko

Xabier Urzelai ARRASATE

Atzoko eguna bati baino gehiagori luzea egin zitzaion, bereziki Anduva futbol zelaira Reala animatzera joan ziren zaleei: "Nahiko formal ibili ginen, baina sekulako giroa zegoen Mirandan eta parranda apur bat egin genuen, 01:00 aldera iritsi ginen Aretxabaletara", dio Salba Rodriguezek. "Aretxabaletatik hainbat lagun animatu ginen partidua ikustera joateko eta, gainera, joanekean baino gutxiago sufritu genuen, nahiko lasai egon nintzen, egia esan. Eguazteneko Mirandesez ez zuen Anoetan erakutsitako joko-maila erakutsi, orduan Lehenengo Mailako taldea zirudien. Eguaztenean, ez". Zoritxarrez, aretxabaletarrak ezingo du Sevillako finalean egon: "Egun horretan bertan itzuliko naiz oporretatik eta ezingo naiz Sevillan egon. Baina Aretxabaletan giro onean ikusiko dugu finala".

Joseba Molinero ez zen eguaztenean Rodriguez baino goizago

oheratuko, eta ordu gutxira goizeko txandan joan behar zuen, gainera, lanera. "Inoiz ez dut 05:30ean iratzargailua horren pozik entzun", dio oñatiarrak, nahiz eta aitortu arratsaldean seme-alabak ikastolara jasotzera joan aurretik siesta apur bat egin beharko zuela: "Ez gaude-eta ohituta horrenbeste salto eta dantza egitera".

Sevillarako bidaia prestatzera

Molinero aspaldidanik da Realeko bazkidea, eta uste du zozketa barik izango dituela sarre-rak: "Hamazazpi urte izango nituen Realak azken Kopa irabazi zuenean [Romaredan izan zen, 1987an, Atletico Madrilen kontra], eta bada ordua talde

**LEIHOA BEHERAINO
BETE LEIHOA
BEHERAINO BETE
LEIHOA BEHERAINO
BETE LEIHOA**

txuri-urdinarekin ospakizun eder bat egiteko. Bai, Sevillara joango gara, nahiz eta ez dugun aurretik ezer hartu. Bidaia antolatzen hasi beharko dugu".

Partiduari dagokionez, *Moli*-k garbi dio ez zela partidua polita izan, "Baina pozgarria izan zen Realak B plan bat duela ikustea, partidua guztiak ez dituela berdin planteatzen. Baloiaren jabetza utzi eta baloi luzeen bila ibili zen, eta asmatu egin zuen".

Mirandako zaleekin batera

Oñatiko Rakel Somalo ere Anduvan izan zen eguazteneko kanporaketan, eta harmailetan Mirandako zaleen artean jarraitu zuen partidua, gainera: "Bertako lagunak ditugu eta euren esker lortu genituen sarrerak. Sekulako giroa izan genuen, arratsaldean hasi genuen poteoa eta partidua aurretik Mirandako kaleetan sekulako giroa izan genuen. Nekatuta etorri gara, eta eguna luzea egingo zaigu, baina merezi izan du".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

Amaiak Bat-Mondra

Zapatua. 16:30. Deba.

Anaitasuna-Bergara

Zapatua. 17:00. Txerloia.

Aretxabaleta-Hernani

Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERE.

Getariako-Antzuola

Zapatua. 16:30. Orio.

Zumaiaiko-Mondra

Zapatua. 17:45. Zumaia.

Billabona-Aloña Mendi

Domeka. 16:30. Billabona

Aretxabaleta-Beasain

Domeka. 18:30. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

Aretxabaleta-Zumaia.

Zapatua. 16:00. Ibarra.

Mondra-Bergara

Zapatua. 18:30. Mojategi.

EMAKUMEZKOEN OHO.

Tolosa-Leintz Arizmen.

Zapatua. 15:30. Usabal.

Bergara-Zarautz

Domeka. 15:30. Ipintza.

EMAKUME. GORENGO

Leintz Aloña-Amaiak

Zapatua. 15:20. Azkoaga.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Atsedena.

EUSKADIKO TXAPELKE.

Jarrilleros-Aretxabale.

Zapatua. 18:30. Portuga.

Mondrate-Jaixki

Zapatua. 17:30. Musako.

GIPUZKOAKO SENIORRA

Pizzeria B17-Mondrate

Zehaztu gabe.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Ordizia-Eskoriatza

Domeka. 10:00. Ordizia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Ford Muga.-Fagor Ind.

Domeka. 11:45. Iturripe.

EMAKUMEZ. EUSKADI.

Aloña Mendi-Bera Be.

Zapatua. 18:30. Zubikoa.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Soraluce BKE-Urola

Zapatua. 16:00. Labegar.

SASKIBALOIA

EBA

MU-La Flecha

Zapatua. 20:00. Iturripe.

Miraflores-MU

Domeka. 18:00. Burgos.

EUS. BIGARREN MAILA

Unamuno-Mekalki

Zapatua. 17:00. Durango.

Alkideba Ointxe-Easo

Zapatua. 17:30. Iturripe.

EUSKADIKO JUNIOR M.

MU-Electro Alavesa

Domeka. 12:00. Arrasate.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

B.Soraluce-Goierri

Zapatua. 18:00. Bergara.

GIP. SENIOR EMAKUME.

Antigua-Eskoriatza

Zapatua. 18:00. Donostia.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELK.

OÑATI

Egubakoitza. 19:00etan

hasita hiru partidua.

ARETXABALETA

Egubakoitza. 19:30ean

hasita partidua bat.

ARRASATE

Egubakoitza, 20:15ean

hasita partidua bat.

BERGARA

Zapatua. 17:45ean

hasita partidua bat.

ESKUBALOIA Derbia Ford Mugarriren eta Fagor Industrialen artean

Euskadiko Txapelketan dabilen Ford Mugarri Arrasatek eta Fagor Industrialek derbia jokatuko dute domekan Iturripen (11:45). Oñatiarrak aurretik dau-de sailkapenean, baina oso alde txikiarekin, eta bien helburua da igoera faserako aukera ematen duen bosgarren postu horrengatik lehiatzea. Joanekean 26-25 irabazi zuen txantxikuek.

TXIRRINDULARITZA

Dorletako Amaren aurkezpena domekan

Lokatzako eta Aloña Mendiko taldeek euren ziklistak aurkeztu eta gero dator bailarako hirugarren taldearen aurkezpen ekitaldian. Hala, domeka goizean egingo dute hitzordua (10:00), eta eguraldiak laguntzen badu euren babesle diren Eroskin eta JMAn egingo dituzte talde erretatuak. Txarra bada, Biterin egingo dute aurkezpenean.

FUTBOLA Aretxabaletak hirugarren dagoen Hernani hartuko du

Ohorezko erregional mailan etxean jokatuko duen ordezkari bakarra da UDA. Larbururen mutilek hirugarren postuan dagoen Hernani hartuko dute. Kanpoan jokatuko dute, berriz, Bergarak eta Mondrak. Bigarren dagoen Anaitasunaren zelaian jokatuko du Bergarak, eta Mondraren kontrario Amaiak Bat zazpigarrena da sailkapenean.

MENDIKO ESKIA Bertan behera utzi dute Altitoy lasterketa

Asteburuko eguraldi iragarpen txarrak bultzatuta –euria, elurra, haize zakarra...–, Altitoy Ternua lasterketako antolatzaileek erabaki zorrotza hartu behar izan dute, segurtasun neurri moduan bertan behera utzi dute lasterketa. Euskal selekzioko ordezkariak martitzenean iragarri zuten Axier Alonso oñatiarra aukeratuen artean zegoela.



Antixena gaztetxean zapatuan jokatu zuten Dizdaitte bertso txapelketako finala Oihana Aranak irabazi zuen. JULEN IRIONDO

Oihana Aranarentzako Dizdaitte-ko sari nagusia

Txaber Altube Abadiñoko bertsolariari bost puntu eta erdiko aldea aterata nagusitu zen Eskoriatzako, Txinparta Bertso Eskolak antolatu duen sariketaren finalean; izan duen "harrera ona" ikusita, datorren urtean ere txapelketa egingo dutela iragarri dute

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Aurrez Pako eta Ikatz tabernetan jokaturako kanporaketan ostean, zapatu iluntzean jokatu zuten finala Antixena gaztetxean. Antolatzaileak, bertsolariak eta publikoa "gustura" dira txapelketak emandakoarekin; honela azaldu du Oñatiko Bertso Eskolako kide eta sariketako antolatzaile taldeko Gontzal Belategik: "Finalean zehar zaila zen aurreikustea nork eskuratuko zuen txapela. Euskal Herriko bertsolari gazte aipagarrienak izan ditugu gurean eta sekulako maila dutela erakutsi dute guztiek, kanporaketetan eta baita finalean ere. Bertsokera aldetik maila ona izan da, orokorrean".


Ibarreko lau ordezkari finalean

Euskal Herriko txoko askotako hamabi bertsolarik abiatu zuten otsailaren 8an sariketa, eta seik jokatu zuten gaztetxeako finala, horietatik lau ziren Debagoienekoak. "Final parekatua" izan zen, eta 272 puntu eskuratuta Oihana Aranarentzako izan zen, azkenean, txapela; hurrenez hurren, honela geratu zen palmaresa: Txaber Altube (266,5); Ane Zuazubiskar (265,5); Maider Arregi (262,5); Eli Pagola (259,5) eta Urko Arregi (249).

Tabernak, bertsotarako apropos

Bertso giroa sortzea zen sariketaren asmoa, eta helburua betetzat jo dute: "Bertsotetik

horren gertu ez dagoen jendea hurbildu da eta, orokorrean, giro oso ona egon da. Asmatu dugu, hortaz, saioak tabernetan egiten. Batzarrik egin barik, aurreratu dezakegu datorren urtean bigarrena egingo dugula", dio Belategik, eta zera gaineratu du Maider Arregi bertsolariak: "Plazetan ari gara denak, akaso gura baino gutxiago batzuk, baina guztion artean oso ondo itxuratu ditugu Dizdaitte saioak". Eta bide beretik erantzun du Aranak: "Txapelketa herrikoiei ez dakit nahiko garrantzia ematen diegun, baina maila handia izan da oraingoan ere. Oholtzan lagun izan ditudanak erreferente dira niretzako".



GOIENA

"Ez nuen nire burua irabazle ikusten"

OIHANA ARANA
BERTSOLARIA

Sariketako bertso-kideekin alderatuz plaza gutxiagotan ibilitakoa da eskoriatzarra; hala ere, hark jantzi du lehen Dizdaitte txapela.

Zorionak! Sorpresa?

Sekulakoa! Aste osoa pasatu nuen-eta seigarren egingo nuela pentsatzen.

Zure lanari dagokionez, zer izan zen onena eta zer txarrena?

Orokorrean, oso gustura geratu nintzen. Seiko motzeko ariketari bereziki beldurra nion, eta, akaso, ez zen ondoen egin nuena, baina bai, gusturen geratu nintzena, nahiko ondo atera zitzaidalako; bestetik, puntutakoan ez nintzen oso gustura ibili, ez dut-eta halakoak sarritan egiten.

Proposatu zituzten gaiak, zure gustukoak?

Oso egokiak, finalekoak eta kanporaketetakoak. Aktualak eta egoerarekin ondo zetozenak, nire ustez.

Los Winters-en kontzertua Arrasate Blues berotzeko

Madrilgo musika taldea Herriko Plazan dagoen Kajoi tabernan izango da bihar, 19:00etan

A.A. ARRASATE

Uztailaren 15etik 19ra bitartean egingo du Ibai-arte Arrasateko merkatarik elkartek –aurten, bigarrenez– Arrasate Blues jaialdia, eta antolatzaileek iragarri dute "aurtengoa sekulakoa izango dela, punta-puntako taldeak ari dira-eta lotzen".

Jaialdirako "motorrak berotzeko" Los Winters taldea gonbidatu dutela azaldu du elkarteko presidente Jon Apraizek: "Kpow Albuquerquek –ahotsa eta gitarra–, Pino Sambatarok –bateria– eta Phineas Sanchezek –baxua– osatzen dute Los Winters hirukotea. 25 urtetik gorako ibilbidea duten musikariak dira; besteak beste, Naco Goñi y Los Bluescavidas, Raimundo Amador eta Bebe taldeetan ibilitakoak. 2014an batu ziren, oso gustuko duten Johnny Winter musikariaren kantuak eskaintzeko. Asteburuan Euskal Herrian izango direla aprobetxatuz, gurera gonbidatu ditu".

Jaialdiaren garagardo propioa

Biharko emanaldian, baina, izango da bitxikeria bat: Arrasate Blueseko etiketa duen 17/80 garagardo horia aurkeztuko dutela iragarri dute Arrasateko merkatarik elkartekoek.

GOIENA TELEBISTA
UDABERRIKO PROGRAMAZIO BERRIA

KOOLTUR

GOIENA TELEBISTA, REVOLTA PERMANENT

MARTXOAREN 6AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN

KOOLTUR EKINTZAK ELKARTEAREKIN
ELKARLANEAN EKOIZTUTA

goiena

Zu hemen zaude.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Telefonoa: 685 77 40 26

Bergara. Jatorriz Santanderrekoa den bikote gazte batek etxebizitza errentan hartu nahi du. Arduradutsuak eta garbiak. Lan finkoa dute. Kontak-tua: 693 32 36 48 (Ana)

4. LANA

402. ESKAERAK

Arrasate eta inguruak. Pertsona nagusien eta umeen zaintzarako edota etxeko lanetarako prest dagoen emakumea lan bila. Esperientzia handia arlo hauetan. Telefonoa: 647 10 58 72

Arrasate. Pertsona nagusi edota umeen zaintzarako prest nago, baita garbiketa lanetarako ere. 643 47 42 33

Bergara. 26 urteko Bergararra naiz. Goizetan eta zenbait egurduitan haurrak zaintzeko prest nago. 695 75 11 97

Bergara. Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko. Soziosanitario titulazioarekin. 656 74 78 43

Bergara. Garbiketa edo zerbitzari lanetan eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 631 15 26 27

Debagoiena. 26 urteko gaztea naiz, arduratsu eta zintzoa, eta nagusiak eta umeak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia daukat. 604 23 38 20

Debagoiena. Asteburuetan etxek etxeko laguntzan aritzeko gertu nago. Autoa daukat. Telefonoa: 631 98 15 50

Debagoiena. Edozein lan egiteko gertu nago: erai-kuntza, garbiketa, umeen eta nagusien zaintza eta abar. 631 36 11 18

Debagoiena. Egunean zehar nagusiak zaintzeko eta garbiketarako gertu nago. Soziosanitario titulatuarekin. 651 02 03 14

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu orduka, egun eta gau solteetan edota asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta beharrezko agiri guztiekin. 685 22 54 01

Debagoiena. Erabateko prestutasuna duen emakumea zaintza lanetarako prest. 631 93 11 90

Debagoiena. Erizain graduatua daukan eta sozio-

sanitario titulua duen neska zaintzan lan egiteko gertu. Estetikan, ile-apaindegian, zerbitzari moduan edota jendaurreko arreta lanetan arituko nintzateke. Gidabaimena daukat. 685 58 72 59

Debagoiena. Esperientzia duen neska gertu orduka, etxean bertan bizi izaten, zein asteburuetan, zaintza lanak egiteko. Telefonoa: 688 71 92 47

Debagoiena. Esperientzia duen neska zaintza eta garbiketa edota tabernari lanak egiteko gertu. 654 11 15 14

Debagoiena. Esperientzia handia duen mutila zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, orduka zein egunean zehar. Telefonoa: 638 85 43 36

Debagoiena. Etxe, taberna, atari eta abarrak garbituko nituzke orduka. Baita nagusiak zaindu ere. 641 67 46 25

Debagoiena. Etxek etxeko laguntzaile moduan esperientzia eta erreferentzia onak dauzkan mutila nagusiak zaintzeko gertu. Foru Aldundiko ziurtagiria eta autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Goizetan tabernari moduan edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 643 43 64 11 (Andrea)

Debagoiena. Lanbide Heziketa eta Soziosanitario arloan ikasten dihardut eta asteburuetan lan egingo nuke. Legezko agiriak daukat. 602 38 78 95 edo 643 81 36 77

Debagoiena. Larunbat eta igandetan pertsona nagusiak zaintzen edota astegunetan 16:00etatik aurrera nagusiak edo umeak zaintzen lan egiteko prest nago. Telefonoa: 688 74 00 14

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko. 655 23 81 50

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko eta garbiketarako gertu. 711 72 21 45

Debagoiena. Nagusiak zaindu edo garbiketarako egingo nituzke, orduka. 60213 44 99

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko eta garbiketarako gertu nago, etxean bertan bizi izaten, orduka zein gauean. Soziosanitario titulua eta legezko paperak daukat.

Interesatuok deitu zenbaki honetara: 643 73 62 83

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Orduka, egunez zein etxean bertan bizi izaten. 632 23 43 00

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka, asteburutan edota etxean bertan bizi izatean. 632 04 13 49

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, kafetegian zerbitzari moduan, garbiketari, mezulari lanetan edota eraikuntzan laguntzen lan egingo nuke. Informatikari lanetan ere bai. Erabateko prestutasuna. 603 28 34 98

Debagoiena. Nekazaritza, abeltzaintza, eraikuntzan eta margotze lanetan esperientzia duen mutila lan bila. 602 59 31 05

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Orduka, egun osoz zain etxean bertan bizi izaten. Erreferentziak aurkeztu ditzaket. 603 62 82 99

Debagoiena. Neska arduratsua zaintza lanetarako gertu. Orduka, egun osoz zain etxean bertan bizi izaten. Erreferentziak aurkeztu ditzaket. Telefonoa: 602 53 68 24

Debagoiena. Neska gertu orduka edo etxean bertan bizi izaten, nagusiak eta umeak zaintzeko, garbiketarako edo sukalde laguntzaile jarduteko. 603 33 18 29

Debagoiena. Neska nagusiak zaintzeko gertu. Egund osorako prest. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Autoarekin eta beharrezko titulazioarekin. Eskarmentu handiarekin. 600 00 51 60

Debagoiena. Neska prest garbiketa lanak egiteko edota haurrak eta nagusiak zaintzeko. Etxean bertan bizi izaten zein orduka. 643 59 76 06

Debagoiena. Nikaragua-ko mutila gertu nagusiak zaintzeko, eraikuntzan laguntzeko edota nekazaritzan jarduteko. Egund osoan zehar prest. Telefonoa: 677 00 90 26

Debagoiena. Orduka edo egund osoz lan egingo nuke nagusiak zaintzen, garbiketari edota tabernari moduan. Baita asteburuetan ere. Esperientzia daukat. Ingelesezt eta gaztelez badakit, eta euskara ikasten ari naiz. 634 71 01 30

Debagoiena. Orduka edo eguneko jardunez zaintza eta garbiketa lanak egingo nituzke. Autoa daukat. 666 93 32 56

Debagoiena. Orduka garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Baita gauean ere. Telefonoa: 634 94 30 78

Debagoiena. Ostalaritza ikasketak dituen mutila gertu tabernako zein jangelako zerbitzari moduan lan egiteko. Baita nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizi izanda edo bestela. 603 29 69 20

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintza lanetan aritzeko prest nago. Telefonoa: 669 38 92 91

Debagoiena. Soziosanitario ikastaroa eta legezko agiriak dauzkan neska lanerako gertu: ume zein nagusiak zaintzen edota etxeko lanak egiten. Astean zehar, orduka edo egunean zehar. Telefonoa: 697 86 48 91

Debagoiena. Soziosanitario titulua duen gizona nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko prest. Baita orduka ere. Telefonoa: 643 73 62 36

Debagoiena. Zaintza eta garbiketa lanak egiteko gertu nago. Orduka edo egund osoz. 632 83 32 44

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke, ahal bada etxean bertan bizi izaten. Bestela, orduka ere bai. Ikastaro eta beharrezko agiri guztiak daukat eta erreferentzia onak ere aurkeztu ditzaket. Telefonoa: 631 12 51 27

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke, orduka edo egunean zehar. 653 54 24 16

Debagoiena. Zaintza lanetan aritzeko prest nago. Erabateko prestutasuna. 631 19 75 84

Lan bila. Mutil arduratsua gertu nagusiak zaintzen, eraikuntzan laguntzen, sukaldea garbitzen edota laguntzen zein baserriko

lanetan aritzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 674 85 61 71

5. IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Bergara. Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eskola partikularrak Bergaran. Edozein materia edo hizkuntza lantzeko, Ingelesa barne. Harremanetarako zenbakia: 610 12 49 66.

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover bila nabil. Land Rover Defenderra behar dut baserriariko. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, maburata, kolpearekin. 623 17 95 37

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Txakurkume bila. Artzain-txakur aleman txakurkume arra hartuko genuke. 696 84 19 51

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

KAZETARI GAZTEAK AITOR MENDIZABALEKIN

'Galdegazte' Eguztzena, 21:30 eta 23:30



GOIENA

REVOLTA PERMANENT TALDEAREN KONTZERTUA

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 23:00

EGUBAKOITZA, 6	ZAPATUA, 7	DOMEKA, 8
10:00 Hemen Debagoiena 11:00 Elkarrizketa: Aizpea Oihander 11:30 Hemen Debagoiena 12:30 Huhezinema 4 13:00 Hala bazan: Bertsolaritza 13:30 Hemen Debagoiena 14:30 Albisteak 14:45 Harmalatik 15:15 Hemen Debagoiena 16:15 Albisteak 16:30 Kantari Oñati 6 17:00 Albisteak 17:15 Elkarrizketa: Izaro 17:45 Albisteak 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Kantari Oñati 4 19:30 Hala bazan: Bertsolaritza 20:00 Hemen Debagoiena 21:00 Hala bazan: Bertsolaritza 21:30 Elkarrizketa: Josu Bergara 22:00 Hemen Debagoiena 23:00 Kooltur: Revolta Permanent	09:00 Kantari Oñati 8 09:30 Kantari Oñati 7 10:00 Kantari Oñati 9 10:30 Hala bazan: Bertsolaritza 11:00 Hala bazan: Bertsolaritza 12:00 Harira: Rober Gutierrez 12:30 Elkarrizketa: Josu Bergara 13:00 Galdegazte: Ibai Zangitu 13:30 Huhezinema 4 14:00 Hemen Debagoiena 15:00 Osoko bilkura: Arrasate 16:00 Hemen Debagoiena 17:00 Kantari Oñati 9 17:30 Kantari Oñati 7 18:00 Kantari Oñati 8 18:30 Hilabetekaria: otsaila 19:30 Kooltur: Revolta Permanent 20:30 Hemen Debagoiena 21:30 Elkarrizketa: Josu Bergara 22:00 Hala bazan: Bertsolaritza 22:30 Galdegazte: Ibai Zangitu	09:00 Hala bazan: Bertsolaritza 09:30 Kantari Oñati 7 10:00 Kantari Oñati 8 10:30 Kantari Oñati 9 11:00 Hala bazan: Bertsolaritza 11:30 Elkarrizketa: Josu Bergara 12:00 Hilabetekaria: otsaila 13:00 Hala bazan: Bertsolaritza 13:30 Osoko bilkura: Arrasate 14:30 Hemen Debagoiena 15:30 Asteko errepasoa 16:30 Galdegazte: Ibai Zangitu 17:00 Kantari Oñati 9 17:30 Kantari Oñati 8 18:00 Kantari Oñati 7 18:30 Hala bazan: Bertsolaritza 19:00 Galdegazte: Ibai Zangitu 19:30 Harira: Rober Gutierrez 20:00 Hemen Debagoiena 21:00 Hala bazan: Bertsolaritza

EGUBAKOITZA, 6

JOSU BERGARARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa'

21:30

ASTEBURUA

ARRASATEKO OSOKO BILKURA

Zapatuan, 21:30, eta domekan, 13:30/21:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/ *telebista* Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

ASTEBURUA



GOIENA

OÑATIKO KANTARI

Zapatuan eta domekan, 09:30/17:00

MARTITZENA, 10

POLITIKARIEN EZTABAIDA SAIOA

'Harira eztabaida'

21:00/23:00

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguaztenezko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera utzerik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

OROIGARRIA



Julian
Lezeta Ezkurra

2016ko martxoaren 1ean hil zen.



Juan Jose
Garmendia Berezibar

1999ko martxoaren 10ean hil zen.

Zuekin pasatutako momentu onak gurekin gelditu dira.

Zuen lagunak.
Arrasaten, 2020ko martxoaren 6an.

OROIGARRIA



Mikel
Balenciaga Errasti

2020ko martxoaren 4an hil zen, 60 urte zituela.



Zauden lekuan zaudela,
besarkada handi bat.
Agur bero bat, laguna!!!

Musakolako lagunak.
Arrasaten, 2020ko martxoaren 6an.

OROIGARRIA



Mikel
Balenciaga Errasti

2020ko martxoaren 4an hil zen, 60 urte zituela.

Laboral Kutxako lankide eta lagunok
bat egiten dugu familiaren saminarekin.
Ez zaitugu ahaztuko, Mikel.

Laboral Kutxako lankide eta lagunak.
Arrasaten, 2020ko martxoaren 6an.

OROIGARRIA



Ramon
Mendibil Aiastui

2020ko otsailaren 27an hil zen.

Euskal kulturaren zaindari,
Fundazioko Patrono fin eta leiala.
Mila esker, Ramon,
betira arte.

Bergaran, 2020ko martxoaren 6an.

OROIGARRIA



Kepa
Markaide Armendariz

—Goian bego—
2020ko otsailaren 28an hil zen, 56 urte zituela.

Bizi garen artean gure bihotzetan eramango zaitugu.
Eskerrik asko, osaba.

Ilbaki: Isana, Gartzia, Ianire, Itoitz, Olatz, Eider, Enara, Aritz, Maren, Izaro, Unax eta Xuban.
Eskoriatzan, 2020ko martxoaren 6an.

ESKER ONA



Juanita
Ibabe Iriarte

2020ko otsailaren 25ean hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, martxoaren 7an,
19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2020ko martxoaren 6an.

URTEURRENA



Maria Teresa
Arrieta Aguirrebeña

Emeterio Murgiondoren alarguna
2019ko martxoaren 9an hil zen, 88 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 8an,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko martxoaren 6an.

URTEURRENA



Carmelo
Martinez Udaber

2019ko martxoaren 17an hil zen, 88 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 8an,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko martxoaren 6an.

URTEURRENA



Agustin
Bautista Dominguez

2019ko martxoaren 3an hil zen, 79 urte zituela.

Gure ondotik joan zara,
baina beti edukiko
zaitugu gogoan...

Urteurreneko meza zapatuan, martxoaren 7an, izango da,
Oñatiko Mikel Deunaren Eliza Nagusian, 19:00etan.

Aldez aurretik, mila esker.
Oñatin, 2020ko martxoaren 6an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 6 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Zapatua, 7 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Domeka, 8 ALBERTO AZKOGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Astelehena, 9 M. FCA. AZKOGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Martitzena, 10 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Eguaztena, 11 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Eguena, 12 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 6 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 7 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 8 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 9 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 10 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 11 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 12 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

ORATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 6 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 7 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 8 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 9 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 10 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 11 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 1
Eguena, 12 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 1

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2020ko abuztuaren 31ra arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 /
943 79 14 09

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2020 osoan:
ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19
63

Gipuzkoako farmazien egutegia
eskura izateko:
CZF Gipuzkoa aplikazioa
deskargatu Google Play eta
App Store dendetan.

BABESLEA OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue
nahiz eta heriotz
asegurua
izan, zuek
nahi duzuen
hileta-zerbitzua
aukeratzeko
eskubide osoa
duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta loguntza
dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

URTEURRENA



Arantzazu
Ruiz Anduaga

2019ko martxoaren 3an hil zen, 55 urte zituela.

Erreza izan zen zu maitatzea
ezinezkoa ordea zu ahaztea.
Beti gurekin izango zara.

Urteurren meza Mikel Goiaingeruaren parrokian izango da,
zapatuan, martxoaren 7an, 19:00etan.

Aurrez eskerrak bertaratuko zareten guztioi.
Oñatin, 2020ko martxoaren 6an.

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Sahararen Independentzia Eguna**

44 urte bete dira independentziarako bidea hartu zuela, eta hori ospatu zuten Arrasateko emakume sahararren elkarteak. Elikagaiak, edariak, musika eta dantzak izan ziren protagonista ekitaldian.

2. European Youth Parlament saioetan

Almen guneko batxilergoko 1. mailako hiru ikasle Bartzelonan apirilaren 14tik 19ra egingo den European Youth Parlament saioan izango dira. Hiru ikasleak Leire Garro, Estibaliz Benitez eta Maren Seiler dira.

3. Aratuste-kontzertua

Arrasate Musikaleko bandak Aratusteetako kontzertua egin zuen domekan. Musikari guztiak moztortuta, askotariko piezak eskaini zizkieten Amaia antzokira joandakoei. Zuzendaria ere moztortuta igo zen oholtzara.

4. Argazki onenaren saria jaso du

Aretxabaletako Hankabeltz urdaitegiak eta Jon harategiak emandako kalitate bikaineko produktuekin osatutako otarrea jaso du Alaia Moreno arrasatearrak, 2020ko Aratusteetako argazki lehiaketaren irabazleak.

5. Zuhaitzak landatzen, auzolanean

Natur Eskolako kideek gidatua, 50 bat zuhaitz landatu zituzten aurreko domekan Oñatin. Udazkenean egin zuten anfibioendako putzuaren bueltan egin zuten landaketa umeek eta helduek.

6. Urrezko ezteiak

Arantza Balerdi eta Angel Balzategi arrasatearrek bihar, martxoak 7, beteko dituzte 50 urte ezkontuta. "Zorionak, bikote, familia osoaren partetik! Ondo ospatu eta segi zoriontsu izaten".

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
Lola Matas Casado
Martxoaren 12an, 10 urte. Zorionak, politt hori! Asko-asko maite zaitugu! Ondo pasatu eta muxu potolo bat, danon partetik.



ARRASATE
Ekhi Madinabeitia Lasa
Martxoaren 10ean, 3 urte. Zorionak, sagutxo! Hiru muxu potolo, etxeko partetik!



OÑATI
Tasio Zelaia Marchand
Martxoaren 10ean, 6 urte. Zorionak etxeko guztion partetik eta egun eder-ederra pasatu!



BERGARA
Iraide Beristain Laskurain
Martxoaren 9an, 5 urte. Zorionak, politx hori! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Eta muxu handi-handi bat, familixa osoaren partetik.



ARRASATE
Jenni Davila
Martxoaren 9an, 33 urte. Zorionak etxeko partetik!



ARRASATE
Uxue Kortabarria Maskariano
Martxoaren 8an, 10 urte. Egun berezia aukeratu zenuen jaiotzeko: zu bezain berezia! Zorionak! Asko maite zaitugu: Naroa, aitatxo eta amatxo.



ARETXABALETA
Ilargi Azkarate Bilbao
Martxoaren 8an, 4 urte. Zorionak, Ilargi! Oso ondo ospatu zure eguna! Besarkada handi bat, danon partetik.



ARRASATE
Olatz eta Ipar Axpe Aranzabal
Martxoaren 8 eta 10ean, zazpi eta hiru urte. Zorionak aitxaitxa Juantxoren, amama Petra Mariren eta tia Liliren partetik. Patxo handi bat.



BERGARA
Julen Gartzaron Telleria
Martxoaren 8an, urtebete. Zorionak, Julen! Jada urtebete! Patxo handi bat, familia osoaren partetik.



OÑATI
Garazi Diaz de Gereñu Larrañaga
Martxoaren 7an, 6 urte. Zorionak, Garazi! Oso ondo pasatu zure seigarren urtebetetze egunean. Muxu bana etxeko danon partetik!



ARETXABALETA
Deiane Portalo
Martxoaren 6an, 14 urte. Zorionak, laztana, etxeko guztion partetik! Asko maite zaitugu. Oso ondo pasatu zure egunean! Musu handi bat.



OÑATI
Izei Umerez Eceolaza
Martxoaren 6an, urtebete. Zorionak, Izei! Ja urtetxo bat... Zorionak, maitia, etxeko danon partetik. Bereziki Laia. Muxu potolo bat.



ARETXABALETA
Garikoitz Arrese Serrato
Martxoaren 6an, 6 urte. Zorionak, Gari! Ondo ospatu zure eguna eta patxo handi bat, etxekuon partetik!



BERGARA
Ibai Egaña Zabaleta
Martxoaren 5ean, 4 urte. Zorionak, Ibai. Ondo ospatu zure eguna eta patxo pololo bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Unax Barandiaran Otxoa
Martxoaren 4an, 5 urte. Zorionak, mutiko handi eta ondo-ondo pasatu! Familixakuen partetik.



ESKORIATZA
Idoia Diaz de Gereñu eta Jose Ignacio Garro
Martxoaren 4an, 57 urte Jose Ignaciok eta martxoaren 8an, 51 urte Idoiak. Zorionak, bikote. Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunetan, familia osoaren partetik. Muxu pila bat biontzako.



BERGARA
Eki Larrañaga Barrenetxea
Martxoaren 4an, 4 urte. Zorionak, politx hori! 1,2,3...4! Patxo potolo-potolo bat!




ARRASATE
Markel Toston Lopez de Bergara
Martxoaren 4an, 4 urte. Zorionak, politx hori! Lau urtetxo! Ondo-ondo pasatu zure egunien. Patxo handi bat!




BERGARA
Magali Azula Padilla
Martxoaren 3an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Primeran ospatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat, etxeko partetik!



BERGARA
Aiur Dominguez Gonzalez
Martxoaren 2an, 6 urte. Zorionak, Aiur! Sei urte, txapelduna! Ondo ospatu zure eguna. Patxo erraldoi bat!



ARETXABALETA
Iker Isasmendi Zubizarreta
Martxoaren 3an, 43 urte. Zorionak, aitatxo, zure urtebetetzean! Muxu bat familia osoaren, eta batez ere, seme Inarren partetik.



OÑATI
Lexuri Altube Arkonada
Martxoaren 2an, 9 urte. Zorionak, politt hori. Jada 9 urte! Muxu erraldoiak aitatxoren, amaxoren eta Laiatzen partetik.



OÑATI
Lur Hernandez Otxoa-Aizpurua
Martxoaren 2an, 7 urte. Zorionak, maitia! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu potolo bat, familia osoaren partetik. Mua-mua!



BERGARA
Ander eta Jon Basauri Davila
Martxoaren 1ean, 8 urte. A ze pare! Zorionak familia osoaren, eta batez ere, Mikelen eta Unairen partetik. Muxu handi bana eta topera ospatu!



ARRASATE
Garazi Moreno Rozas
Otsailaren 28an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu eguna eta asko disfrutatu. Patxo potolo bat Janitzen, aitatxoren, amaxoren eta familixa danaren



ARAMAIO
Sare Ibabe Etxebarria
Otsailaren 28an, 2 urte. Zorionak, politx hori! Holako bixi eta sorgintxo jarraitxu! Ondo-ondo pasatu. Patxo potolo bat!



OÑATI
Anje Gezalaga Rodríguez
Otsailaren 27an, 6 urte. Zorionak, maitia! Sei urte jada! Muxu handi familia osoaren partetik!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 6

OÑATI Odol ateratzea
Martxoko deialdia.
Enpresagintzan, 17:00etan.

OÑATI Ekintza bateratua
Topalekuko eta Txipistin zerbitzuko gaztetxoek elkarrekin egingo dute.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ESKORIATZA 'Sare sozial eta bideo-jokoen prebentzioa' tailerra
Emoki taldeko kideen eskutik, gurasoendako.
Luis Ezeizako aretoan, 17:00etan.

BERGARA 'Amalurra' erakusketaren irekiera
Bergarako Emakume Artistek prestatutako bilduma ikusgai hilaren 29ra arte.
Arozegin, 18:00etan.

BERGARA 'Hamaika entzuteko' ikuskizuna
Ipuin eta antzerki saioa, Martxoaren 8aren baitan.
Seminarixoan, 18:30ean.

ELGETA 'Kopa menstrual' hitzaldia
Bibliobero egitarauaren baitan egingo du berba Elkor botikako ordezkari batek. Debalde.
Liburutegian, 18:30ean.

ARAMAIO 'Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere' solasaldia
Hainbat euskal gaztek Nepalera egindako bidaiaren kontakizuna.
Kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI Yogari buruzko hitzaldia
Vida y contentamiento delako berbaldia, Ramon Martinezekin.
Kultura etxean, 19:00etan.

OÑATI 'Gloria fuertes' ikuskizuna
Elkar Heziko batxilergo mailako ikasleen ekintza, M8aren harira.
Santa Anan, 19:00etan.

ARRASATE Txotxparta
19:00etan, poteoa; 20:30ean, autobus irteera; 21:30ean, afaria; eta 00:00etan, sagar *challenge*-a.
Zabolain sagardotegian.

ELGETA Brigade Locoren bideoklip berria
Ez dira pasako lana aurkeztuko dute, baita bideokliparen *making off*-a ere. Elgetako lubakiak izan dira bideo berriaren kokaleku.
Espaloian, 19:30ean.

OÑATI Barne Guda eta Bloom taldeak
Debalde.
Ikatz tabernan, 21:30ean.

ESKORIATZA Nhil taldearen aurkezpena
Sara Alonso, Asel Errasti, Xabi Zuazabeitia, Lia Garai, Aitor Ruiz de Austri eta Beñat Arrieta dira taldeko kideak.
Zaldibar antzokian, 22:00etan.

ARETXABALETA '80 amandre' ipuin kontaketa saioa
Dorleta Kortazarren eskutik, helduendako.
Udaletxe zaharreen, 22:00etan.

BERGARA Aneguria eta Zitada & Rlantz taldeak
Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenaren baitan. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:30ean.

ZAPATUA 7

ARETXABALETA Emakumeen frontenis txapelketa
Ligaxka eran jokatuko dituzte partiduak.
Iturrigorri frontoian, 09:00etan.

ARETXABALETA Gipuzkoako Trialsin Txapelketa
Lehen proba puntuagarriak jokatuko dituzte.
Arbizelaiko trialsin gunean, 09:30ean.

OÑATI 'Non daude tximeletak neguan?' bisita gidatua
Aurrez eman behar da izena: *arrikruz@onati.eus* helbidean edo 943-08 20 00 telefonoan.
Arrikruzten, 09:30ean.

OÑATI Zuhaitz azoka
Hainbat mintegitako produktuak, Ingurumen Jardunaldien baitan.
Foruen plazan, 09:30ean.

LEINTZ GATZAGA Zuhaitz Eguna
10:00etan, ginkana Gatz Bidean; 11:30ean, zuhaitz berrien landatzea; eta luntxa.
Gatz Bidean.

ESKORIATZA Degurixara ibilaldia
Degurixan bazkalduko dute.
Gaztelekuan, 10:00etan.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria
Askotariko ekintzak 3-12 urte arteko neska-mutikoendako.
San Andresen, 11:00etan.

OÑATI 'Ezagutu Gomiztegi baserria familian' bisita berezia
Debagoiena Gastronomika egitasmoaren baitan. Aurrez eman behar da izena: 943-79 6463 edo *turismo@debagoiena.eus*.
Gomiztegin, 11:30ean.

ARRASATE OÑATI Arrasaten bizi diren oñatiarren bazkaria
13:00ean, Sanprubus tabernan luntxa; 14:00etan, talde argazkia; eta 14:30ean, bazkaria Erreka jatetxean.
Arrasaten.

ARRASATE 'Kantari' ikuskizuna
Arrasateko saioen grabaketa.
Amaia antzokian, 16:00etan.

OÑATI 'Janaria eta zunba'
Topalekuko erabiltzaileendako.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARAMAIO Arabako Bertso Kuadrilla Artekoa
Zalduondoko Lautadako Ahuntzak taldea eta Aramaioko Izenbakuek nor baino nor gehiago.
Sastiñan, 19:00etan.

ARRASATE 'Arrasate Blues': Los Winters taldea
Johnny Winter gitarra-jolearen bertsioak egiten dituen taldearen emanaldia baliatuko dute garagardoa aurkezteko.
Kajoi tabernan, 19:00etan.

BERGARA AMAK eta Ain_1 taldeak
Emakumez osatutako bi talderen kontzertua, Martxoaren 8aren harira. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoan, 19:00etan.



GOIENA

ARRASATE 'Erradikalak ginen' ikuskizuna
Ane Labaka bertsolaria eta Beatriz Egizabal ipuin kontalaria dira protagonistak. Zahartzeaz, gorputzaren aldaketaz, sexualitateaz, merkatu patriarkalaz... hausnartuko dute.
Bihar, zapatua, Kulturaten, 19:00etan.

ARAMAIO 'Viaje al cuerpo de una madre' pelikula
Martxoaren 8aren harira.
Kultura etxean, 21:00etan.

ESKORIATZA Sharon Stoner
Debalde.
Inkernu tabernan, 22:30ean.

DOMEKA 8

ELGETA Ibiltarien Jaia
08:00etan, mendi ibilaldiaren hasiera; 14:00etan, diploma banaketa, eta 14:30ean, bazkaria.
Elgetan.

OÑATI Zuhaitz Eguna
Aloñako Lagunak taldearekin, auzolana egingo dute.
Unaimendin, 10:00etan.

OÑATI Musika bandaren kontzertua
Irekia.
Santa Anan, 12:45ean.

ARRASATE 'Kantari' ikuskizuna
Arrasateko saioen grabaketa.
Amaia antzokian, 16:00etan.

ARRASATE 'Familia jolasean'
0-8 urte arteko umeendako eta euren familiendako ekintzak.
Okendoko ludotekan, 17:30ean.

OÑATI Ingurumen Jardunaldietako erakusketa: azken eguna
Gaur da azken eguna.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE Ekiñe Casado
Debalde eta irekia, herritar guztiendako.
Irati topalekuan, 19:30ean.

ASTELEHENA 9

OÑATI Udalekuak: izen-ematea
Gaur zabaltzen da udaleku irekietarako eta arte udalekuetarako haurrendako eta begiraleendako izen-ematea epea. Hilaren 20ra arte.
HAZen, 07:30ean.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

MARTITZENA 10

OÑATI 'Negozio ideiak proiektuetan eraldatzen' saioa
Ekintzaileendako, autonomoendako, profesionalendako eta enpresa txikiendako.
Enpresagintzan, 14:00etan.

ARETXABALETA 'Erretratuak' erakusketa
Karmen Uribesalgoren bilduma.
Arkupen, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Fabricando mujeres' dokumentala eta solasaldia
Setem Hego Haizea GKEko kide batek dinamizatuta.
Arkupen, 18:00etan.

OÑATI Idazketa lantegia
Joxe Mari Iturraldek gidatuta.
Liburutegian, 18:00etan.

OÑATI 'Erraiak' dokumentala
Irrintzia oinarri du Ekain Martinez de Lizarduyk egindako lanak.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARRASATE 'Dios es mujer y se llama Petruya' pelikula
Teona Strugarren lana.
Amaia antzokian, 20:30ean.

EGUAZTENA 11

BERGARA 'Crónica de tribunales' hitzaldia
Iñaki Esparzak egingo du berba.
Seminarixoan, 10:00etan.

ESKORIATZA 'Fabricando mujeres' dokumentala eta solasaldia
Setem Hego Haizea GKEko kide batek dinamizatuta.
Zaldibarren, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Salud y medicina' hitzaldia
Ramon Etkezarreta medikuak egingo du berba, gazteleraz.
Kultura etxean, 18:30ean.

ARRASATE Ipuin kontaketa
Dorleta Kortazarren saioa, 4 urtetik gorakoendako.
Santa Marinako auzo bibliotekan, 18:00etan.

OÑATI Zinegoak
Gay-lesbo-trans zinema eta arte eszenikoen nazioarteko jaialdiko pelikulak.
Zinema aretoan, 19:30ean.

BERGARA Zinegoak film laburren emanaldia
Mi pequeño gran Samurai, Krokodiloa, AD Lib, Jess, Rani, XY eta *La Mariachi*.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 12

ARRASATE 'Geroa bermatuz' jardunaldia
09:30ean, hasiera; 09:45ean, Maria Odriozolaren, David Martinen eta

Javier Sastreren hitzaldia; eta, 11:20an, kasu praktikoak eta galderak.
Debagoieneko Mankomunitatean, 09:30ean.

ARRASATE Sasoibide irteera
Musakolara joango dira.
Biteri plazan, 10:00etan.

OÑATI Garbigune ibiltaria
Egun osoan egongo da.
Berdura plazan, 10:30ean.

ESKORIATZA Odola emateko autobusa
Irekia.
Fernando Eskoriatza plazan, 16:15ean.

ELGETA Xalbadorpe elkartearen urteko batzarra
Besteak beste, 2019ko diru kontuak aztertu eta zuzendaritzan aldaketak onartuko dituzte.
Ozkarbi elkartean, 17:00etan

ARRASATE Ipuin kontaketa
Dorleta Kortazarren saioa, 4 urtetik gorakoendako.
Kulturaten, 18:00etan.

OÑATI 'Euskara, itxaropen bat iraganari' hitzaldia
Pako Aristik egingo du berba.
Udal euskaltegian, 18:00etan.

ESKORIATZA Euskal jantziak egiteko ikastaroa
Bigarren saioa egingo dute Gonak eta txalekoak egiten ikasiko dute.
Kultura etxean, 18:00etan.

ESKORIATZA Literatura solasaldiak
Stephen Kingen *Misery* liburuari buruzko saioa egingo dute, Ivan Repilarekin.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Placer femenino' filma
Emakumeen sexualitatea askatzeari buruz Barbara Miller zuzendariak egindako lana. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 19:30ean.

ARRASATE Skakeitan taldea
Kooltur Ostegunetako kontzertua. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE
AMAIA ANTZOKIA
Insumisas
Astelehena: 20:30.

BERGARA
SEMINARIXOAN
La llamada de lo salvaje
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Operacion panda
Domeka: 17:00.

OÑATI
KULTURA ETXEA
Parásitos
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Las aventuras del doctor Dollittle
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA
ARKUPE
1917
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Jumanji
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR
COLISEO
Especiales
Zapatua eta domeka: 17:00.
Astelehena: 20:30.
El doble mas quince
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

El plan
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.

ANTZOKIA
Especiales
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.

GASTEIZ
BOULEVARD
Onward
Egunero, martitzena izan ezik: 12:30, 17:00, 19:15, 21:30, 23:45.
Marritzena: 17:00.
Egubakoitzetik

domekara: 12:00, 16:15, 18:30.

Bloosshot
Egunero, martitzena izan ezik: 13:20, 15:45, 17:55, 20:00, 22:10, 00:15.
Martitzena: 15:45, 17:55, 20:00.

El ritmo de la venganza
Egunero, martitzena izan ezik: 13:10, 15.50, 18:10, 20:25, 22:45.
Martitzena: 15:50, 18:10, 20:25.

Que la boda nos separe
Egubakoitzetik domekara: 20:40, 22:50.
Astelehenetik eguenera: 19:25, 21:45.

The gentlemen
Egunero, martitzena izan ezik: 16:45, 19:15, 21:45, 00:15.
Martitzena: 21:45.

Parasitos
Egunero, martitzena izan ezik: 19:30,

22:15.
Martitzena: 19:30.

El hombre invisible
Egunero, martitzena edo eguena izan ezik: 13:15, 16:35, 19:10, 21:50, 00:25.
Martitzena: 16:35, 19:10.
Eguena: 17:15, 21:50.

Cuestion de justicia
Egunero: 22:05.

La llamada de lo salvaje
Zapatua eta domeka: 12:20.
Egunero: 16:10, 18:20, 20:30.

Aves de presa
Egunero: 22:40.

Las aventuras del doctor Dollittle
Zapatua eta domeka: 12:15.
Egunero: 17:15.

Jumanji
Zapatua eta domeka: 12:50.

Malasaña
Egubakoitza eta zapatua: 00:20.

Adu
Egunero: 17:15, 19:35, 22:00.

La patrulla canina
Zapatua eta domeka: 12:45.
Egunero: 14:45, 16:00.

1917
Astelehenetik eguenera: 17:00.

GORBEIA
Frozen II
Zapatua: 16:15.
Domeka: 12:00, 16:15.

Parasitos
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 19:50, 22:25.
Domeka: 17:15, 19:50.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:10.

Jumanji
Egubakoitza eta zapatua: 22:10.
Domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Adu
Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:30.
Domeka: 20:10.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Volando juntos
Egubakoitza eta zapatua: 20:10, 22:30.
Domeka: 20:10.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Hasta que la boda nos separe
Egubakoitza eta zapatua: 20:20, 22:30.
Domeka: 12:00, 20:20.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

La llamada de los salvaje
Egubakoitza: 18:10, 20:10.
Zapatua: 16:10, 18:10, 20:10.
Domeka: 12:00, 16:10, 18:10.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Boonie bears
Egubakoitza eta zapatua: 18:20.
Domeka: 12:00, 18:20.

The gentlemen
Egubakoitza eta zapatua: 20:15, 22:30.
Domeka: 20:15.

KRITIKA

Monos ★★★★★
Zuz.: Alejandro Lades. **Herr.:** Kolonbia (2019). **Aktoreak:** Julianne Nicholson, Moisés Arias, Jorge Román.

Egoera asaldagarria

ANTONIO ZABALA
Monos izaera militarra duen neska-mutil talde bat da. Kolonbiako basoan ezkutaturik bizi dira. Bahituta duten Ameriketako Estatu Batuetako emakume baten zaintzaz arduratzen dira. Noizbehinka, euren gana hurbiltzen da oso diziplina zorrotza inposatzen duen sarjentua. Hasieran, kosta egiten da Ladesek azaltzen digun istorioan sartzea. Nerabeak diren neska-mutilez soilik osaturik egotea taldea, hain altuera txikiko sarjentuaren agerpenak... dena nahiko arraroa dela dirudi. Ez dakigu zuzendariak zer egin gura duen hasiera horrekin, eta denbora behar da filma gorpuztuz joan dadin. Naturaren deskribapenak garrantzi handia du filmean. Klimak (euria eta hezetasuna) eta bizi diren inguruneak (erreka, landaretza,



FOTOGRAMAS

intsektuen agerpena) eragin handia izango dute pertsonaien egoera fisikoan eta psikikoan. Irudi aldetik, pelikula oso erakargarria da. Zuzendariak etekin handia ateratzen dio naturaren edertasunari, baita honen izaera basatiak pertsonaiengan izan dezakeen eragin aztoratzaileari. Naturan

gertatzen den dikotomia neska-mutilen taldean ere gertatzen da. Alde batetik, militar diziplinak ekartzen duen gogortasuna eta bihozgabekeria ikusten da; bestetik, pertsonaiek haur izan ziren garaiko ezaugarriak mantentzen dituzte. Norgehiagoka horrek atmosfera asaldatzailea ematen dio filmari.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Gogoratzen dut...

Gogoratzen dut 2011-2015 legealdian puri-purian izan genuela zaborren gaia. Bergaran, oposizio bezala, Bilduren Udal Gobernuari Udaleko eta Mankomunitateko txostenak eskatzen genizkion gure lana, gobernua kontrolatzea, hobeto egin genezan. Ikusi genuen Epeleko zabortegia zigilatzeke, erabat ixteko, diru bat zegoela, milioitik gora, oker ez banago, baina orduko Mankomunitateko arduradunek, Bilduk, zabortegia zigilatzeke dirua, besteak beste, atez atekoa ezartzera bideratu zuten. Epeleko konpost plantaren inaugurazioa ere egin zuten, oraindik bukatu gabe zegoenean, eta akatsez betetako eraikuntza hurrengo arduradunok konpondu eta jarri genuen martxan.

Gogoratzen dut ere errauskailua eta zaborren kudeaketa egiteko azpiegiturak egin beharrean zaborra kanpora bidali zutela, horretarako, kamioiek kutsadura handiko arrastoa utziz. Eta ondo gogoratzen dut zaborren kudeaketa egiteko Bilduren ereduak plastikotik bildutako zabor bola handiak pilatzeko zabortegiak zabaltzea zela. Zaldibarren argi ikusi dugu zabortegietan sor daitezkeela kontrolik gabeko suteen kutsadurak eta ez direla eredu egokia hondakinen kudeaketarako. Zein da, beraz, ezker abertzalearen soluzio magikoa?

BUKATZEKO



GOIENA / E.A.

Gipuzkoako herrien izenak ulertzeko liburua

Patxi Salaberriren eta Luis Mari Zalduaren 'Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia' ikerketa-lana argitaratu du Euskaltzaindiak, paperean eta webgunean aldi berean. Debagoieneko herrien izenen azterketa ere badago

Naroa Urien Berrio ARRASATE

Oñatik mendiaren oinean du jatorria; Bergarak, Erdi Aroko iturrietan; Aretxabaletak, aldiz, haritzen toki zabalean. Horrelakoak eta aldrebesagoak maiz entzun badira ere, gauzak bere tokian jartzera dator *Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia* ikerketa-lana. Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzain osoak eta Luis Mari

Zaldua Etxabe urgazleak "metodologia serioa oinarrian hartuta eta zuhurtziaz" osatu dute, eta Euskaltzaindiak argitaratu du, Izenak bilduman.

Egileek Andres Urrutia euskaltzainburua eta Garbiñe Mendizabal Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendaria ondoan zituztela aurkeztu dute asteazken honetan Donostiako Foru Jauregian, aldi berean paperean

eta akademiaren webgunean PDF formatuan eskuragarri jarri den lana.

4.500 testigantzen bilketa

Dokumentazio joria baliatu dute lanerako, bai idatzizkoa (4.500 testigantza), baita ahozkoa ere (242 lekukoren 700 lekukotza, *Ahotsak.eus*-etik hartuak). Emailtzak alfabeto ordenan jarri dituzte, herrikoa, herri izenari



Gipuzkoako herrien izenak liburua.

dagokion sarreraren txertatuta auzo eta bestelako populazio guztiak; gehien dituztenak, bide batez, Aretxabaleta eta Eskoriatza dira, zazpina. Sarrera bakoitzean eman dituzte izen ofizialak; dokumentuetan aurkitutako lekukotasunak; euskal testuek; ebakera edo ahoskera; etimologia; gentilizioa; eta, dagoen kasuetan, herriaren edo herriaren beraren ezizena.

Debagoieneko herriak

Liburuan, Gipuzkoako 182 entitate hartu dira aintzat. Gehienak udalherriak (89) eta auzoak (85) dira, baina badaude populazio-gune txikiagoak ere. Irakurleak igarriko du baten bat faltan, ez baitira aintzat hartu liburuetan eta dokumentuetan agertzen ez direnak, horrek tradizio falta adierazten duelako. Liburuan, noski, Debagoieneko herriak ere badaude: Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati eta Elgeta.

Norberaren herriaren, etxearen, kalearen... izena tertuliagai izaten da sarri. Mendizabalen esanetan, herria maite duen edozeinek estimatuko duen lana da argitaratu berria.


GOIENA TELEBISTA

UDABERRIKO PROGRAMAZIO BERRIA

HALA BAZAN

GOIENA TELEBISTA

MARTXOAREN 12AN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
90. HAMARKADAKO BERTSOLARITZAZ



goiena
Zu hemen zaude.